TORTURA
Euskal Herrian

TAT

TORTURA
Euskal Herrian

2001 TXOSTENA

Editeur: Miatzen SARL

Txosten hau, 2001. urtean zehar TAT-Torturaren Aurkako Taldeak 68 euskal herritarrengandik jasotako tortura testigantzen oinarripean egina dago.

Réalisation graphique et couverture: Monti

Txosten honen helburua, Euskal Herriaren aurka frantses eta espainiar Estatuek erabiltzen duten tortura salatu eta plazaratzea da. Helburu hontan zuk ere lagundu dezakezu. Txostena zabaldu, fotokopiatu, interneten sartu... Eskertuko genizuke.

Première edition: février-2002
I.S.B.N.: 2-84747-000-X
Depót legal: NA.

Imprès a Gráficas Lizarra, S.L.,

AURKIBIDEA

AURKEZPENA....7
TESTIGANTZAK....11
METODOAK....79
ERTZAINTZA....89
POLIZIA NAZIONALA....90
GUARDIA ZIBILA....92
SALAKETEN EGOERA....95
2000 URTEA....97
2001 URTEA....117
TORTURAREN AZTARNA IKUSTEZINAK
TORTURA PSIKOLOGIKOAREN ONDORIOAK....135
BI KASU ARGIGARRI....141
IRATXE SORZABAL....143
TESTIGANTZA OSOA....145
MEDIKUEN BALORAZIOA....155
FORENTSEEN TXOSTENEN ERREPRODUKZIOA....167
HEDABIDEAK SORZABAL KASUAN....183
ELKARRIZKETA....193
UNAI ROMANO....201
TESTIGANTZA OSOA....203
MEDIKU TXOSTENEN ERREPRODUKZIOA....217
1980. URTEAN EUSKAL HERRITAR TORTURATZEAGATIK 2001. URTEAN
ZORTZI GUARDIA ZIBIL KONDENATUAK....225
TORTURAREN PREBENTZIORAKO EUROPAR BATZORDEA
ETA TORTURA ESTATU ESPAINOLEAN....237
TORTURA DESAGERTARAZTEKO TAT-EN PROPOSAMENA.
BILEREN BALANTZEA ETA JASOTAKO ERANTZUNAK....249

AURKEZPENA

Euskal Herriak torturarekin hasi du mende berri hau eta 2001 urte hau amaitzear dagoenean ere torturak bortizki jotzen gaitu guztiok. Hau da 2001 urteko balantzea. Ezer berririk ez. 1981 urtean, 1984 urtean, 1993 urtean ere balantze bera egin genezakeen. Joxe Arregi hil zuten torturatzaileek, Mikel Arrastiak torturaren ihesean galdu zuen bizia, Esteban Muruetagoiena hil zuten, Mikel Zabaltza, Xabier Kalparsoro, Gurutze Iantzi…. Iratxe Sorzabal? Unai Romano? Aurten torturak jasan dituzten 100 pertsonak? Euskal Herria osoak? Guztion bizia apurka eramaten dute inpunitate osoz jarduten duten torturatzaileak. Espainiako Entzutegi Nazionaleko epaileen baimenaz, Estatuko gobernatzaileen babesaz, komunikabide gehienen ezkutatze eta lejitimazio lanaren laguntzaz, politikari gehienen isiltasunaz… baliatzen dira torturatzaileak beraien lana ondo egiteko. Eta hemen ez da ezer gertatzen.

Aurten aspaldiko partez torturaren frogak ikusi ahal izan ditugu. Eta zer? Froga hoiek argitara ematen genituen egunean bertan, inkomunikatuta zeuden euskal herritarrak torturatuak izaten ari ziren. Ostean ere hainbat euskal herritarrek torturak jasan dituzte eta inork ezer egiten ez ba du, bihar bertan ere euskal herritarrak torturaren biktima izango dira.

Entzutegi Nazionala, abokatua aukeratzeko debekua, familiarekin harremana izateko ukazioa, konfidantzazko medikuarekin ezin egotea, tortura salaketen azterketa judizial eskasa edo eza,

torturatzaile zigortuekiko estatuak duen begirunea eta hauek gobernutik jasotzen duten barkamena.... Tortura posible izan dadin baldintzen esistentzia eta torturatzaileek duten inpunitatea dira egun tortura posible egiten duten elementuak.

Horrekin amaitu daiteke, Euskal Herriak du hitza eta Euskal Herriari proposatu diogu 9 puntuetako taula. Zorionez, pixkanaka gero eta euskal eragile eta norbanako gehiagok bat egiten du Torturaren Aurkako Taldeak proposaturiko 9 puntuetako taularekin, bainan zoritxarrez oraindik ez da nahikoa. Olatu erraldoi bat sortu behar dugu, tortura lurgainetik eramango duen olatua, eta lan hortan milaka ur tantta behar dira. Gu, zu, zuek, tantatxoak gara bainan guztion artean olatu erraldoia sor dezakegu. Ez dago beste biderik. Bitartean, norbait atxilotu eta inkomunikatzen dutenean Iratxe Sorzabalen gorpu masakratuaz gogora zaitez, txosten-liburu hontan irakurri ditzazkezun testigantza izugarriez jabetu zaitez.

TESTIGANTZAK

TESTIGANTZAK, txostenaren atalik nagusiena da. Bertan 2001. urtean inkomunikatuta egondako pertsonen kontaketa ikaragarriak datoz.

Hala ere, eta zoritxarrez leku faltagatik, testigantzak asko murriztu behar izan ditugu.

Nahiz eta testigantzak laburbiltzeak dakartzan mugak handiak direla jakin, kontaketak lehen pertsonan egitea nahiago izan dugu, hirugarren pertsonan egingo bagenitu hutsalagoak bailirateke.

Jarraian datozen fitxetan, testigantzez gain atxilotuak izan zireneko datak eta lekuak, atxiloketak burutu zituzten polizia taldeak, inkomunikazio egoeran egondako denbora, pertsona hauentzako epaileek erabakitako norakoa eta muturreko erabaki hauek zein epailek hartu zituen aurkituko duzu.

Fitxa hauek hobeto ulertzeko, jarraian interesgarri diren hainbat datu zehaztuko ditugu:

INSTRUKZIOKO EPAITEGI ZENTRALETAKO ARDURADUNAK:

JCI Nº 1: GUILLERMO RUIZ POLANCO
JCI Nº 2: ISMAEL MORENO
JCI Nº 3: Mª TERESA PALACIOS
JCI Nº 4: CARLOS DIVAR (2001eko abendua bitartean)
JCI Nº 5: BALTASAR GARZON
JCI Nº 6: JUAN DEL OLMO

EGOERA: fitxaren atal honetan Entzutegi Nazionaleko Epaile direnek aitorpen judizialen dilijentzia egin eta gero deituak izan diren pertsonen norakoa zehazten dugu.

Litekeena da egoera honek denborarekin aldaketak jasan izana. Posible da deituak izan diren zenbait pertsona, nahiz eta deklarazioa egiterako unean beraien espetxeratzea agindu fidantzapeko askatasunean egon daudenak. Bestalde, posible da bere garaian askatasun agindua jaso zuten haiek egun espetxean egotea epaileak horrela erabaki duelako.

Sarrera labur eta argigarri honekin bukatzeko, txosten honetan jakitera eman ditugun kasuak TAT-era iritsi zaizkigun guztiak ez direla esan behar dugu. Badira zenbait pertsona, agerikoak diren arrazoiengatik, bere testigantza publiko egiterik nahi izan ez dutenak. Konturatuko zaren bezala testigantza egin duten hainbat pertsonek berauen izenak ez jartzeko eta beren nortasuna inizialen bide isilean mantentzeko eskatu digute. Komunikazio arazoak medio, torturatutako hainbat pertsonen testigantzak ez dira jaso, denbora faltagatik, espetxean daudelako eta idatzizko komunikazioak dituen oztopoak haundiak direlako. Testigantza hauek beren tokia izango dute hurrengo txostenetan.Testigantza txostenetan IRATXE SORZABAL eta UNAI ROMANO-renak ez dituzu aurkituko. Bi kasu hauei tratamendu berezia eskaini diegu. Bi kasu hauek torturaren errealitate gordinaren froga garbia dira.

Beraien testigantza guztiaren ondoan kontatzen dutenaren ebidentzia garbiak aurkituko dituzu. Argazkiak eta medikuen txostenak, hala nola kasu bakoitza instruitzeaz ardura hartu duen Entzutegi Nazionaleko Epailearen jarrera.

Jose Ramon Ramada Estevez

ADINA:	38 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/01/06
ATXILOTZE LEKUA:	Mexikon; Madrilera entregatua
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Mexikoko kaleetan atxilotu eta gero, hegazkinean gure egoera salatu nuen, errefuxiatu politikoak izanik, Espainiara bueltan torturatuak izango ginela azaldu nahian. Baina hiru polizik bortizki ixilarazi ninduten, ahoa tapatuz eta “llave” horietako bat eginez... Madrilera heldu ginenean, polizia bik jaitsi gintuzten hegazkinetik...

DGS tratua oso gogorra izan zen, fisikoa baino jasangaitzagoa den tortura psikologikoa tarteko. Umiliazioak etengabe... Laguna nire erruz sufritzen ari zela eta deklaratu ezean, torturapean bederen, guztia aterako ziotela entzuteak gainditu egiten ninduen; pairaezina zitzaidan hori horrela gerta zitekeela pentsatze hutsa... Gainera, orduak irauten zituzten galdeketak egiten zizkidaten eta hori nekagarria da oso buruarentzat.

Tortura fisikoak ere ez ziren falta izan: maiz kolpatu ninduten buruan argazki album eta telefono gidekin; zaplastekoak ematen zizkidaten belarrietan esku ahurrak erabiliz, erabat lelotuta utzi arte; ile, bibote eta patiletatik tiraka berriz, min izugarria egiten zidaten eta lepoa eta bularra karate teknikekin kolpatu ondoren, ileetatik helduz, burua iharrausten zidaten... sabelean eta barrabiletan ukabilkadak etengabe...

Azkenerako lur jota nengoen; negarri emanda Milari ezer egin ez ziezaioten eskatuz... zapuztuta aldi berean, lagunak negar egiteari uzten ez ziolako... erabat nahastuta neukan burua...

2 Lierni Armendariz Gonzalez de Langarika

ADINA:	27 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/01/11
ATXILOTZE LEKUA:	Bartzelonan.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia munizipalak polizia nazionalaren eskutan utzi zuen
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº3.
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Zaplastekoak eta burukoak etengabe. Zutik egon behar nuen denbora guztian. Halako batean, iletik tiraka eta paretaren kontra botaz, galdu nuela esan zidan... Handik atera orduko, beste bi polizia nituen zain kolpeka hasteko eta laster, kolpeka ekin zion beste bat ere agertu zen.

Atzetik, beste bat gehiago. Lau ertz zituen burdinezko makila bat zekarren honek eta lurrean utziz gainean belaunikatzeko agindu zidaten...Bi polizik behartu ninduten hori egitera, indarrez. Mina hasieratik sentitu nuen eta hankak mugitzeari ekin nion, burdinezko gauza hura azpitik kendu nahian. Bitartean, ileetatik tiraka neukan bat, aurpegia sabaira begira eduki nezan. Tramankulua ekarri zuenak berriz, aurpegi nahiz belarrietan kolpatzen ninduen eta hirugarren batek, eskuburdinekin atzean lotuta neuzkan eskuei heldu eta goruntz tira egiten zien, esku bat bihurritzeraino.

Aspertu zirenean, ez nengoela batere gaizki, emakume polita nintzela esan zioten elkarri. Gero, denbora guztian biok bakarrik noiz geratuko zain zegoela esan zidan batek, biluztu eta nirekin jolasteko irrikaz. Aldi berean, titia eskuarekin kolpatu zidan. Bere besoa lepoan jarri eta berriro luzatu zuen eskua nire bularretara; kamiseta pixka bat igo eta galtzen gerrikoari tira eginez, ondo nengoela esan zidan ostera..."

Behin baino gehiagotan, belarri atzetik, lobulo ondoa hatzamarrekin zanpatu eta altxatu egiten ninduten hanka puntetan jarri arte. Izugarrizko mina eragiten zidan horrek, baita zorabioa ere. Antzeko zerbait egin zidaten mandibularen azpian bi hatzamar sartuz...

Ziega bat ireki zela entzun nuen: Iñakiren bila zetozen. Nire ate ondotik pasatu zenean "Animo Iñaki" oihukatu nuen eta berak "animo" erantzun zidan, ahots dardara batekin. Gaizki zegoela iruditu zitzaidan... horrek lur jota utzi ninduen...

3 Iñaki Krutxaga

ADINA:	37 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/01/11
ATXILOTZE LEKUA:	Barcelona
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia munizipalak, nazionalaren eskuetan utzi zuen.
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Denak batera hasi ziren galdezka eta mehatxuka...Gero, batek aurpegian eta buruan kolpeka ekin eta...gainontzekoek ere berdin egin zuten... Plastikozko poltsa bat sartu zidaten burutik behera, aurpegia kolpatuz hala nengoen bitartean, sudurretatik odola isuri zitzaidan arte...

Beranduago, "tocahuevos" deitzen zioten polizia bat agertu zen eta gorputz osoa astindu zidan, gibelean, urdailean, bularrean, buruan...kolpeka. Hormaren kontra jarrita jo ninduen haseran; gero, bizkar hezurra eta giltzurrun aldeak berotu zizkidan, galderak eginez etengabe... Jarraian, barrabilak kolpatzeari ekin zion, hormaren kontra helduz lurrera eror ez nendin ...

Gerritik behera biluztu eta mahai baten gainean etzanarazi ninduten, hankak zintzilik nituela ... Orduan, "tocahuevos" barrabilak estutzen hasi zitzaidan. Oso nekatua nengoen eta gorputz osoa minduta neukan: barrabilak, eskumuturrak, bizkarra... Hark hori egin bitartean, telefono gida batekin kolpatzen ninduten buruan.

Buruarena egiten zuenak, poltsa jarri zidan, telefono gidarekin kolpeka jarraitzen zuen bitartean. Poltsarena belauniko jartzera behartu eta gero errepikatu zidaten. Gehiago jasan ezin nuenean ere, poltsa kendu gabe jarraitzen zuten telefono gidarekin kolpatzen behin eta berriz. Lurrean etzanda uzten ninduten gero, prozesua hiruzpalau aldiz errepikatuz. Gainontzeko atxilotuak tratu berdina jasaten ari zirela zioten... polizietako batek eskaileretatik behera botako ninduela esan eta gai zela aditzera emateko, gorputz erdia eskaileretara atera zidan beheruntz indarra eginez. Berak ez zuen arazorik ikusten, neure burua bota nuela esango zuelako.

E.G.M.

ADINA:	20 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/01/17
ATXILOTZE LEKUA:	Arrasate
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	2 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Durangoko komisaldegira eraman ninduten. Denbora guztian leku batetik bestera neramaten, gela batean sartzen ninduten, gero handik atera... argia piztuta zegoen eta ez zidaten uzten lorik egiten...

Galdeketak etengabeak ziren, luzeak, jarraiak “comiéndome la cabeza a saco”. Ziegan nengoen, eta galdeketa batera eramaten ninduten, igoal ordu erdikoa zena, jarraian ziegara sartzen ninduten, eta handik denbora gutxira beste galdeketa batetara eramaten ninduten, etengabea zen. Ez nuen denbora kontrolatzen, ez nekien eguna edo gaua zen, oso arin galdu nuen denboraren konzientzia.

Fisikoki jo ez ninduten arren, psikologikoki min egiten saiatzen ziren denbora guztian, hasiera batean lasaiago hasten ziren, eta denbora igaro ahala, beraien jarrera bortitzagoa egiten zen. Denbora guztian familiarekin mehatxatzen zeuden, neska lagunarekin, familia apurtu nuela, “les has jodido la vida a los padres”, gurasoek ez zidatela kasurik egingo behin eta berriro... Eta egoera honek niregan egonezina eta nekea sortzen zuen. Ez zidaten uzten lo egiten.

Egun bi egon nintzela komisaldegian esan didate gero, ez nekielako zenbat denbora igaro nuen bertan....

Komisaldegian deklarazio poliziala egin nuen, galderak egin zizkidaten eta azkenean sinatu arazi zidaten, eta gero Audientzian dena berrestu nuen, es ke...

N.G.G.

ADINA:	23 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/02/24
ATXILOTZE LEKUA:	A-15
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Kotxean sartu eta eskuburdinak jarri orduko, mehatxuak, galderak eta poltsarena egiten hasi zitzaizkidan. Hiltzera nindoala iruditzen zitzaidan eta hasiera besterik ez bazen, ez nuela iraungo pentsatzen nuen. Madrilera heltzeko ordu erdi falta zela esan eta landa batean geratu ginen...

Antifaza jarrita, hormaren kontra zutik egotera behartu ninduten haseratik. Gero, belarri ondoan oihuka, burua hormaren kontra kolpatzen zidaten. Polizia batek berotuta zegoela zioen; beste batek, atxilotu bat bortxatu egin zutela eta beraz, nire txanda ere heldu zela. Jarraian, ziegara eraman ninduen. Hango ohea oso erosoa zela esan zuen lehendabizi; gero, gerririk gora biluztarazi, bularrak igurtzi eta ordu erdiara itzuliko zela esan zidan, bortxatu egingo nindutela erepikatuz. Beldurrak jota nengoen.

Flexioak eginarazi zizkidaten, ezinean lurrera erori arte. Uraren txorrota ireki eta bainerarena egingo zidatela mehatxatu ninduten... Gero, liburu edo gauza gogorren batekin jotzen hasi zitzaizkidan... Azkenean, erabat etsita, deusik ez nekiela eta bertan itoko banindute ere, ezer garbirik aterako ez zutela oihukatu nien.. Orduan, prakak jaitsi, lau hankatan jartzera behartu eta gisa hartan ibiltzeko agindu zidaten, euretako batek, niri begiratze hutsak nazka ematen ziola deliberatu ondoren, prakak jazteko esan zidan arte. Hilerokoarekin nengoenez, “marrana, guarra” eta antzekoekin iraintzen ninduten maiz...

Gauean zehar, gainontzeko atxilotuak nola kolpatzen zituzten entzun nezakeen; beste ziegetako ateak ireki eta hersten ziren...

Lehenengo egunetan, tratu txar fisikoak etengabeak izan ziren. Deklarazioa egin eta gero ordea, tratua aldatu egin zen: kolpeak alde batera utzi eta psikologikoki torturatzeari ekin zioten... jasanezina zen hura guztia, gainontzeko atxilotuen garraisiak entzutea eta nola torturatzen eta kolpatzen zituzten somatzea bereziki...

6 O.G.F.

ADINA:	27 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/02/24
ATXILOTZE LEKUA:	Orereta
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Burua kolpatu, ileetatik tira, poltsarena egin, gorputza igurtzi... iraintzen eta mehatxatzen ninduten bitartean...

Polizietako batek flexioak eginarazi zizkidan, makurtu eta altxatzearekin batera, besoak ere igo eta jeitsiz. Ezinean lurrera eroriz gero, heldu eta beraiek igo eta jaisten ninduten... Poltsarenarekin berriz, pixa egin nuen eta ohartu orduko irainka hasi zitzaizkidan. Bitartean, buruan jotzen ninduten, garraisika; beste geletatik zetozen oihuak ere entzuten nitzakeen...

Egarriak nengoela bazekitenez, urik nahi al nuen galdetu eta edateko eman gabe, tantak botatzen zizkidaten aurpegira... Txarrena poltsarena zen ordea, aldi bakoitzean asko beldurtzen nintzelako... elektrodoak ere jarri zizkidaten bi saihetsaldeetan...

Mehatxuak jaurtitzen zituzten etengabe, makila bat sartuko zidatela oinazerik uzten ez zuelako eta bortxatu nahiz gehiago torturatuko nindutela edo antzekoak esanez, arropak kentzen zizkidaten bitartean. Behin, hankak eta eskuak zeloarekin lotu ondoren, prakak kentzen hasi zitzaizkidan. Ez nien utzi nahi ordea eta haiek behera tira ahala, nik gora altxatzen nituen ostera...prakak apurtu ziren arte.

Galdeketak ez ziren inoiz bukatzen: bataren atzetik bestea. Gainera, zutik egonarazten ninduten, beste ziegetako oihu beldurgarriak eta ireki eta hersten ziren ateen danbatekoak entzun nitzakeelarik. Tentsio handia soma zitekeen...

Deklaratu eta gero, tratua leundu egin zen...

7 Gazte bat

ADINA:	20 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/02/24
ATXILOTZE LEKUA:	A-15
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Ez

"Voy a leerte tus derechos" esan zuen haietako batek. Irakurtzen hasi eta berehala ordea, "y bla bla bla, bla bla bla" zioen. Kotxean sarrarazi eta buruz behera joan behar izan nuen, Intxaurrondoraino, uste dut. Han, gela batean sartu ninduten, beti beheruntz begira. Gero, galdeketa bat egin zidaten...

Madrilerako bidean ere, lurrera begira joan behar izan nuen denbora guztian eta iristean, beste galdeketa bat...

Kalabozoan sartu nindutenean, hasieran ez zidaten etzanda egoten uzten eta mirilatik begiratzen zuten denbora guztian... Garrasiak re entzuten nituen...

Galdeketa gehiago, antifaza jarrita beti. Nire ahizpa eta beste lagun batzuk ere han atxilotuta zeudela zioten eta lagun eta ezagunei buruzko galdera mordoa egiten zidaten. Nitaz dena zekitela zirudien... Jatorraren papera egiten zuenak zera esan zidan: "Ya sabes cuáles son las torturas: la bolsa, los electrodos y la pistola por la vagina". Kalabozora itzultzean, kulero batzuk ikusi nituen lurrean; sekulako inpresioa egin zidan... haiekin kolaboratu behar nuela esan zidaten gero; lana oso erraza izango zen: inork ez zuen ezer jakingo, eurekin toki desberdinetan geratuz, adibidez Zarautzen, emango nizkielako izenak.

Deklarazioa hirugarren egunean-edo hartu zidaten beste atxilotuen oihuak entzuten nituen artean. Kalabozoen kanpoaldean polizia bat adarra jotzen aritu zitzaidan...

8 Miren Okariz

ADINA: 27 urte
SEXUA: E
ATXILOTZE DATA: 2001/02/25
ATXILOTZE LEKUA: Tolosarako bidea
ATXILOKETA MOTA: Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA: Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA: 4 egun
EPAITEGIA: J.C.I. Nº 3
EGOERA: Aske epailearen aurretik pasatu gabe 01/02/25
SALAKETA: Jartzear

Madrilera heltzean, ziega batean sartu ninduten. Ateak leiho txiki bat zeukanez, bertatik begiratzen zuten barrura noizean behin. Laister hasi ziren galdeketak ordea, bata bestearen atzetik...

Lehen bi egunak egin zitzaizkidan gogorrenak, gainontzekoetan jasotako tratua leunagoa izan baitzen. Galdeketetan, izkina batean zutik eta paretari begira jartzen ninduten batzutan; beste batzutan aldiz, paretari begira bai, baina eserita. Ez dakit zenbat guardia zibilek hartuko zuten parte; edonola ere, guztien jarrera bortitza zen, batena izan ezik, “que hacía de bueno”... Gainontzekoak, oihuka eta kolpeka zihardutenden denbora guztian. Behin, prakak jaitsiarazi ondoren, batek eskuartean zeukan egur zati batekin igurtzi ninduen. Flexioak ere eginarazi zizkidaten indarrak ahitu arte... Eta galdera mordoa bitartean.... Biharamunean agujetak neuzkan. Han barruan beldurrak jaten zaitu eta oso bakarrik sentitzan zara; beno, azken batean bakarrik zaude zinez, euren eskuetan, zer egingo dizuten arrastorik gabe... Mehatxuak entzuten nituen etengabe, lagunen izenekin... Irainek, umiliazioek eta gainontzekoek ez zuten amaierarik... “si colaboras con nosotros, vas a salir a la calle...” eta holakoak ere esaten zizkidaten.

Deklaratu egin nuen azkenean, baina entsaitu indire eta eurak nahi bezala... Bukatzean, medikuarengana eraman ninduten; hark jakinarazi zidan aske nintzela...

9 E.B.

ADINA: 26 urte
SEXUA: E
ATXILOTZE DATA: 2001/02/25
ATXILOTZE LEKUA: Benalmadena.
ATXILOKETA MOTA: Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA: Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA: 4 egun
EPAITEGIA: J.C.I. Nº 3
EGOERA: Aske epailearen aurretik pasatu gabe 01/02/25
SALAKETA: Jartzear

Ez dakit zenbat itaunketa egin zizkidaten, oso laster galdu bainuen denboraren nozioa. Baina badakit nahiko jarraiak izan zirela eta batzuk besteak baino luzeagoak. Ez dakit ziegan lorik egin al nuen edo ez... guztiz galduta nengoen.

Galdeketetan, izkina batean egoteko agintzen zidaten, zutik eta hormari begira... eta gehienbat garondoan kolpatzen ninduten. Bi edo hiru aldiz zorabiatu nintzen lurrera erortzeko zorian. Hala ere, poltsarenak eta kolpeek sortu min fisikoa izugarria izanagatik, jasangaitzena tortura psikologikoa egin zitzaidan. Behin, zerbait eskuekin ukitzera behartu ninduten. Nik noski, ez nekien zer zen ikusten ez nuelako; gero ohartu nintzen telefono mugikor bat zela. Polizietako batek eskularru bat zeraman eta ez dakit zein ekintzatan erabili zutela esan zidaten... jarraian esan nuen, zeren... ez baitakizu zer pentsatu... edozer egiteko gai dira beren eskuetan egonda...

Mehatxuak etengabeak ziren, gehienbat familia eta lagunak aipatuz. Lehen esan bezala, jasanezinena tortura psikologikoa izan zen. Umiliazioak eta irainak ez ziren inoiz agortzen. Behin adibidez, prakak jaitsiarazi eta igurtzi egin ninduten; bularrak ukitzen zizkidaten gehienbat, jertsearen gainetik...

Beste galdeketa batean, begiratzera behartu, ahoa irekiarazi eta hauts batzuk bota zizkidaten aurpegira. Ez dakit drogaren bat ote zen, baina ez dut uste efekturik egin zidanik. Beharbada izutzeko besterik ez zen...

10 Jose Manuel Zubillaga

ADINA:	40 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/02/25
ATXILOTZE LEKUA:	Arribe
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Presio psikologikoa handia zen. Lehenengo galdeketan kolpatu ez arren, amaitu bezain laster, handik aurrera hitzegiten hasiko nintzela esanez mehatxatu ninduten. Gero, ziegara eraman eta hormaren kontra zutik egoteko agindu zidaten.

Alboko gelatik zetorren emaztearen ahotsa ezagutu eta hura ere atxilotuta zegoela esan zuten. Handik aurrera, asko estutu ninduten kontu hori erabiliz... Ziegan nengoela, nire emaztearena zirudien negarra entzuten nuen. Beharbada grabatua egongo zen; ez dakit... Zartateko guztiak buruan ematen zizkidaten, papera edo antzeko gauza gogorren batekin. Baina ezin dut ziurtatu, buruan kaputxa baineukan. Gauean, nengoen ziegatik, emaztearen eztula besterik ez nuen entzuten... Deklarazioa firmatuz gero, aske utziko zutela zioten. Beraiek esanda bezala deklaratu nuenean, eztula, ahotsak... denak ixildu ziren.

Poltsarena hurrengo galdeketetan egin zidaten. Behin, beste koadrila bat etorri zen oihuka eta gerritik gora biluztaraziz, elektrodoekin mehatxatu ninduten, gero halakorik egin ez bazuten ere. Buruan kolpeka eta mehatxuka jardun ziren denbora guztian. Umilatua ikusi nahi ninduten, horretarako, emaztea bereziki, baina baita bere ama ere aipatuz.

Edateko eman zidaten urari zerbait bota ziotela iruditzen zait. Ez dakit, drogaren bat apika, pixak hain usain fuertea edukitzea oso normala ez delako....

11 Peio Goikoetxea

ADINA:	28 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/02/25
ATXILOTZE LEKUA:	Tolosatik Arriberako bidea
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Ziega batean sartu eta laster hasi ziren galdeketa etengabeak, egunez nahiz gauez. Lehenbiziko bi egunetan, batere ez. Baina azkenekoetan, lo pixkat behintzat egin nuen; hain zen izugarria nekea...

Hormaren kontra jartzen ninduten, zutik eta artilezko kaputxa buruan nuela. Lauzpabost egoten ziren nirekin, sartu-atera eta oihuka... Mehatxuak etengabeak ziren, elektrodoak jarriko zizkidatela esanez. Edonola ere, burdin batzuk bai, baina deskargarik ez zidaten jarri. Etsipenak jota nengoen. Poltsarena nahiz aldizkari edo antzeko gauzaren batekin buruan emandako kolpe etengabeak jasan behar izan nituen. Barrabilak ere mailatzen zizkidaten...

Flexioak egitera behartzen ninduten denbora luzez, altxatzeko esan eta jarraian, kolpatzeko; flexioak, altxatu, kolpeak... gehiago ezin izan nuen arte, hankak jada ez bainituen sentitzen.

Drogaren bat eman zidatela uste dut gainera. Izan ere aluzinazioak izan nituen, gorputz osoa zomorroz beterik ikusten nuela. Nahikoa beldurtu nintzen. Handik gutxira berriz, eserita, mendian haseran, eta gero, jendez betetako kale baten erdian nengoela iruditu zitzaidan... ez dakit nolatan, baina kontua da ziegan itzartu nintzela. Beharbada konortea galdu nuen...

Orduak igaro nituen zutik eta besoak altxata. Gehiago ezin eta besoak jeisten nituenean, igotzeko agintzen zidaten ostera. Horrela iraun ezean, larru gorritan jarriko nindutela zioten. Behin, besoak jaitsi nituen batean, bilutsik geratu nintzen gerritik behera, eskuak goian izatera are gehiago behartuz. Guztiz umiliatua sentitu nintzen. Denbora guztian kaputxa buruan...

12 Leire Gallastegi

ADINA:	24 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/02/26
ATXILOTZE LEKUA:	Donostia
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 3
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Galderak oker erantzunez gero, arropa kentzen hasiko zirela esan zidaten lehendabizi eta bi aldiz geratu nintzen biluzik gerritik gora. Etengabeak ziren hormaren kontrako bultzadak, buruan emandako kolpeak eta ama aipatuz egindako mehatxuak. Elektrodoekin ere mehatxatu ninduten, ezkerreko eskua busti eta lokarri bat emanez...

Berriro ere galderak; eserita nengoen aulkia altxatzen zuten bainerara botako nindutela esanez, buruan telefono gida batekin kolpatzen zidaten bitartean... Mahaiaren gainean jarri zituzten gauza hauetako bat aukeratu behar nuen nahitanahiez: amaren atxiloketa agindua, elektrodoak edo erratzaren makila. Azkenekoa hautatu nuen eta eskuartean jarriz, gainera zer zetorkidan imajinatzen hasteko esan zidaten. “Arroparen jokoa”rekin hasi ziren berriro. Beraz, behin baino gehiagotan geratu nintzen biluzik gerritik gora. Gero, galtzak jaisten saiatu ziren makila sartzeko. Baina botoia askatzea lortu bazuten ere, ez zidaten ezer egin. Kristina Geteri egindakoa egingo zidatela ere errepikatzen zuten...

Beste hautaketa bat egin behar izan nuen: makila edo euretako bat. Zeharo galduta nengoenez, ez nekien zer... eta azkena aukeratu nuen... Berriro “arroparen jokoa” hasi zuten, haietako bati nirekin oso ondo pasatuko zuela entzuten nion bitartean... ziegara eraman ninduen ondoren eta eskuak sartu zizkidan titiak ukituz. Segidan, nire eskua bere barrabiletan jarriz oso bero zegoela esan zuen.

Gerritik gora biluztu ondoren, ahoan pistola sartu zidaten begiak irekiaraziz. Berdin zitzaidan dena. Belauniko jarrarazi ninduten gero. Pistolari bala bi sartu zizkiola zioen batek, pistola buruan jarri eta gustukoa ez zuen erantzun bakoitzeko, gatiluari ematen zion. Pasiloan zehar korrika eginarazi zidaten, pistolarekin apuntatzen ninduten bitartean...

13 Jon Zubiaurre Agirre

ADINA:	20 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/09
ATXILOTZE LEKUA:	Donostia
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Denbora aurrera joan ahala gehiago haserretzen zirenez, galdeketaren erritmoa azkartu egiten zen eta buruan kolpeak emateari ekiten zioten. Makurtzeko agindu zidaten segidan, eta hasieran erraz irauteko gai izanagatik, nekatzen hasi nintzen berehala. Zenbat eta nekatuago, orduan eta kolpe bortitzagoak nahiz galdeketa biziagoak. Hori guztia oihuak, mehatxuak, irainak eta mesprezuzko hitzak ahaztu gabe... Kolpeak bata bestearen atzetik, atsedenik gabe, ematen zizkidaten buruan gehienbat; baita hanketan, urdailean eta lepoan ere, esku ahurrekin nahiz ukabilekin. Gero eta nekatuago nengoen orduak aurrera zihoazen heinean. Motelena, burua zebilkidan; ez zuen behar bezala funtzionatzen eta erabat nahastua sentitzen nintzen. Nekea zela eta, hankek huts egin eta erori nintzen aldietan, ileetatik helduta jasotzen ninduten... tratua oso bortitza zen...Behin, zutik jartzera behartu ondoren, kasko bat jantzi zidaten, buruan emandako kolpeek min handiagoa eragin ziezadaten. Zorabiatu ere egin nintzen, lurrera erortzeraino. Ezin nuen gehiago. Orduan, arrastaka eraman ninduten ziegara. Urduri nengoen, buruko minez eta dardarka; umilatua sentitzen nintzen... Azkenean, kotxe batean sartu eta ospitalera eraman behar izan ninduten...

Galdeketa gelara itzuli bezain azkar, kaskoa jarri zidaten berriro. Hurrengoak izan ziren momentu gogorrenak, tratua oso bortitza baitzen...Ahoa lehorra neukan, baina kolpeen mina gero eta gutxiago sentitzen nuen... Buruan emandako zartatekoak zenbatu egiten zituzten. Orain ordea, ez ditut gogoan. Zapaldu egiten ninduten eta beren zapatak ahoan sartu edo tabako errautsak botatzen zizkidaten... Ziegara arrastaka neramaten garairako, burua erabat galduta neukan. Beraz, kotxean sartu eta ospitalera berriz... Oiartzunera bigarren aldiz itzultzean ostera, bestelako tratua jaso nuen...

14

Aitor Garcia Justo

ADINA:	26 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/09
ATXILOTZE LEKUA:	Donostia
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº5
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Lehenengo galdeketan, hormaren kontra zutik eta belaunak makurtuta egotera behartu ninduten pare bat orduz. Bigarren galdeketa lehenengoaren antzekoa izan zen; azkena aldiz, lasaiagoa.

Bigarren egunean, noizean behin ziegara etortzen zitzaizkidan ateko leihotik hormaren kontra zutik jartzeko aginduz. Ziegako argia piztuta zegoen denbora guztian eta hotza egiten zuen arren, egun t´erdi pasa nuen mantarik gabe. Jateko berriz, ogitartekoak ekartzen zizkidaten; lehenengo egunean ordea, ezta hori ere. Okerrena, bestei egiten ari zitzaiena entzun nezakeela zen. Izan ere, dardarka hasten nintzen pausoak nabaritu orduko, nigana zetozelakoan. Hasieran, nahiago nuen kolpeak beste bati baino neuri ematea; besteen oihuak entzun ahal izan nituen arte ordea.

Egun hartan entzun nituen gehien. Bat hormen nahiz altzarien kontra kolpatzen zuten eta kaskoa jantzita zeukala zirudien; arnasa hartzea asko kostatzen zitzaion eta etengabe mehatxatzen zuten... Gainontzeko egunetan ere guztia soma nezakeen, norbait eraman edo ekartzen zutenean adibidez. Ez zieten lorik hartzen uzten, zutik egotera behartzen zituzten... etengabe irainduz.

Eskuturrekoak jarri zikidaten lehendabizi; hauen gainetik berriz, eskuburdinak. Gero, lasai ibiltzeko esan zidaten, makurtu gabe alegia. Izan ere, leku guztietara burumakur joan behar izaten nuen ordura arte.

Anaia Madrilera eraman gintuzten egunean ikusi ahal izan nuen. Begiak estaltzeko bendaren bat edo betaurreko ilun batzuk zeramatzan. Beste bi aldiz ere atxilotu naute baina hau izan da guztietan okerrena...

15

Asier Garcia Justo

ADINA:	24 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/09
ATXILOTZE LEKUA:	Donostia
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Ordu laurden bat ziega batean pasatu ondoren, bi ertzain etorri eta mahai bat eta aulki pare bat besterik ez zeuden gela batetara eraman ninduten. Hemen hormaren kontra jarri eta burua makurtuta edukitzera behartu eta gero, flexioak egiteko agindu zidaten; osterantzean, buruaren bi aldeetan nahiz aurrean kolpatzen ninduten ukabilekin. Iletik tiraka ere maiz jardun zitzaizkidan.

Aluminiozkoa izan zitekeen barra batekin kolpatzen ninduten, “urde zikina” eta gisako irainak etangabe entzuten nituen artean. Hankak beren lagunari bezala kenduko zizkidatela ere errepikatzen zuten... Egoera hau, gau osoan zehar luzatu zen.

Nire senitartekoak eta neskalagun ohia atxilotu egingo zituztela edo antzekoak esanez mehatxatzen ninduten bereziki. Gartzelan, berriekin egiten duten moduan, popatik emango zidatela ere esaten zuten. Erabat umilatua eta beldurtua nengoen.

Tratu txarrak salatuz gero berriz, egunen batean Martutenetik pasako zirela esan zidaten. Edo bestela, bertako funtzionariekin hitzegingo zutela, gartzelaldia ahalik eta jasangaitzena suerta zekidan.

Ez nekien zer ordu, ez zein egun zen; erabat galduta nengoen, forensearen bisitarekin apur bat orientatzea lortu banuen ere.

16

X.A.I.

ADINA: 24 urte
SEXUA: G
ATXILOTZE DATA: 2001/03/11
ATXILOTZE LEKUA: Bergara
ATXILOKETA MOTA: Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA: Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA: 3 egun
EPAITEGIA: J.C.I.Nº5
EGOERA: Espetxeratua
SALAKETA: Ez

Gobernu Zibilera heldu ginean, baten baino gehiagotan oroitarazi zidaten "Txatori" gertatu zitzaiona. Eskuburdinez loturik leiho baten ondoan eseri arazi ninduten, barre artean, nire segurtasunagatik zela esaten zidaten bitartean, leihotik salto egin ez nezan, "para que no digais que os echamos por la ventana". Inpotentzia eta beldur handia sentitu nituen. Bertan denbora bat egon ondoren, berriz kotxe batean sartu ninduten eta Madrilerako lekualdaketa hasi zen. Burua hanken artean eramatera behartu zidaten eta euretako bat nire gainean zihoan.

Komisaldegira heldu ginenean, biluztu eta flexioak egitera behartu zidaten. Lo egiten ahalegindu nintzen baina ez zidaten uzten, erdi lo nengoela ikusten zutenean, galdeketa bat egitera eramaten ninduten, zorabiatuta zaudela aprobetxatuz. Galdeketak aurrera egiten zuten bitartean, soinuak entzuten hasi nintzen, eta beste atxiloturen bat zegoela pentsatzen hasi nintzen, gainera eurek holako komentarioak ere egiten zizkidaten, grifo baten soinua entzuten hasi nintzen, galdara bat, aulki baten soinua, eta soinu haiek beste atxilotuari bainera egiten ari zirenarekin erlazionatzen hasi nintzen, oihuak entzuten nituen...

Guztiz beldurtuta nengoen, nik beste atxilotuak bezalako tratua izateaz, beraien tresna hutsa sentitzen nintzen, bazeuden zenbait momentu, beraiei nire buruari baino gehiago sinesten niela. Txotxongiloa sentitzen nintzen, nirekin nahi izan zutena egin zuten, eta bertatik eskerrak ez ninduten matxakatu pentsatzen atera nintzen. Egoera jasanezina zen, oso gaizki pasatu nuen. Ezereztu eta umiliatzea lortu zuten eta nirekin nahi zutena egitea lortu zuten.

Entzutegi Nazionalera eraman ninduten, erauzia nengoen eta komisaldegian deklaraztera behartu zidatena berrestu nuen.

17

Zigor Goikoetxea

ADINA: 22 urte
SEXUA: G
ATXILOTZE DATA: 2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA: Algorta
ATXILOKETA MOTA: Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA: Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA: 3 egun
EPAITEGIA: J.C.I. Nº 5
EGOERA: Aske
SALAKETA: Bai

Indautxuko komisaldegiraino burua makurtuta, esposatuta eta buruaren atzeko aldean kolpatzen eraman ninduten...

Komisaldegian horma baten kontra egotera behartu ninduten. Buruetako bat igo zen eta mehatxuka hasi zitzaidan... Ezer ez nekiela esan nien eta barrabiletan lehenengo kolpea eman zidan ia gogoratzen hasten nintzen esaten zidan bitartean. Aurrerantz bota nuen nire burua, beste bat etorri zen, heldu ninduen eta berriz kolpatu... Poliziak ni leku batetik bestera eramaten hasi ziren. Iletik fuerte heltzen ninduten eta kolpatzen ninduten. Une batetan ia eskaileretatik bota ninduten.

Berriz galdetu zidan ia deklaratzeko gogorik nuen eta ibilalditxo bat ematera eramango nindutela esan zidan. Kotxe batean sartu ninduten, ez nekien nora gindoazen... burua makurtuta eramatera behartu ninduten, iletik tira egiten zidaten...

Galdeketetako batean polizia bi sartu ziren, batek galderak egiten ziharduen etengabe, erantzuten ez nuen bakoitzean aurpegian, barrabiletan kolpatzen ninduten... lehenengo eguna oso gogorra izan zen.

Bigarren eguna, tratu fisikoari dagokionez, lasaiagoa izan zen, baina presio psikologikoa izugarrizkoa izan zen... Psikologikoki presionatu, iraindu baino ez zuten egiten... Noizean behin onaren papera egiten zuen polizia bat etortzen zen eta presionatu baino ez ninduen egiten... Eman zidan inpresioa izan zen ezin izango nuela beste egun bat jasan, presioa izugarrizkoa baitzen. Etengabea zen ziegatik ateratzea galdeketa bat izateko, berriz ziegara eramaten ninduten... Galdeketetan presioa izugarrizkoa zen... azkeneko gauean kristal handi bat zuen gela batetara eraman ninduten, eta psikologikoki matxakatzen ninduten, sei edo zazpi orduz...

18 Urtzi Murueta

ADINA:	22 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Leioa
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Eskaileretatik jaitsi eta mehatxuak hasi ziren...

Lehenengo bi aldietan, eskuak bizkarrean eta burua behera begira izatera behartzen zidaten, hormaren kontra baina hau ukitu gabe. Gero burua zuzen edukitzen uzten zidaten, baina hormaren kontra jarraitu behar nuen. Asko nekatzen nintzenean, noizean behin horma ukitzen nuen, baina ez zidaten uzten. Gainontzeko geletatik zetozen soinuak entzuten nituen, kolpeak, oihuak, gauzak arrastatzen zituztela... eta euren artean komentatzen zuten “a ese cómo le están poniendo, a ver quien limpia luego la sangre, nosotros nos vamos para Madrid, le están dando bien...”

Batek adarra jotzen ari nintzela esan zidan eta barrabiletan esku irekiarekin kolpatu ninduen. Etengabe zeuden galderak egiten eta behin “que no sé nada, ostias” erantzun eta polizietako batek belarrian kopatu ninduen.

Ziegaraino batek eraman ninduen sabelean ukabilkadak ematen. Lepotik helduta eramaten ninduen eta kolpatzen ninduen bakoitzean nik gorputza atzera botatzen nuen, eta berak, lepotik zakatzen, aurrera egiten zidan kolpatzen jarraitu asmoz. Ziegan kolpatzen jarraitu ninduen. Hiruzpalau ukabilkada eta esku irekiarekin ere kolpatu ninduen buruaren atzeko aldean. Kolpeak oso gogorrak ziren, eta kolpatzen ninduen bitartean, oihukatu eta mehatxatzen ninduen...

Arratsaldean berriz ziegatik atera ninduten. Jipoi bat ematearekin mehatxatzen hasi ziren, kokoteraino jartzen ari zirela esaten zidaten, orduan enkaputxatuta zegoen polizia bat sartu zen...

19 U.P.

ADINA:	20 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Algorta
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Indautxuko komisaldegira eraman ninduten. Pasilo batean izan ninduten denboratxo bat, hormaren kontra eta esposatuta. Polizia bat zegoen etengabe eskuburdinetatik heldu eta gorantz tiratzen zidanak... Gela batera eraman ninduten eta aulki batean esposatu. Denbora laburrez galdekatu eta Madrilera eraman ninduten. Bidaian, burua makurtuta eramatera behartu ninduten eta atzean esposatuta. Nireganako eta familiarenganako mehatxuak etengabeak izan ziren.

Madrilera heldu ginen eta jarraian eraman ninduten lehenengo galdeketara. Oihuen artean lurrera bota ninduten, mahai baten gainean etzan arazi ninduten, hankak ireki zizkidaten, besoak heldu eta barrabiletan kolpatzen hasi ziren. Kolpatu ninduten, lurrera bota ninduten, hormaren kontra kolpatu ninduten... Kolpatzen ninduten, gelditu eta mehatxuak hasten ziren... Galdeketa asko izan nituen, etengabeak ziren...

Galdeketen artean ezin izan nuen atsedenik hartu, ezin izan nuen lo egin, pausuak entzuten zirelako, beste atxilotuak galdeketetara eramaten zituztenean entzuten zen, ateen soinuak, batzutan beste atxilotuak nola galdekatzen zituzten entzuten nuen...

Deklarazio bat egin nuen, baina beste bat sinatzera behartu ninduten. Beste gela batera eraman ninduten, lepotik heldu ninduten, lurrera bota ninduten eta mehatxuen artean sinatu arazi zidaten. Gero ziegan sartu eta polizia bat etorri zen. Epailearen aurrera eramango nindutela esan zidan, eta mehatxuen artean zer deklaratu behar nuen esango zidatela...

GAldezkatu ninduten bi polizien aurpegiak inoiz ahaztuko ez ditudan gauza bat da.

Jorge del Campo

ADINA:	22 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Berango
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	2001/03/22
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº5.
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Komisaldegian galdekatzen eta mehatxatzen hasi ziren. Ura eskatzen nien, bota egingo nuela esanez, baina ez zidaten eman nahi, ura nahi banuen gainontzeko atxilotuekin ez dakit zer egin nuela esan behar nuela esaten zidaten. Gaixo nengoen eta nahiko gaizki nengoen. Azkenean beraiek nahi izan zutenari baietz esan behar izan nien, eta ura eman zidaten. Bizpahiru orduz zutik hormaren kontra egotera behartu ninduten.

Galdeketetara eramaten ninduten, burua makurtuta, iletik helduta eramaten ninduten, eta buruarekin hormaren kontra kolpatzen ninduten. Baina gaixo nengoenez ez zidaten uzten atseden hartzen ezta lo hartzen gauez, ni itzartzera zetozen, atea kolpatzen...

Mehatxuak etengabeak ziren, nire neska laguna atxilotuko zutela, nire gurasoak, ez baduzu ez dakit zer esaten ikusiko duzu, besoa bihurritzen zidaten min egiteko... Gauzak egiteko era bi zeudela esaten zidaten, por las buenas o por las malas, "o nos dices lo que queremos saber o te rompemos los huevos, si sales de esta te vamos a detener cada seis meses, ¿quieres pasar otra vez por esto?". Etengabe mehatxatzen ninduten.

Lehenengo bi egunetan ezin izan nuen lorik egin, etengabe zeuden atea kolpatzen, esnatzen nintzen eta ezin nuen lorik egin. Laster galdu nuen denboraren nozioa, ez nekien gaua edo eguna zen.

Galdeketetan batek txarraren papera egiten zuen, etengabe mehatxatzen zegoen, oihuka, batzutan burua makurtzera behartzen ninduen eta begiak zarratzera, eta begiak irekitzen banituen hil egingo ninduela mehatxatzen zidan.

Beraiek nahi zuten bezala egin nuen deklarazio poliziala, behartu egin ninduten horretara. Zer esan eta nola, beraiek hitzez hitz esaten zidaten. Behin hau bukatuta tratua bigundu egin zen eta azkeneko gauean lo egiten utzi ninduten, eta ziegatik forensearengana eramateko baino ez ninduten ateratzen. Entzutegi Nazionalera eraman baino lehen, epailearen aurrean deklaratu behar nuenarekin berriz mehatxatu ninduten, deklarazioa eta gero beraien eskuetan egongo nintzelako gaua heldu arte.

Jose Cruz Sarasola

ADINA:	71 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Orereta
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Galdeketa asko egin zizkidaten, nahiz eta zehazki zenbat ez dakidan. Guztietan, garraisika aritzeaz gain, txakurren zaunkak edo umeen nahiz emakumeen oihuak grabatuak zituen kaset txiki bat jartzen zidaten belarrien ondoan...

Egun batean, bi polizia etorri ziren itaunketa gelara. Esertzen utzi eta albo banatan jarri zitzaizkidan. Ondoren, besoak nire sorbalda gainetik pasa eta ordubete inguru jardun zuten garondoa kolpatzen.

Atsedenik gabe mehatxatzen ninduten. Familia guztia atxilotuko zutela esaten zidaten, edo beharbada nire emaztea libre geratuko zela haurrak zaintzeko. Bost egunetan gauza bera entzuteak asko mindu ninduen, baina baita nahastu ere, azkenerako ez bainekien benetan atxilotuak zeudenentz. Presio hura jasotako kolpeak baino latzagoa zen; berrogei urteko gizon batek erraz jasan lezake apika, baina nik... bost alditan atxilotua izan eta gero...

Beste atxilotuen oihuak entzun nitzakeen; batek "nahiago dut hiltzea" oihukatzen zuen adibidez. Nola torturatzen zituzten edo armairuen kontra emandako kolpeak... basakeria guztiak entzuten nituen...

22 Joxe Elizegi

ADINA:	37 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Oiartzun.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	2001/03/27
EPAITEGIA:	JC.I.Nº1.
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Batek barrabiletatik heldu eta estutzen zizkidan artean, beste batek poltsari heltzen zion. Gainontzekoek berriz, buruan kolpatzen ninduten. Pasarazi zidaten estutasuna hain zen larria ezen pixa gainean egin bainuen. Oso luzea egin zitzaidan Madrilerako bidaia, denbora guztian mehatxuak entzuten: “ya verás cuando llegues porque aquí no hay espacio” eta antzekoak.

Hiru edo lau guardia zibilen artean heldu ta poltsarena egiten nahiz mehatxuak jaurtitzen hasi ziren. Handik pixkatera, eskuetan pistola bat jarri zidaten, gatiloa zanpatzeko aginduz. Orduan esan zidaten bazutela ni ez dakit zein ekintzarekin erlazionatzeko aukera, hatz markak pistola hartan utzi nituelako hain zuzen ere.

Buruan kolpeak, elektrodoak gorputz osoan, bultzakadak esku batzuetatik besteetara korruaren erdian sartu eta gero, ia konortea galdu arte. Jarraian, bainerarena egin behar zidatela esan eta zinta aislantearekin lepotik behera inguratu ninduten gerriraino. Galtzak jeitsi ondoren, ipurditik zarta bat sartuko zidatela errepikatzeari ekin zioten, aspertu arte. Orduan, galtzak pixka bat igotzen utzi eta zinta aislantea kendu zidaten.

Handik piskatera, itzuli egin ziren eta berriz ere, egurra: poltsarena beste behin... Eskuak eta hankak lotu zizkidaten eta atzean jarriz, gerritik heltzen ninduen batek, besteek bi aldeetatik gauza bera egiten zuten bitartean. Egoera honetan, azken batek poltsa burutik behera sartu eta gero, elektrodoak jarri zizkidaten. Aldi berean, kolpeak etengabeak ziren buruan eta barrabiletan. Ia itotzeko punturaino torturatu nindutenean, pixa eta kaka egin nituen gainean. Ahoan odola somatu nuen, masailen barruan hortzekin egindako zauriengatik.

23 Bixente Goia Etxebeste

ADINA:	35 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Bera
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Galderak egiten hasi orduko, eskuinean dagoenak buruan kolpatzen nau; ezkerrekoak berriz, bularrean esku ahurrarekin. Horrela naramate Madrileraino.

Madrilen, kuartelera heldu eta sotoko kalabozo batean sartzen naute jarraian. Une batez, oihuak eta mehatxuak entzuten ditut. Laister ordea, beste leku batetara eraman eta galdezka hasiko zaizkit, buruan kolpatu eta ileetatik teinkatzen nauten bitartean. Ondoren, kalabozora berriro.

Poltsarena egiten didate; hanketan elektrodoak jarri ere bai, oinetakoak busti eta gero. Flexioak eta kolpeak aldi berean... Paper faltso bat erakusten didate jarraian, nire etxetik hartu zutela esanez, emaztea inplikatu nahian. Azkenean, eskua irekitzeko agindu eta pistola bat jartzen didate eskuetan, Pasaian zinegotzi baten erahilketan erabilia izan zela esanez; hitzegin ezean, edozein ekintzetan agertu omen daiteke nire hatz markekin josia.

Goizean, gizon bi datoz kalabozora; bien ahotsak ezezagunak zaizkit. Beste gela batetara naramate orduan. Bertan, poltsa bi burutik behera sartu, galtzak eta kaltzontziloak jeitsi eta jipoitu egiten naute, poltsak estutu bitartean. Ondoren, poltsak buruan, kalabozora berriro, gosaltzeko garaira arte. Bazkalordura bitartean aldiz, poltsak kendu eta gero, hormaren kontra zutik egotera behartzen naute. Une horretan, beste polizia bat agertzen da, aurrerantzean bakerik izango ez dudala esanez. Hitza betetzen dute.

24 Jose Angel Altzuguren

ADINA:	35 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Bera
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Madrilen, lehenengo tortura saioa poltsarekin hasi zen. Denbora guztian zehar begiak estalita nituela, poltsa bat sartu zidaten burutik behera, ia ito arte. Gero ordea, bi ere jartzen zizkidaten nahi zutena lortu ezean, aire gutxiago har nezan eta agudoago ito nendin. Zenbaitetan, tortura bera neure buruari egitera behartzen ninduten, buruan eta sabelean kolpatuz gutxi estutzen nuela irudituz gero. Hau guztia, lagunen eta anaiaren oihuak entzuten nituen bitartean egin zidaten.

Tortura saioak asko izan ziren baina ez dakit zenbat; eurak nahi zuten deklarazioa eskuartean izan arte. Izan ere, askotan errepikatu zidaten zer esan, diktaketa bat bailitzan: haiek esan eta nik errepikatu.

Kalabozoan berriz, ez zidaten lorik egiten uzten eta orduak eduki ninduten zutik eta eskuak hormaren kontra jasota.

Saio hauetako batean oso haserre zeuden eta poltsa etengabe jartzen zidaten burutik behera; baita leku berean kolpe pila bat eman ere, hiru guardia zibilek aldi berean kolpatzen ninduteneanean bezala. Bi eskuekin belarrietatik heldu zidaten gogor, lurretik pixka bat altxatzeraino. Orduan, izugarrizko mina somatu nuen ezkerreko belarrian, eta harrez gero gutxiago entzuten dut belarri honetatik.

Elektrodoak ere jarri zizkidaten sabelean, gorputz osoa busti eta gero..

Beste batean, tiro bat bota zuten airera mehatxu bezala. Ez dakit benetakoa ote zen edo pistoiekin botatakoa. Edonola ere, izoztuta geratu nintzen.

Nire amarekin asko sartzen ziren: aldaka apurtu eta hil egin zela esaten zidaten. Nire eta anaiaren atxiloketen ondorioz, familia desegin nuela eta antzeko gauzak ere errepikatzen zituzten. Dena aitortuz gero, anaia askatuko zutela eta bestela, banekiela zer zetorkidan, berriro ere torturak alegia.

25 Imanol Larrañaga Alberdi

ADINA:	32 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/23
ATXILOTZE LEKUA:	Bera
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Ziegara eraman ninduten lehendabizi, zutik egoteko aginduz. Baina handik gutxira, bi polizia zeuden gela batean nengoen. Gela hartara heldu bezain pronto, manta bat jarri zidaten buruan, honen gainean poltsa bat, eta azkenik, beste zerbait. Galdeketa hastearekin batera sentitu nituen lehen kolpeak. Alde batetik bestera mugitzen ninduten, flexioak egiteko aginduz. Ondoren, elektrodoen aparailua eskuetan jarri eta piztu egingo zutela esan zidaten, nahiz eta halakorik egin ez azkenean...

Beste galdeketa batean, akordeoia jotzeko imintzioa eginez, “pajaritos” dantzatu behar izan nuen. Guardia zibil gehiago etorri ziren ikustera eta nitaz barre egitera; izugarrizko umiliazioa zen... Gero, hiru guardia zibil hasi zitzaizkidan poltsarena egiten. Ziegara ere poltsa buruan itzuli behar izan nuen. Berriro eraman ninduten gela hartara poltsarena errepikatzeko, auskalo zenbat aldiz. Galdeketa berean, pistola bat jarri zidaten eskuetan eta poltsarena berriz egin eta gero, zapatilak eta galtzerdiak kendu zizkidaten, hankak busti eta hanketan elektrodoak jartzeko imintzioa eginez. Berriz ere poltsa... Gauean ez zidaten atsedenik eman: kolpeak, mehatxuak... anaia eta neskalaguna atxilotuta zituztela zioten... entzun nahi zutena esan arte ez ninduten bakean utzi.

Hurrengo egunean, aitortutakoa gezurra zela esan nuenez, galdeketak bortitzagoak bihurtu ziren, poltsarena behin eta berriz errepikatuz. Konorterik galdu ez banuen ere, zerbait arraroa gertatu zitzaidan, ezin bainituen eskuak eta hankak mugitu; ura eman zidaten edateko, baina ezin botila eskuekin hartu...

Handik aurrera poltsarena egiteari utzi zioten arren, kolpeekin jarraitu zuten. Ez zidaten lorik egiten uzten eta azkeneko gauean, berriz mehatxatu ninduten poltsarekin...

26 Eider Perez Aristizabal

ADINA:	23 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/03/26
ATXILOTZE LEKUA:	Orereta
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Gomaespuma eta zinta aislantea erabiliz eskumuturrak eta orkatilak lotu eta hantxe bertan egin zidaten lehen aldiz poltsarena: polizia batek poltsari eusten zion bitartean, beste bik buruan kolpatzen ninduten egunkariarekin. Neure inguruan pertsona askoren presentzia nabaritu nezakeen.

Poltsa buruan, kotxean sartu eta autopista hartu genuen. Bidaia luzea izango zela esateaz bat, buruan kolpe gogorrak ematen hasi zitzaizkidan. Bi guardia zibilen artean poltsa estutzen zidaten; hasieran lasai, gero estuago eta azkenean, indarrez. Neure burua itotzeko zorian sentitzean, hortzekin puskatu nuen poltsa. Beste bat jarri zidaten ordea, eskua ahoan sartuz oraingoan, poltsa berriro zula ez nezan. Neure burua nola edo hala defendatu nahian, indarrez askatu nituen hankak eta eskuak. Baina ordura arte, drogaz leporaino zirudien eta jokotik kanpo zegoen txoferraren albokoak, parte hartzea erabaki zuen: oraindik buruan poltsa nuela, sudurra itxi eta ahoan eskumuturra sartu zidan, alboko biek gogor heltzen ninduten bitartean. “Te vamos a matar” oihukatzen zuen aldi berean. Indarra erabat galdu nuen... eta itotzen ari nintzen. Poltsa estutzeari utzi eta taupadak zenbatu zizkidaten. Zorabioak jota nengoen; hala ere, kolpeak emateari ekin zioten. Honelakoa izan zen Madrileraino geratzen zen bidea: orain poltsa, gero kolpeak...

Bost edo sei guardia zibil zeuden gela txiki hartan: bat mahaian eserita, beste bi ni kolpatzen denbora guztian eta gainontzekoak batetik bestera ibilian. Hauetako bat, mehatxuka jardun zitzaidan denbora guztian. Buelta eman zidaten gero, eta hankak eta eskumuturrak gomaespuma erabiliz berriro lotu ondoren, poltsarena egin zidaten... behin eta berriz.

27 Aitor Olaizola Baseta

ADINA:	35 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/03/26
ATXILOTZE LEKUA:	Irun
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Hemendik Madrileraino bidaia guztia berdina izan zen, ukabilkadak buruan, urdailean, eta nire eskuinean zihoanak, aurpegian nuen zauri batean kolpatzen ninduen. Poltsa lepoan estutzen zidaten eta airerik ez nuenean, ahoa eskuarekin estaltzen zidaten.

Biluztera behartu ninduten eta eskuak atzeko aldean lotu zizkidaten. Hankak lotu zizkidaten eta manta batean bildu ninduten. Poltsa jarri zidaten, lurrera bota ninduten eta ostikadak ematen hasi ziren. Eta berriz ostikoak, zapaltzen ninduten,... Lurrean botata eta izerdiz blai nengoenean, mantak kendu zizkidaten eta elektrodoak jartzen hasi ziren gelaren izkina batean, mugitu ez nendin. Eta batak besteei esaten zien: “tranquilos que a este no le quedan marcas, dadle un poco mas de calor”, ez dakit zenbatetan jartzen zizkidaten bitartean.

Berriz poltsa buruan nuela eta manta batean bilduta, manta elektrikoa zirudien jarri eta berehala bero baitzegoen, esposatuta lurrera botatzen ninduten eta izerditan nengoenez, berriz jartzen zizkidaten elektrodoak gorputz osotik “dale, dale, en los cojones tan valiente que es” errepikatzen zuen euretariko batek.

Esponja batzuk jarri zizkidaten eskumuturretan, lehertuta eta odoletan nituelako, hau lurrean botata nengoenean zapaltzerakoan egin zidaten. Lepoan esponjazko lepoko bat jarri zidaten, oso estu, eta porra batekin buruan kolpatzen hasi ziren, bizkarrean, barrabiletan eta gorputz guztitik.

28 Alicia Saez de la Cuesta Martinez de San Vicente

ADINA:	27 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/03/26
ATXILOTZE LEKUA:	A Corunha
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Kolpeak pasatzen dira, min fisikoa joan egiten da, beltzuneak ez dira nabaritzen, bainan barruan gelditzen denak denbora bat behar du pasatzeko. Panpina bat zara eta zurekin nahi duten bezala jolasten dute. Anulatu eta umiliatu ninduten.

Atxilotu nindutenean, furgoneta batean sartu ninduten, bi edo hiru zeuden nirekin, ni buruz behera etzanda nengoen eta bi nire gainean zihoazen, batek hanketatik heltzen ninduen eta besteak burua eusten zidan. Ni kaputxarekin nindoan eta eskuak atzeko aldean neramatzan. Denbora horretan kolpatu eta iletik tiratzen zidaten etengabe, irainak eta nire gorputzari buruzko komentarioak egiten zituzten, ipurdia ukitzen zidaten bitartean. Geldiuneak egiten zituzten eta landa batera eramatearen komentarioak. Kotxe batean sartu eta poltsa lehen aldiz probatu nuen, zenbaitetan jarri zidaten eta zai neukanaren aurrekin bat baino ez zela esaten zidaten.

Kolpeak indargetze fisikoarekin tartekatzen zituzten. Hiru ariketa egin nituen: bat, eskuak hormaren kontra jarri eta gorputza erabat luzatzea oin puntetan geratu arte, besoak nekatu arte, geratzean kolpatzen ninduten eta berriz hastera. Ariketa hau aldatu zuten, gainetik ura botaz, lurrera erortzen zen eta hanka pixka bat mugitzean, luze erortzen nintzen lurrera.

Biluztu arazi eta aulki batean eser arazi ninduten, eskuak eta hankak atzetik lotuz. Bat oso gogor kolpatzen hasi zen buruan, belarrira ozen oihukatuz gelditu gabe: oihua, kolpea, oihua, kolpea... Gero poltsarekin hasi zen, ez dakit zenbatetan jarri zidaten, azkeneko aldian hil behar nuela pentsatzera iritsi nintzen.

29 Ainara Fresneda Etxebarria

ADINA:	26 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/03/27
ATXILOTZE LEKUA:	Behobia
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº2
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Kotxe batean sartu ondoren, Madrilera bidean jarri ginen. Bidaia osoan, antifaza jantzita neraman eta buruan kolpatzen ninduten behin eta berriz.

Beste gela batean, poltsarena egiten jardun zitzaizkidan luzez. Gero, biluztu eta flexioak egitera behartu ninduten, beti begiak estalita. Ura eskatzen banien berriz, gorputzera botatzen zidaten, ipurdian elektrodoak jarriko zizkidatela nahiz galdara bat ur ekarriko zutela mehatxatuz.

Jende asko zegoen beste gela batetara eraman eta eserrarazi ninduten. Belarri ondoan ozen oihuka hasi zitzaidan bat; besteak, buruan gogor kolpeka eta poltsarena egiten. Pistola bat ere jarri zidaten eskuartean.

Gerritik gora biluztu eta gero, bularrak ukitu zizkidaten. Telefono gidaren bat erabiltzen zuten burukoak emateko eta ziegara eraman ostean ere, zutik eta poltsa burutik behera nuela egotera behartu ninduten. Handik gutxira, beste gela batean nengoen ordea. Bertan, nire familia sarri aipatu zuten mehatxu gisan; poltsa jarri zidaten berriz, baita burua gogor kolpatu ere. Pixa eta kaka egin nituen hantxe.

Beste gela batean, bortxatu egingo nindutela eta erratzaren kertena aurretik eta atzetik sartuko zidatela ozen oihukatu zuten. Segidan, erratzari kondoi bat jarri zioten hura eskuarekin ukitzeko aginduz.

Poltsa eta buruko gehiago. Kulerotan, flexioak eginarazi zizkidaten; leher egin eta eroriz gero, ileetatik tiraka jaso eta iharrausten ninduten... burua handituta nabari nezakeen, konkorrez beterik banu bezala. Horregatik, kolpe bakoitzeko lehertu egingo zela iruditzen zitzaidan.

30 Ibai Martinez de Treviño

ADINA:	18 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/04/28
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº6
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Atxilotu nindutenean, ez ziren identifikatu; besterik gabe, kotxe batean sartu eta kaputxa bat jarri zidaten buruan. Gero, Sansomendira joan ginela uste dut, hankak zabalik eta burua hauen artean joatera behartuz. Horma baten kontra jarri eta burua haren kontra zanpatzen zidaten; ukabilkadak ere ez ziren falta izan buruan nahiz barrabiletan. Minak eraginda, malkoak ere isuri nituen. Ostikoka hasi ziren lurrera bota eta gero. Gainera, norbaitek pistola bat nola kargatzen zuela antzeman orduko, lokian jarri zidaten. Beste behin hormaren aurka kolpatu eta ziegara eraman ninduten jarraian, paretari begira zutik egotera behartuz.

Kolpeka jaikiarazi ondoren, komunera eraman ninduten. Hormaren kontra zutik egon behar izan nuen han, esertzeko baimena eskatu nien arte, gehiago ezin nuelako. Binaka joaten ziren nengoen lekura; mugikorrak entzuten nituen zoratu arte... eta berriz kolpeak eta tortura mehatxuak. Ziegan ere hormaren kontra kolpatzen ninduten. Jateko berriz, tripaki ustel platerkada bat baino ez zidaten ekarri.

Hurrengo egunean, Madrilera bidean, mendira eramango nindutela zioten. Han jasotako tratua ordea ez zen Sansomendin adinako bortitza izan. Behin ostera, Gasteizko goardia zibilak etorri ziren. Kaputxa jantzi eta hormaren kontra jarri ninduten. Gero, lepoa zerbaitekin igurtzi bitartean, ea torturetaz ezer entzun al nuen inoiz galdetu zidaten.

Entzutegi Nazionalean polizia bati zigarro bat eskatu nion; ez zidan ukabilkada pare bat besterik eman...

31 Oier Gomez Mielgo

ADINA:	17 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/04/28
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	Egun bat
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 6
EGOERA:	El MADROÑO, Madrileko adin txikikoen zentruan espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Irainak, mehatxuak eta buruan eta saihetsetan kolpeak hasi ziren... Kaputxa bat jarri zidaten eta kotxean sartu ninduten...

Garaje baten antzeko leku batera heldu ginen, belauniko jarri ninduten burua makurtuta nuela. Kolpe gehiago saihetsetan, irainak eta mehatxuak. Guardietako batek ipurditik emateko postura egokian nengoela esan zidan, nigana hurbildu eta prakak eta kaltzontziloak jaitsi zizkidan...

Ziegetarako bidean ateen marko guztien kontra kolpatzen naute. Ziega batean sartzen naute eta belauniko, burua makurtuta dudala egotera behartzen naute bi orduz gutxi gora behera, hanken sentsibilitatea galduz. Biren artean hartzen naute, ezin ditudalako hankak lurrean jarri eta hormaren kontra jartzen naute. Galdetzen hasten dira. Entzun nahi dutena erantzuten ez badiet buruan eta lepoan kolpatzen naute eskuekin, ukabilkadak eta objektu batekin. Kolpatzeari utzi eta lasaitzen naizenean, euretako bat hurbildu eta liburu batekin kolpatzen nau. Kolpatzen ninduten bitartean, mehatxatzen eta iraintzen ninduten...

Hamabost bat minutuz eserita nago. Berriz estaltzen didate burua eta galdeketa hasten da, buruan, lepoan eta saihetsetan kolpatzen naute esku eta ukabilekin, eta mehatxuak eta irainak jarraitzen dute. Liburu antzeko zerbaitekin kolpatzen naute, zorabioak ditut eta ikusmena lausotzen zait, behin baino gehiagotan lurrera erortzekotan nago eta erortzen banaiz hiltzerainoko jipoi bat emango didatela mehatxatzen naute... Liburu batekin kolpatzen naute, galderak, irainak eta mehatxuak jarraitzen dute. Hauetako kolpe batekin belarritik odoletan hasten naiz...

32 Urko Arroyo Lopez de Erentxun

ADINA:	17 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/04/28
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	2001/04/29
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº 6.
EGOERA:	El MADROÑO, Madrileko adin txikikoen zentruan espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Kotxe batean enkaputxatuta sartu ninduten, garaje batera heldu ginen arte. Bertan kotxetik jaitsi eta lurrera bota ninduten. Flexioak egiten hasteko esan zidaten eta igotzerakoan “viva España, soy un puto gudari” eta antzeko esaldiak esateko. Ezetz esan eta buruan gogor kolpatzen hasi ziren, ukabilarekin, liburu eta zenbait objektu mingarriekin. Berriz kotxean sartu ninduten eta galdeketa hasi zen. Ez nekiela esaten nienez, poltsarekin hasi ziren. Kotxean egon nintzen ordu erdian (burua hanken artean nuelarik) poltsa hamaika aldiz jarri zidaten (hirutan konortea galdu nuen eta beste bitan dardara hasi nintzen bortizki, gorputza kontrolatu ezinik).

Ariketa fisikoak egitera behartu ninduten, baina ezin nuen, zutik jartzen nintzen bakoitzean zorabiatzen bainintzen.

Garajean hiru ordu egon ondoren, gela batetara eraman ninduten eta bertan galdeketak jarraitu zuten. Hasi bezain pronto, mehatxatzen hasi ziren, familiako kideak atxilotuko zituztela (neskak baino ez: ama, amona eta lehengusina), eta nire neska laguna bortxatzearekin (atxilotua zegoen ere). Orduan berriz kotxean sartu eta atzeko eserlekuan jipoi bortitz bat eman zidaten...

Guardia zibilak Legutioko koartelera eraman ninduen gaua pasatzera. Lurrean zegoen koltxoi baten gainera bota ninduten eta denbora guztian buruz behera lo egiteko agindu zidaten. Beranduago, bat etorri koltxoia hartu eta lurrera bota ninduen, iraintzen eta koltxoirik merezi ez nuela esaten zidan bitartean...

33 Premin Sampedro

ADINA:	26 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/06/14
ATXILOTZE LEKUA:	Arrasate
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº1
EGOERA:	espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Goizaldera, atea bota eta etxean sartu ziren neskalaguna eta biok ohean geundela. Armekin apuntatuz eskuak bistan jartzeko agindu ziguten eta jarraian, beste gela batera eraman, katxeatu eta eskuak brida antzeko zerbaitekin lotu zizkidaten. Inkomunikatuak geundela jakinarazi ziguten orduan, miaketari ekin eta etxea hankaz gora uzten zuten bitartean.

Miaketa bukatutzat eman orduko, Zarautzera bidean jarri ginen, gurasoen etxera alegia. Bidaia guztian ez ziren ixildu: Intxaurrondora eramango nindutela bainera eta elektrodoena egiteko eta ez nuela beraz, irtenbiderik...

Komisaldegitik pasa eta gero, Madrilera eraman ninduten oihu nahiz mehatxu artean, tarteka lepoan joz.

Neskalaguna ere atxilotua zegoenez, hitzegiten ez banuen kolpatu egingo zutela edo marroi guztia berak jan beharko zuela esaten zidaten Madrilgo dependentzia polizialetan. Izan ere, lehen gauean denbora luzez itaundu ninduten, lo egiten eta atseden hartzen utzi gabe.

Gauza bera behin eta berriro errepikarazten zidaten. Orotara, bi aldiz deklaratu nuen; aurretik ordea, mehatxu eta kolpeen bidez, deklaratu beharrekoa hainbat alditan esatera behartzen ninduten.

34 Arantza Martin

ADINA:	22 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/08/14
ATXILOTZE LEKUA:	Bilbo
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Galdeketetan, anaia ere atxilotuta zegoela esanez ni presionatzea lortzen zuten, gaixo baitago. Askotan zera zioten, buruan kaskoa jarrita hormaren kontra kolpatzen zutenez, laguntza eske ari zela. Txantaia egin nahi zidaten azken batean, nekiena deklaratuz gero aske utziko zutela errepikatuz.

Irain eta laidoak entzuten nituen behin eta berriz. “Cerda, asquerosa...” deitu ninduten. Mutil batekin oheratzen nintzela ere esan zidaten, “que me lo follaba” alegia. Izan ere, mutil horren neskalaguna ezaguna zait, are gehiago, ondo konpontzen baikara elkarrekin. Mutila iraintzen eta niri SUMISA deitzen hasi ziren, arropak bere etxera eramaten nizkiolako “como su servicial ayudante”.

Jantziak ekarri eta identifikazio gelara eraman ninduten jarraian. Kristalaren bestaldean nire ama zegoela esan zidaten, eta bera atxilotuko zutela. Poliza Nazionalaren konfidentea omen nintzen gainera, ez nuelako “euskal polizia onarekin” kolaboratu nahi. Familia ez zitzaidala batere axola, erabat hautsi nuelako eta denak kartzelaratuko gintuztelako. Amaren etxea prezintatu zutela entzun nien behin baino gehiagotan...

35 Santi Aragon

ADINA:	26 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/08/22
ATXILOTZE LEKUA:	Zizurkil.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	2001/06/26
EPAITEGIA:	J.C.I Nº5.
EGOERA:	Expetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Izkina baten kontra jar arazi ninduten, bat nire atzean jarri zen beste hirurak nire atzean jarriz. Bat galdetzen hasi zen eta besteak oihuka, eta hormak nigandik hurbil kolpatzen hasi ziren bitartean, erantzun nezan oihukatzen zidaten, hilko nindutenarekin mehatxatzen ninduten, tiro bat merezi nuela, hormak kolpatzen zituzten. Belaunak makurtzera behartu ninduten. Ez dakit zenbat denbora egon nintzen horrela, baina heldu zen momentu bat hankak dardarka hasi zitzaizkidala eta horma mugitzen zenaren inpresioa ematen zidala.

Giroa gero eta beroagoa ari zen jartzen, oihukatzen zuten, ur botila hutsak botatzen zizkidaten, euretako batek bulegoko aulki bat bota zuen hormaren kontra nigandik oso hurbil. Belaunak makurtu arazi zizkidaten, besoak altxatu arazi zizkidaten... noizean behin txantxetan hasten ziren euretako bat nigana hurbildu eta ia zergatik hitz egiten ez nuen oihukatzen hasi zen arte, berak erakutsiko zidala nola esaten zen BAI eta nola EZ oihukatu zidan. Esku irekiarekin horma kolpatzen hasi zen eta buruaren goiko aldean kolpatu ninduen, hori BAI zela esanez. Kolpeak errepikatu eta aurpegia gurutzatu zidan, hura EZ zela esanez. Leher eginda nengoen eta besoak jaisten nituen bakoitzean, eurek altxatzen zizkidaten berriz. Hankak zuzen jar ez nitzan, euretako bat nire atzean jarri zen bere oinak nire belaunen atzeko aldean jarriz. Berriz irain eta mehatxu gehiago. Horrela egon nintzen hankak izugarri dardarka hasi zitzaizkidan arte, eta besoak goian eduki ezin nituen arte. Irainak, barreak,... jarraitzen zuten... Erortzen nintzen eta zuzen jarri ondoren eta berriz erori eta gero aulki batean esertzen utzi zidaten.

Galdeketa honen ondorengoak, “lasaiagoak” izan ziren.

36 Oskarbi Jauregi

ADINA:	25 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/08/14
ATXILOTZE LEKUA:	Zaldibi
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Ertzaintza
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Eskaileretan behera bota ninduten, atzen eskuburdinak jarri zizkidaten eta burua bata batekin estali zidaten. Kotxe batean sartu ninduten era bortitz batean. Oiartzuneko komisaldegira eraman ninduten.

Galdeketak hiru gela ezberdinetan egiten zizkidaten, nahiz eta guztietan izkinaren kontra jartzera behartzen ninduten. Flexioak egin arazten zikidaten eta postura ezegokietan denbora luzez egotera, denbora asko hankak pixka bat flexionatuta, eskuak goian eta burua lurrera begira egon behar izaten nuen. Denbora asko horrela egoten, burua jaso ezinik geratzen nintzen. Lau hankatan ere eduki ninduten denbora luzez eta norbait gainean esertzen zitzaidan. Postura hauek tarteratzen zituzten eta batzutan, jaikitzean erortzen nintzen. Makurtuta garaje batean bueltak ematera behartzen ninduten denbora luzez, flexioak egin arazi...

Tortura psikologikoa izugarria izan zen. Behin, karta-bonba baten simulakroa egin zidaten. Gutun bat ireki arazi zidaten, eta ireki nuenean, petardo bat edo bota zuten ni erabat gortuz. Gutunaren barruan hatzik gabeko guante pare bat zegoen.

Familia eta pisukideen kontrako mehatxuak etengabeak ziren... Umiliazioak etangabeak dira atxiloketaren momentutik espetxeratu arte, nire gorputzari buruzko komentarioak, gainontzeko atxilotuekiko sexu erlazioei buruzkoak, atxilotu eta hurrengo egunean hilerokoa jaitsi zitzaidanez, horri buruzkoak... Galdeketa guztietan “ertzain onak” eta “ertzain gaiztoak” zeuden, azkenekoak armairua kolpatzen zuten, horma eta ematen nuen edozein erantzunaren aurrean oihukatzen zuten.

37 Peru Alvarez Fernandez de Mendibil

ADINA:	
SEXUA:	H
ATXILOTZE DATA:	2001/08/24
ATXILOTZE LEKUA:	Bartzelonan.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	2001/08/29
EPAITEGIA:	J.I.Nº5.
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Mehatxuak hasten dira. Kotxe batean sartzen naute lepoan esposatuta eta begiak estalita ditudala. Lehenengo kolpeka hasten dira, gehienbat buruan. Burua hankartean eramatera behartzen naute.

Kotxea izkina batean gelditzearekin mehatxatzen naute nahi dutena kontatzen ez badiet. Bidaian behin eta berriro jartzen didate pistola bat buruan.

Gida edo egunkari batekin kolpatzen naute behin eta berriro buruan eta ostikoak ematen dizkidate saihets eta ipurdian. Lurrera bota eta kolpatzen jarraitzen naute. Mehatxuak etengabeak dira, nire neska laguna bortxatuko dutenarekin mehatxatzen naute.

Ziegako argia denbora guztian piztuta dago eta lo nagoela ikusten dutenean, ziegan sartzen dira eta zutik jartzera behartzen naute. Flexioak egin arazten dizkidate, firme jartzera eta agur militarra eta koadratzera. Neska laguna eta familiarekin mehatxatzen naute.

Eskuak, besoak eta bizkarra gomekin biltzen dizkidate markarik ez uzteko.

Kolpeak, mehatxuak, oihuak hasten dira, barrabiletatik tiratzen naute eta bihotza ere aterako didatela esaten didate.

Hankak lotzen dizkidate, manta batekin biltzen naute eta lurrera botatzen naute. Bat hanken gainean jartzen zait, beste bat enborraren gainean, eta bestea bizkarraren gainean. Azkenekoak, plastikozko poltsa bat hartzen du. Buruan jartzen dit asfixia sentsazioa izugarria delarik.

Denboraren kontzientzia guztiz galdua daukat, ez dakit konortea galtzen dudan edo ez. Piza egiten dut gainean eta barreak eta irainak bata bestearen atzetik datoz, kolpeak areagotzen dira. Buruan kolpatzen naute egunkari batekin eta mugitu ez nadin marra bi egiten dituzte lurrean, kolpatzen nauten bakoitzean eta marretatik paso egiten dudan bakoitzean, indar gehiagorekin kolpatzen naute.

38 Unai Lopez de Okariz Lopez

ADINA:	25 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/08/24
ATXILOTZE LEKUA:	Barcelona
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Eskuburdinak kendu, goma espuma eskumuturretan jarri eta berriz esposak, oso estu, eta buruan eskuarekin kolpatzen hasten dira. Kolpe asko eman ondoren, poltsa bat jartzen didate buruan... Ventolinak aurkitu dituztela esaten didate (asmatikoa naiz), eta inolako zigorrik gabe hil ninduketela, Gurutzerekin pasatu zen bezala...

Bidean zehar, ez diote kolpatzeari uzten eta poltsa egiteari ere ez.

Madrilen gela batera eramaten naute, eskuburdinak pixka bat askatzen dizkidate eta eser arazten naute. Askoren artean inguratzen naute, belarrira oihukatzen didate denak batera. Guardia Zibilak atxilotu nauela eta hilko nautela esaten didate. Oso beldur naiz badakidalako hori egiteko gai direla eta, eta gainean piza egiten dut. Gero alboko gelan jende gehiago dagoela ohartzen naiz, beraien oihuak entzuten baititut. Bildutako egunkariekin kolpatzen hasten dira. Nekatzen direnean, manta batetan biltzen naute, bero asko ematen duen manta bat, eta antzeko zerbait hanketan. Zelorekin jartzen didate, manta termikoa aurkezten didatela esaten didaten bitartean, eta berriz poltsa egiten didate. Denbora luzez poltsa egiten jarraitzen dute, egunkariekin kolpatzen biak tartekatuz...

Medikuak nahiko urduri nagoela esaten dit, baina beste guztia ondo dagoela. Kolpatzen ari zatzaizkidala esaten diot, eta berak markarik ez badago ezin duela ezer egin esaten dit.

"Animalia" deitzen diote batek biluztera behartzen nau, eta hankak ahal dudan gehien irekitzera, eta bik besoetatik heltzen nauten bitartean, berak gomazko eskularru batzuk jartzen ditu, barrabil bat heltzen dit esku bakoitzarekin eta zenbaitetan gogor estutzen eta bihurritzen hasten da.

39 Fernando Garcia Jodra

ADINA:	29 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/08/24
ATXILOTZE LEKUA:	Barcelona
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Bidaia guztia esposatuta joaten naiz, hasieran esposekin eta markak geratzen hasten zaizkidanean, eskumuturretan euren artean zelorekin lotzen dituzten goma espumako tira bi jartzen dizkidate. Odolaren zirkulazioa askoz txarragoa da baina behintzat ez du markarik uzten. Begiak antifaz batekin estalita ditut, kolpeak etengabeak dira bidaia guztian zehar, aurpegian eta buruan ukabilkadak, esku irekiarekin kolpeak buruan eta belarrien parean, nire ustez egunkari bildu bat denarekin markarik ez uzteko. Kolpeak, barrabiletatik tiratzen naute... eta mehatxuak, "esto no es nada, cuando estemos cómodos vendrá lo bueno, hables o no hables te vamos a torturar igual..."

Kolpeak buruan, aurpegian, barrabiletan, batzutan jantzita nago eta beste batzutan biluzik. Poltsarekin hasten dira, lurrera botatzen naute eta manta batekin bildu. Lehenengo sesioak beldurtzeko erabiltzen dituzte gehienbat, nik neuk apurtzen ditut poltsak hortzekin eta besoak pixka bat mugitu ditzaket, nahiz eta guardia zibil bat gainean dudan.

Buruz behera jartzen naute buruko txiki bat bularrean dudala, nire burua airean egon dadin, eskuak atzean, eta orain bai, lotuta. Hankak ere beraien artean lotuta dauzkat, manta gorputza biltzen eta poltsa buruan. Ezin dut nire burua defendatu, eurek erabakitzen dute denbora. Biriketatik aire guztia botatzean, itotze sentsazioa jasanezina da. Arnasa hartzen ahalegintzen zara, bainan ez dago airerik poltsa barruan, goragaleak datoz... Hasieran ez direla bukaera arte helduko uste dut bainan poltsen arteko denbora gero eta laburragoa denean ikustean (poltsa bat hortzekin apurtzean jarraian jartzen dizute beste bat), zalantzak etortzen zaizkit.

40 Nerea Bengoa Ziarsolo

ADINA:	29 años
SEXUA:	M
ATXILOTZE DATA:	24/08/2001
ATXILOTZE LEKUA:	Barcelona.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Civil
ATXILOKETA DENBORA:	29/08/2001
EPAITEGIA:	J.C.I.N º5.
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Poltsa egiten zidaten arnasarik gabe geratzen nintzen arte, buruan kolpatzen ninduten. Batzutan poltsa bi jartzen zizkidaten, eta oihuak eta mehatxuak ere hasi ziren.

Furgonetatik atera ninduten, pasilo batetik eraman ninduten. Bertan "ongi etorri komitea" zegoen, "hum, que tetitas, como a mi me gustan... "esaten zuen batek eta bularra ukitzen zidan bitartean besteek barre egiten zuten.

Poltsekin soinua egiten zuten esku artean roiloak jartzen zizkidaten bitartean. Hormaren kontra jarri ninduten eta ipurdian ostikoak ematen zizkidaten, buruarekin hormaren kontra kolpatzen ninduten. Eseri ninduten, eskuak eta hankak goma espuma eta zelorekin lotu zizkidaten. Poltsarekin hasi ziren, bat apurtzen nuenean, beste bat jartzen zidaten, bi... Buruan gogorra zen zerbaitekin kopatzen ninduten. Zenbaitetan kolpeak kontatzera behartzen ninduten. Lepotik tanta batzuk erortzen zitzaizkidala nabaritzen nuen, ez dakit izerdia edo odola izango zen, baina izerdia izateko lodia iruditu zitzaidan.

Biluztera behartu ninduten eta eserita nengoenean, buruan, urdailean,... kopatzen ninduten, poltsa egiten zidaten, bularra makila batekin ukitzen zidaten. Fernando ekarriko zutela esan zidaten, ni egoera hartan ikusteko, eta behin, baten bat ekarri zuten, ni biluzik, eserita, buruan poltsa nuela eta kolpatzen eta oihukatzen zidaten bitartean.

Berriz biluztera behartu ninduten eta proposatu zidaten edo nik nire burua masturbatu edo beraiek egingo zutela. Nik beraiek egin zezaten esan nien. Mahai batean etzan ninduten hankak zabalik nituela, oihu, galdera eta igurtzien artean, gehienbat hankatan izterretara heldu arte. Hain gogor kolpatzen ninduten, bi alditan, gainean txiza egin nuen.

Gorputz guztitik kremak ematen hasi ziren.

41 Izate Etxeberria Lafita

ADINA:	24 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/08/27
ATXILOTZE LEKUA:	Benalmadena
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Aske epailearen aurretik pasatu gabe. 01/08/29
SALAKETA:	Bai

Eskaileretatik bota ondoren, ziegara sartu eta zutik egotera behartu ninduten. Gero, "vas a aprender bien, te voy a poner en linea, haz unas flexiones" esan, eta flexioak egiteko agindu zidaten. Besoak altxatu eta begien parean jarraraziz, kontatzen hasi ziren: "vas a hacer cien flexiones, una, una, una, una.... dos, dos, dos...". Lehenengo galdeketara eraman ninduten beranduago. Berehala hasi ziren kolpeak buruan; gainera, flexioak egiten jarraitu behar nuen, eroriz gero, gogor kolpatuz. Antifaza jarrita neukanez, paper batzuk jauzten ikus nitzakeen soilik. Kolpeak ordea, oso fuerteak izanik, min handia ematen zuten eta beraz, ez dut uste paper haiek bakarrik erabiliko zituztenik. Eskuekin ere kolpatzen ninduten, tarteka.

Nire familiarekin asko sartzen ziren: aitarekin, amarekin eta baita Enekorekin ere... Eneko ondoko gelan jartzen zuten, bere oihuak entzun nitzan...Azkenerako, oihu haiek baino ez nituen entzuten. Galdeketetan zutik nengoen denbora guztian eta aulkia eskeiniz gero, esertzeko puntuan nengoenean, kendu egiten zidaten ia beti, lurrera eroriz.

Leku batetik bestera eramaten ninduten bakoitzean, ate guztien kontra kolpatzen ninduten... azkenerako ordea, kolpeka baino gehiago zapuzten ninduten psikologikoki.

Hau guztia eta gero, "como una mierda, a la altura del barro" sentiarazten zaituzte. Niregana zetozen bakoitzean, komentario sexista pilo bat egiten zituzten : "a ver la follarina qué nos dice, tú no haces mas que abrirte de piernas, que te abres de piernas nada mas ver a los tíos, o que?". Irainak ere ildo berekoak izan ohi ziren: "la putita, te abres de piernas seguido..." Modu honetan jokatzen zuten beti ni zapaltzeko...

42 Eneko Balantzategi Coca

ADINA:	24 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/08/27
ATXILOTZE LEKUA:	Benalmádena.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 5
EGOERA:	Aske epailearen aurretik pasatu gabe. 01/08/29
SALAKETA:	Bai

Kolpe guztiak buruan ematen zizkidaten. Biluztera behartu ninduten “ascensor” deritzona egiteko, hau da, flexioak. Arropak pixkanaka kentzeko agindu zidaten, erabat biluzik geratu nintzen arte. Orduan, ura burutik behera botatzen hasi zitzaizkidan, barrabilak hotza zen zerbaitekin igurtziz, aldi berean; elektrodoak zirela zioten. Ez zizkidaten jarri baina mehatxatzeko askotan aipatzen zituzten.

Poltsarekin hasi ziren. Buruan sartuta nuela, tentetu eta segidan, makurtzeko esaten zidaten, gelditzean ere, makurtuta egotera behartuz. Denbora asko egon nintzen poltsa buruan nuela, hurrengo galdeketetan lauzpabost aldiz egin baitzidaten. Behin, zigarroren baten kea ere bota zuen batek poltsa barrura.

Gogorrena zera zen: “igogailua” egiteko makurtzean, abajo esan behar nuen; gorakoan berriz, arriba eta atzetik, ostia oihukatuz, buruan kolpe bat ematen zidaten. Ez dakit zenbatetan errepikatu zen hori modu horretan. Beste behin ordea, buruan kolpea eman ordez, barrabiletan hiru kolpe eman zizkidaten. Biluztera berriz, ia galdeketa guztietan behartu ninduten...

Galdeketa hauetan, polizia askok parte hartzen zuten, tartean emakumeak. Batek tratu bat proposatu zidan eta onartu nezan, kolpeak ugaltzen hasi ziren, gorputza zerbaitekin igurtziz... “que te lo enchufo, que te lo enchufo” esaten zidan batek eta “no, no, no se lo enchufes que hay batería nueva y le vas a achicharrar, si le das en los huevos, le vas a quemar el pelo” beste batek ondotik. Bitartean, etengabe kolpatu ninduten, baiezkoa eman arte. Beste behin, “¿sabes lo que es la bañera? Pues te vamos a hacer la bañera” esan zidaten.

43 Jose Ramon Acedo Espina

ADINA:	24 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/08/29
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 6
EGOERA:	espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Palenciako Guardia Zibilaren egoitzara eraman ninduten (hori uste dut), bultzada eta oihu artean gela batera eraman ninduten eta bertan oihuak, galderak eta mehatxuak areagotu ziren. Noizean behin buruan liburu edo biribildutako gida baten antzeko zerbaitekin kolpatzen ninduten. Atxilotu ninduteneti̇k enkaputxatuta nengoen, bi edo hiru pasamontañas jarri zizkidaten eta ez nuen ezer ikusten. Galderak eta buruan kolpatzen jarraitzen zuten, zerbait jan edo edan nahi nuen galdetu zidaten, ezetz esan nien baina handik denbora batera ur botila bat ekarri eta edatera behartu ninduten.

Berriz enkaputxatu eta beste gela batera eraman ninduten. Jendea zegoela entzuten zen eta galderak egiten eta gorputz osotik kolpatzen hasi ziren, gehienbat buruan, telefono gida baten antzeko zerbaitekin, mehatxuak, oihuak eta kolpeak etengabeak ziren. Ez nekien noiztik ez nuen lo egiten eta ia ezin nuen zutik egon. Biluztera behartu ninduten, nitaz barre egiten zuten eta kolpatzen jarraitzen zuten, momentu hartan hasi ziren poltsa sesioak. Enkaputxatua nengoen, biluzik, nekatua eta hotzikaraz. Poltsa jartzen zidaten buruan eta ezin nuen arnasarik hartu. Horrela, lurrera erori nintzen arte. Arnasa hartzeko zailtasunak nituen eta bakean utz nezaten erregutzen nien edo bestela tiro bat eman nezaten horrela lehenago bukatzeko. Eta buruan tiroarena, gerorako uzten zutela esan zidaten, “lo del tiro en la cabeza, luego, más tarde”.

44 Jon Etxeberria Oiarbide

ADINA:	23 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/09/02
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Bidaia guztian zehar jardun zitzaizkidan kolpeka, irainka eta mehatxuka; galdua nengoela eta akatuko nindutela zioten behin eta berriz... Madrilera bizirik heldu arren, argi utzi nahi zidaten ez zitzaiela batere kostatzen, eta gai zirela gainera, mendi aldean gelditu, buruan tiro bat eman eta bertan uzteko... Poltsa batekin burua estali eta estutu zidaten gero. Halako batean, kotxea gelditu zuten eta atea ireki ostean, tiro bat eman eta bertan utziko nindutela mehatxatu ninduten.

Flexioak eginarazi zizkidaten, buruan kolpeak eman bitartean, nekeak eraginda lurrera erori nintzen arte. Biluzteko agindu eta ur hotza bota zidaten gero burutik, bizkarretik, bularretatik behera... gelako atea ireki eta hersten zuten jarraian, haize korronteak sortuz. Beranduago, lurrean etzanarazi, barrabiletara ura bota eta belarri ondoan soinu bitxia ateratzen zuen zerbait jarri zidaten; elektrodoak ziren. Inoiz frogatu ez banituen, aukera orduantxe nuela esan zidaten, hura guztia hasi baino ez omen zelako egin...

Berriro ere galdeketak, kolpeak, flexioak, irainak, mehatxuak, poltsa... biluzik, goitik behera bustita, lorik egin gabe ia eta etzaterik ere ez nuela... Lehenengo hiru egunak ia berdinak izan ziren; azkeneko biak aldiz, ez hain gogorrak fisikoki, okerrena zetorrelako hain zuzen ere: jende gehiago atxilotu zuten, eta egun “lasaiago” haietan, haien oihu, aiene eta negarrak entzuten nituen uneoro. Nik jada, neuri emandako egurra ez nuen sentitzen. Izan ere, hain minduta neukan burua non kolpeek ia ez baitzidaten eragiten. Ziegan pasatzen nituen une luzeetan besteen aiene eta oihuak entzuteak berriz, sekulako ondoeza sortzen zidan, batenak amaitzean, bestearenak hasten baitziren.

45 Juan Carlos Subijana

ADINA:	38 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/09/04
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Ondokoa, galdezka eta aldizkariren bat dirudien zerbaitekin burua indartsu kolpatzen hasten zait. Galderak eta mehatxuak areagotu heinean, autoaren gidariari desbideratu dadin agintzen diote. Han, kopilotoa jaitsi eta nire pareko atea ireki bitartean, barrabiletan eta buruan ukabilkadak jotzen dizkidate... Berriro martxan jartzean ostera, hil egingo nautela errepikatzen dute... Azkenean, etengabeko kolpeen artean, Madrilera heltzen gara...

Galdeketa gelara naramatela, atxilotu baten oihuak entzun ditzaket. Berriz kolpatzen naute buruan, telefono gida batekin eta egunkari artean bildutako makilekin oraingoan. Halako batean, telefono gida eta makila bat apurtzen dira, hain baitira gogorrak emandako kolpeak... poltsa, elektrodo nahiz bainerarekin mehatxatzen naute, zenbaitetan pistola bat ere jarriko didate lepaxerloan, norbaitek gatua zanpatzen duen bitartean...

Buruan bi kaputxa jarri eta arroparen gainean hiru manta zeloarekin bildu eta gero, poltsa sartuko didate burutik behera. Ondorioz, izerditan blai nago berehala... Behin eta berriro estutzen dute poltsa, arnasari eutsi ezin diodan arte. Zazpi edo zortzi alditan, heldu ere egin beharko naute lurrera eror ez nadin zorabioak jota. Gauerako, daukadan itxurarekin izutu eta burua kolpatzeari utziz, kapsulak eta ukenduren bat eman eta izotza nahiz ur hotzetan bustitako toaila bat jartzen dizkidate.

Galdeketetan, poltsa eta elektrodoetaz baliatuko dira bereziki, batera nahiz banaka. Elektrodoak, lepotik behera ura bota ondoren, ipurdian, aldakatan eta lepoan jartzen dizkidate. Gorputzaren dardara kontrolaezina da...

46 Raul Vallinas Aduna

ADINA:	19 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/09/04
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Lehenengo bi egunetako galdeketak izan ziren bortitzenak. Lauzpabost polizia neuzkan inguruan eta berehala, poltsa bat sartu zidaten burutik behera. Pixkanaka biluztarazi ninduten, eurek agindutako erropak kenduz. Gero, erabat bilutsik eta zutik, flexioak eginarazi zizkidaten. Galdetu bitartean, gogorra zen zerbaitekin kolpatu zidaten burua. Halaber, denbora guztian hormaren kontra zutik eta kaputxa buruan eduki ninduten... Hanketara likidoren bat isuri eta "entzuten duzu" esanez elektrodoen aparailua jarri zidaten belarri ondoan. Txinpartek ateratzen zuten soinua entzun nezakeen eta ziztada bat ere nabaritu nuen izterrondoan lehendabizi, besoan gero. Hura ezer ez zela zioten ordea, ikusiko nuela indarra igotzen zutenean. Ahulduta somatuz gero, ziegara eraman eta hormaren kontra egotera behartzen ninduten, lurrari begira eta eskuak atzean lotuta.

Galdeketek luze irauten zuten eta noski, baita gainontzeko guztiak ere, buruan emandako kolpeek bereziki. Tentsioa onaren papera egiten zuen polizia zetorrenean leuntzen zen; hark niretzat hobe zela eta kolaboratzeko esaten zidan. Ondoko geletan atxilotu gehiago zeuden...

Behin, atxilotu hauetako bat eta ni neu aurrez aurre jarri gintuzten, elkar ikusterik ez genuela. Bietako batek bestea sala zezan nahi zuten....egoera hura eramangaitza zen... Ondoren, beste gela batean sartu eta poltsa kaputxaren gainetik jarri zidaten. Estutzean, ez nuen lausoa besterik ikusi eta lurrera eroriko nintzen polizietako batek heldu ez banindu. Beste batengana eraman ninduten gero...

Lehenengo bi egunetako galdeketa hauek amaigabeak ziren; hurrengoak ere ez zitzaizkidan ordea askoz hobeak iruditu. Izan ere, ez zidaten lo egiten uzten, gainontzekoen oihuak entzuten nituelako besteak beste... kaka sentitzen nintzen, baliorik gabekoa eta besteen oihuak entzun baino nahiago nuen ni neu haien lekuan egon... honek guztiak psikologikoki asko ahultzen zaitu...

47 Sendoa Dominguez

ADINA:	22 urte
SEXUA:	H
ATXILOTZE DATA:	2001/09/04
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	2001/09/07
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº1.
EGOERA:	Aske.
SALAKETA:	Bai

Madrilerako bidean jarri orduko, kolpeak hasi ziren, buruan bereziki. Kolpeak etengabeak zian ziren bidaia osoan, gehienetan esku irekiekin ematen zizkidatelarik. Bidaia osoan buruz behera egin behar izan nuen, postura desegokietan, burua hanken artean nuela. Laster jarri zidaten kaputxa bat eta aurpegira sprayren bat bota, ez dakit, baina drogaren bat zela iruditu zitzaidan, tontatuta utzi ninduelako.

Beraiek entzun nahi zutena esaten ez nuenean, poltsa egiten zidaten, beso eta hanketako flexioak egin arazi zizkidaten biluzik nengoen bitartean, ahitzeraino, gehiago ezin nuela ikusi zuten arte. Bildutako liburuekin kolpatzen ninduten buruan, porra bat bailiran, telefono gidekin kolpatzen ninduten buruan (eurek esaten zidaten gidak zirela ni enkaputxatuta nengoelako), barrabiletan eskuekin eta paperezko porrekin kolpatzen ninduten. Kolpe gehienak buruan ematen zizkidaten. Markarik utzi nahi ez zituztela zirudien, beraien indar guztiekin kolpatzen ninduten, oso kolpe mingarriak ziren...

Kolpeak oso mingarriak ziren; burua koskorrez betea somatzen nuen.

Behin baino gehiagotan belarri ondoan zerbait jarri zidaten, elektrodoak zirela esaten zidaten bitartean, egiten zuten soinua entzun nezan, eta ondoren lepoan jarri zizkidaten. Lepoan deskarga batzuk nabaritu nituen. Baina hala eta guztiz era gehien erabili zutena poltsa izan zen, askotan egin zidaten, ia itotzeraino.

48 Aitor Duran

ADINA:	20 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/09/04
ATXILOTZE LEKUA:	Lekeitio
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº1
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Iritsi bezain laster, hormaren kontra jarri, miatu eta heriotzarekin mehatxatu ninduten. Aldi berean, inkomunikatua nengoela, eskubiderik gabe, eta zetozen egunak zer nolakoak izango ziren ikusiko nuela zioten....

Ibilbide osoan zehar, autoa gelditzen zuten tarteka, tiro bat emango zidatela errepikatuz etengabe.

Kolpatzen hasi zitzaizkidan. Burua estalita, beste gela batetara eraman ninduten eta biluztarazi ostean, polizietako batek "zer duzu nahiago, niri zakila jatea edo nik zuri popatik ematea" esaten zidan.

Hiruzpalau estalkiz inguratu zidaten gorputza. Nik kendu egin nahi nituen baina zintekin bilduz lotu zizkidaten, kolpeka hasteko jarraian. Gero, soinua ateratzen zuen aparailu bat jarri zidaten belarrien ondoan, elektrodoak zirela esanez. Izan ere, burua estalita neukan eta ezin nuen zer aparailu mota zen ikusi. Bat batean, bizkarrean nahiz besoetan zastadak sentitu nituen; beranduago ikusi ahal izan nituen elektrodoek utzitako markak. Baina bitartean, lurrean eduki ninduten, buruan kolpeak eta ostikoak jasoz.

Birritan egin zidaten poltsarena. Lehenengo aldian, oxigenoa agortu ahala, neure denbora ere ahitzen ari zela eta deklaratu ezean, ito egingo nintzela zioten. Hitzok entzun bitartean, poltsa estutzen zutela senti nezakeen; itotzen ari nintzen zinez. Azken unean ordea, poltsa kendu zidaten kolpeekin jarraituz, erabat lurreratu ninduten arte.

Nire neskalaguna aipatzen zuten sarritan, ni mehatxatu eta iraintzeko, "bortxatu egingo dugu", "zure lagunek berarekin larrua jotzen dute" (...) eta antzekoak esanez.

49 Iban Ortigosa

ADINA:	23 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/09/04
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Bai

Kaputxa bat jartzen didate eta berriz sartzen naute kotxe batean. Kolpeak hasten dira, gehienbat buruan. Etengabeak ziren buruaren atzeko aldean ematen zizkidaten kolpeak esku irekiarekin, eta etengabeko galderak hasten dira irainen artean "hijo de puta, me estás jodienndo la mano", beste eskuarekin kolpatzen didan bitartean. Kotxean bi pertsona gindoazen atzeko aldean eta emakume bi aurrean. Hauek barre baino ez zuten egiten, nire ondoan zihoana zen etengabe kolpatzen ninduena. Denetarik esaten zidan "te voy a matar, le voy a violar a tu novia..."

Burua makurtuta eramatera behartzen zidaten, eta etengabe buruan kolpatzen ninduten oso gogor. Etengabeko umiliazioa eta amorrua zen. Emakumeek etengabean barre egiten zuten, hau zen gehien gorrotatzen nuena. Galderei "ez dakit" erantzuten nuen bakoitzean, "tu que, eres el tontito o que" esaten zidaten, guztiz umiliatuta sentitu arazten ninduten, hau zen txarrena. Hain huskeria sentitzen zara momentu horietan... barreak ziren okerrena, kolpeak baino okerragoak.

Oihuak entzuten nituen, irainak "hijo de puta, aquí viene otro hijo de puta...", kolpeak etengabe, noizean behin "polizia ona" zetorren eta "dime algo si no esos te van a matar" eta antzekoak esaten zizkidan, jarraian "polizia txarra" zetorren. Galdeketak burutzen ziren gelan, hormaren kontra zutik egotera behartzen ninduten, horma ukitu gabe. Eta kolpeak eta galderak etengabeak ziren. Jaietako katxirulo horietako batekin kolpatzen nindutela uste nuen, baina geroago jakin izan dut bilduta eta forratuta zeuden telefono gidak zirela, baina barruan ola edo antzeko zerbait zutenak.

50 Joseba Gorosarri Ramos

ADINA:	26 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/09/05
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Kaputxa bat jarri eta telefono gida edo antzeko zerbait izan daitekeenarekin buruan kolpatzen naute, galderak egin eta nire familiaren aurkako mehatxuak jaurti bitartean.

Biluztarazi eta gero, flexioak egin beharko ditut, indarrak ahitu arte. Galderak egiten dizkidate eta lurrera erori arteraino kolpatu. Guardia zibil gehiago sartuko dira geroago eta jazteko aginduz, ziegara naramate. Han ordea, hormaren kontra jarrarazi eta esertzeko debekua luzatzen didate.

Berriz ateratzen naute ziegatik, beste gela batean sartzeko segidan. Kaputxa daramat orain ere. Guardia Zibilari buruz dioten guztia egia dela frogatuko dudala eta ni ez ezik, nire neskalaguna ere erahil egingo dutela diote. Orduan, Anselmo izeneko bat sartuko da. Biluzteko aginduari uko egitean, burua kolpatzen dit telefono gida edo makilaren batekin. Ondorioz, lurrera erori eta konortea galtzen dudala uste dut, lurrean esnatzen bainaiz erabat biluzik. Berehala ordea, zutitzeko agindu eta poltsa burutik behera jarriz, itolarritzen nau. Galdeketan zehar poltsarena gehiagotan errepikatuko du, galderekin tartekatuz. Halako batean, ur hotzarekin busti eta elektrodoak jartzen dizkidate bizkarrean, lepoan nahiz barrabiletan, deklaratu ezean, tiro bat botako didatela esanez...jarraian, pistola bat jartzen didate buruan.

Galdeketek jarraitu egiten dute, kolpeek, poltsarenak, elektrodoek eta mehatxuek bezalaxe... torturatzen eta kolpatzen nauten galdeketak, “polizia onak” egin ohi dituenekin txandakatzen dira...

Edozein modutara ere, gero eta bortitzagoak bihurtuz doaz: poltsa, elektrodoak, kolpeak... manta batetan bildu eta gorputz osoa astintzen didate. Bi aldiz, asma atakeak datozkidanean, bentolina eman eta ziegan sartzen naute pasatu arte.

Laugarren edo bosgarren egunerako ezin dut gehiago eta nahi dutena sinatzeko prest agertzen naiz. Honela, zer aitortu behar dudan esaten didate...

51 O.I.A.

ADINA:	21 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Ondarru
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	2 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº1
EGOERA:	Aske epailearen aurretik pasatu gabe. 01/10/19
SALAKETA:	Ez

Aitaren bila zetozen, baina kotxea nire izenean zegoenez, ni ere atxilotua eraman ninduten, agindurik eduki ez arren. Miaketa bukatu eta gero, Basurtoko ospitalera joan ginen lehendabizi, azter nezaten. Handik berriz, Madrilera; bidaia hartan entzun nituen lehen mehatxuak: “cuando lleguemos a Madrid te voy a dar de hostias, y ya cantarás”...

Lehenengo galdeketa nahiko leuna suertatu bazitzaidan ere, hurrengoak bortitzak izan ziren. Oihuka eta mehatxuka jardun zitzaizkidan denbora guztian, presio egiteko. Aitak bihotz atake bat izan zuela behin eta beraz, harekin kontuz ibiltzeko esan nienean, “mecagüen dios, en esta familia todos tienen algo...” ihardetsi zuten. Izan ere, epilepsi atakeak neuzkala jakinarazi nion forenseari. Umilatua sentiarazi nahi ninduten eta helburu horrekin, euren artetik guapoena hautatzeko esan zidaten behin, galdeketak gau osoan irautea edo bost egun inkomunikatuta egotea nahi ez banuen bederen. Familia eta mutil laguna maiz aipatzen zituzten gainera. Zera zioten esate baterako, aita eta biok kartzelara bidaliko gintuztenez, amona bizirik ikusterik ez genuela izango, adintsua izateaz gain, gure atxiloketek lur jota utzi zutelako. Aitari buruzko komentarioekin estutzen ninduten gehienbat, gu biok ikusi ahal izateko amak gartzela guztiak ezagutuko omen zituela esanez. Oso zaila da presio psikologikoa zein izugarria den hitzez azaltzea. Oihuak, mehatxuak, irainak, aita nola zegoen ez jakitea... guztia batera...

52 Luis Mariñelarena Garziandia

ADINA:	26 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Soraluze
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Denbora guztian irainka eta mehatxuka zebiltzan… galderak egiteari ekiteaz bat, buruan eta barrabiletan kolpatu ninduten, etengabeko mehatxuen artean. Mendira eraman eta tiro bat botako zidatela zioten; baita torturatuko nindutela ere… Horrela jardun zuten polizia burua etorri zen arte. Noizean behin, polizia gehiago etortzen ziren mehatxatu eta iraintzera… Donostiarako bidean berriz, eskuak atzean lotuta eta burua hanka artean edukitzera behartu ninduten.

Handik, Madrilera. Mehatxu eta iranek ez zuten amaierarik. Egia esan, atxilotuta egon nintzen bost egunetan entzun behar izan nituen… Eguneko bi edo hiru itaunketa egiten zizkidaten, deklaratu ezean, ez nintzela handik bizirik irtengo eta gibela aterako zidatela errepikatuz... Deklaratu ostean, tratua pixka bat leundu zen. Orduz gero, mehatxuak utzi eta iraintzeari ekin zioten batik bat. Mota guztietako irainak ziren, pertsonalak nahiz kideen kontrakoak...Ziegako argia piztu eta itzali zebilen.

53 Roberto Lebrero Panizo

ADINA:	26 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Soraluze
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Atea lehertu eta gero, polizia nazional nahiz berezi piloa sartu ziren etxean goizeko ordubiak aldera. Lotan nengoenez, ia ohartu aurretik ohetik bota eta burua kolpatzen hasi zitzaizkidan, neure izena behin eta berriro errepikatzera behartuz.

Etxea miatu bitartean, belarri ondora hurbildu eta “sabemos mas de ti que tú mismo”, “ya verás lo que te espera ahora” edo antzekoekin mehatxatzen ninduten..

Halaber, galdezka eta mehatxuka jardun zitzaizkidan etengabe Donostia nahiz Madrilerako bidean; noizean behin, burukoak ere ematen zizkidaten.

Madrilgo galdeketak oso luzeak ziren. Gustuko ez zuten erantzun bakoitzeko, mehatxuren bat prest zeukaten beti. Burukoren bat edo beste ere ez zen falta izan, oihu, irain eta mehatxu artean. “Tu crees que soy tonto o que? Terrorista de mierda... ya sabes que esto puede ser mucho peor...” Honelakoak entzun behar izan nizkien.

Komisaldegian bi aldiz behartu ninduten deklaratzera, beraiek nahi bezala egin ezean, benetako torturak zeintzuk ziren jakiteko aukera izango nuela mehatxatu baininduten.

54 Asier Altuna Epelde

ADINA:	27 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Azkoitia
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Lurrean etzanarazi ninduten, polizietako batek eskuarekin burua zanpatzen zidan bitartean; horrek eragindako okotzeko minak bost egun iraun zuen. Berahala, polizia buruak sartu eta jazteko agindu zidaten. Logela, lehendabizi eta ondoren, estudioa miatu zituzten. Etxea poliziaz beterik zegoen. Saloian ere ezer aurkitu ez zutenez, hitz egiten hasteko oihukatu zidaten, Igone jada Madrilerako bidean zegoela eta...

Eskuak atzean, eskuburdinak estu-estu nituela, kotxe batean sartu eta Donostiako anbulategira joan ginen. Bidean, ez nuen mehatxua besterik entzun. Kantatzen hasteko zioten, kotxe hartatik pasa ziren guztiek hitzegin zutela eta, baita ni baino gogorragoek ere... Galderak eta mehatxuak etengabe, Donostiako gobernu zibilera heldu arte. Handik Madrilerako bidaia ere berdintsua izan zen ostera.

Bigarren eguneko hiru galdeketetan, izugarri presionatu ninduten. Izan ere, neskalaguna oso momentu txarrak pasatzen ari zela zioten. Hirugarren galdeketan gainera, hurrengo egunean nire burua errudun deklaratuz gero, trukean aske utziko zutela esan zidaten. Hala egin ezean, biok gartzelara joango omen ginen ...

Hirugarren egunean, galdeketa gehiago. Haietan, agindutakoa deklaratu behar nuen, bestela neskalaguna gartzelaratuko zutelako... Presioa gehiegizkoa zen eta haiek nahi bezala deklaratu nuen.

55 Angel Murgoitio Ribera

ADINA:	39 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Soraluze
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Bai

Madrilera heldu ginenean hasi ziren galdeketak. Hasieran lasaiak, mehatxuekin baino ez...

Lehenengo aldiz deklaratu ondoren, beste itaunketa bat egin zidaten. Ordukoan, ezagutzen ez nituen bi polizia eskuekin burua, sabela, barrabilak... kolpatzen hasi zitzaizkidan.

Hurrengo egunean, berriz deklaratu nuen, ofizioko beste abokatu batekin. Ondoren, gauza bera errepikatu zen: ziegatik atera ninduten galdeketari ekiteko. Pertsona berri bat agertu zen oraingoan, nagusia izanda, mobidan denbora luzez ibilia behar nuela eta izenak emateko esanez. Erantzunik jaso ez zuenez, gauzak beranduago ere aterako zizkidatela mehatxatu eta esku ahurrarekin buruan kolpatu ninduen.

Beranduago, beste behin atera ninduten ziegatik. Ez nuen ordea, kolperik jaso. Izan ere, torturatua izan aurretik, hitzegiteko hamar minutuko epea ematen zidatela esan eta gero, mehatxuka hasi baitziren. Guardia zibilengana eramango nindutela zioen batek, okerragoak izateaz gain, huskeriatan ibiltzen ez omen direlako. Beste batek aldiz, nire loba atxilotuko zutela errepikatzen zidan... Ezin izan nuen gehiago jasan eta paper zuri bat sinatuko nuela esan nien; ondoren, nahi zutena jar zezaketela. Tarte baten ostean, ziegara berriro, gauean bisitan joango zitzaizkidala esanez...

56 Igone Bastarrika Salegi

ADINA:	22 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Azkoitia.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	4 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Aske
SALAKETA:	Ez

Autoan egindako bidaian oihuka aritu zitzaizkidan. Izugarri haserretzen ziren. Amarako komisaldegira eraman ninduten, aparkalekuan kotxea utzi eta bertatik atera gabe edukiz ordubete edo. Poliziak nirekin zeuden kotxean, galderak egiten eta tarteka, mehatxatzen eta iraintzen...

Madrilera joan ginen gero. Zain nengoen arren –gainontzekoekin hala egin zutela iruditzen baitzitzaidan-, galdeketetan ez zidaten kolperik eman.

Mahai baten ondoan eserita nengoen; bestaldean, gizonezko bat galderak egiten eta emakume bat zutik, “te veo muy tranquila, tú no lloras o que?” esanez. Nik behin eta berriz errepikatzen nion ez nuela ezer egin... baina hala ere, asko presionatzen ninduten Asier erabiliz...

Galdeketa batean, iruzur egin niela eta ez zidatela ezer sinesten esaten hasi zitzaizkidan. Orduan, mahaiari begira eserrarazi ninduten. Polizia bat mahai gainean eseri zen bere hankak nire belaunen gainean zituela. Eskua lepoan jarri zidan, estutzera joango balitz bezala, baina estutu gabe. Une horretan oihuka hasi ziren... polizia bat zegoen nire ondoan, oso handia zen; huraxe ari zitzaidan oihuka era basatian... ordurarte, nahiko lasai nengoen, ia etsi nuen ordea, eta berak “ahora vete a tu celda y llora” esan zidan.

Galdeketak egiteko, horman ispilu bat zuen gela txiki batean sartzen ninduten. Asier ispiluaren bestaldeko gelan zegoela esan eta biok esandakoaren artean aurkaesanik egonez gero, zerbait egingo ziotela errepikatzen zidaten...

Ez nuen ezer jan. Lehenengo egunean, zerbait jan nahi al nuen galdetu eta baietz esan nien. Orduan, baba zuri pote bat ekarri zidaten, ekainaren seian enbasatua eta usain txarra zeriona...

57 Simone Begiristain Lasa

ADINA:	38 urte
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/10/19
ATXILOTZE LEKUA:	Eibar.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº1
EGOERA:	Expetxeratua.
SALAKETA:	Jartzear

Galdeketa osoan, oihuka eta nahi zutena lortzeko denbora soberan zeukatela esanez, mehatxuka ziharduten. Aldi berean, ondoko geletakoen ahotsak entzunarazten zizkidaten. Irainak halaber, mordoa... Rikarren aieneak entzun eta urduri jarri nintzela somatu orduko, bere izena aipatzeari ekin zioten, harik eta lehenengo aldiz deklaratu nuen arte.

Handik aurrera, zutik egotera behartu ninduten; ordura arteako jarrera “erosoegia” omen. Beraiek ere zutitu egin ziren eta nire inguruan jarriz, bultzaka hasi zitzaizkidan. Nik ordea, zutik iraun behar nuen, zuzentzen zitzaidanari begiratuz. Segidan, nigana hurbildu eta irain, galdera eta mehatxuekin erotu ninduten... Atzekoak boligrafoarekin burua zulatzen zidan bitartean, oinak zapaldu eta bizkarrean kolpetxoak emateaz gain, eskuekin helduz burua astintzen zidaten. Eta nik, hitzegiten zuenari begiratu behar nion... Bizkarreko mina areagotu zitzaidan; ezin nuen gainera, burua zuzen eduki nekea, logura eta astinduen kariaz...

Deklarazio berri bat egin nuen, bakean utziko gintuztelakoan. Oker nenbilen ordea, mehatxuka ekiten baitzioten. Behin, eserita nengoela, euretako batek ostiko bat eman zidan amorruz. Saioak asko luzatzen zirenez, ez neukan lo egiteko abagunerik eta horrek ahuldu egiten ninduen... Guztia kontatzeko eskatu bezain agudo, buruan ukabilkada bat eman zidan batek, ahoko protesiaren hagin bat hautsiz. Kontatzen berriz hasteko agindu eta beste ukabilkada bi, bata belarrian eta bestea buruan. Burua hautsi zidatela iruditu zitzaidan... Hirugarren aldiz kontatzen hasteko zioten edonola ere. Dardarka nengoen eta eragindako presioa nahiz emandako kolpeak tarteko, gauzak esan nizkien; baita behin eta berriro errepikatu ere, goizaldera arte...

58 Julen Ereñaga Azkarate

ADINA:	36 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/10/18
ATXILOTZE LEKUA:	Eibar.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Polizietako bat mehatxuka, kolpeka eta ditiburuetatik eta iletik gogor tiratzen hasi zitzaidan. Eskuburdinak kendu eta berarekin jotzera ere gonbidatu ninduen.

Madrilerako bidean, egindako galderei erantzuten ez nienez, bidaia guztia burua belaunen gainean egin behar izan nuen... Ondorioz, hara heldu eta kotxetik jaistean, zorabioa eta noraeza tarteko, ia lurrera erori nintzen.

Ziega batean sartu eta larunbat eguerdira arte bertan egon behar izan nuen; orduan hasi ziren galdeketak. Galderei erantzuteari uko egin orduko, idazkariak eta instruktoreak torturarekin mehatxu egin zidaten... hitz egiten ez banuen, talde armaturen kidetzat akusatuko nindutela ere esaten zuten... Arratsaldean berriz itaunduko naute, dena oroitzera gonbidatuz.

Gero gauean, kolpeak eta oihuak entzun nituen, nire ziega galdeketa gelak zeuden pasiloaren aurrean baitzegoen. Angelen eta emakume baten ahotsak ezagutu nituen orduan... Igandean ere, itaunketa berriak.

Astelehenean deklaratu nuen, ondoko gelan oihuak eta kolpeak entzuten ziren bitartean. Robertoren ahotsa zela iruditu zitzaidan oraingoan. Idazkariak bertara joan eta agintzera gera zitezen agindu zion instruktoreari. Baina ez pentsa ofizioko abokatua honen guztiaren aurrean doilitu zenik; ezta apur bat ere.

Arratsaldeko galdeketan tortura mota guztiekin eta hiltzearekin ere mehatxatu ninduten berriro.

Hurrengo egunean, entzutegira eraman ninduten, forenseai guztia kontatu ostean.

59 Ricardo Aranburu Gerenabarrena

ADINA:	40 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/10/19
ATXILOTZE LEKUA:	Eibar.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.I. Nº1.
EGOERA:	Expetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Kolpeak ematen zizkidaten aurpegian, bularrean eta buruaren atzekaldean, hatz koskoekin nahiz belaunekin. Presio psikologikoa ere izugarria zen oihu, mehatxu eta irainen bidez. Prakak jaitsiarazi zizkidaten eta baita luzez zutik egonarazi ere.

Kolpe gehiago; batzuk gogorrak, besteak ni kikiltzeko helburuarekin. Iztaietan, giltzurrunetan, saihetsen atzekaldean, buruan eta bekokian. Lehenengoak, ukabilekin eta buru eta bekokikoak, esku ahurrekin ematen zizkidaten.

Hanka puntetan ere egonarazi ninduten 35 edo 40 bat minutuz; jarrera aldatuz gero, oihuka hasiko ziren berehala lehengora itzul nendin. Behin gainera, euretako bat orpoetan eta orkatiletan ostikoak ematen hasi zitzaidan hankak banatu eta igo nitzan, denbora luzez zutik egotera behartuz.

”que igual se follaban a Simone” esaten zuten irain eta oihuen artean; gelatik sartu eta atera zebiltzan, ateari kolpeka eta mehatxuak jaurtiz. Ondoko gelatik zetozen polizia baten oihuak entzun ziren halako batean: “estoy hasta los cojones de oír chorradas” esan eta ni nengoen lekura zetorrela iruditu ziztzaidan.. Bertan, pistolarekin apuntatzeko imintzioa egin zuen, eskuetako hatzak niri zuzenduz, apuntatzen ari balitz bezala.

Berriro ere galdeketa gehiago... oihuak belarri ondoan, iletik eta patiletatik tirakadak, eta kolpeak buruan esku ahurrekin; hasieran, txandaka eta tartea utziz baina gero, segidan.

Kokorikotan jarrarazi ninduten. Lehen belarri ondoan oihuka zihartuena, burua kolpatzen hasi zitzaidan gogor eta etenik gabe; guztira, 50 bat kolpe bataz beste. Amaitzeko, hiru zartada barrabiletan. Saioa bukatutzat eman zutenean, gau aldera ez beraiek, baizik eta are bortitzagoak ziren batzuk, ziegara bisitan joango zitzaizkidala esan zidaten.

60 L.P.S.

ADINA:	20 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	01/11/05
ATXILOTZE LEKUA:	Iruñea
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	3 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 4
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Jartzear

Kolpeak ematen zizkidaten aurpegian, bularrean eta buruaren atzekaldean, hatz koskoekin nahiz belaunekin. Presio psikologikoa ere izugarria zen oihu, mehatxu eta irainen bidez. Prakak jaitsiarazi zizkidaten eta baita luzez zutik egonarazi ere.

Kolpe gehiago; batzuk gogorrak, besteak ni kikiltzeko helburuarekin. Iztaietan, giltzurrunetan, saihetsen atzekaldean, buruan eta bekokian. Lehenengoak, ukabilekin eta buru eta bekokikoak, esku ahurrekin ematen zizkidaten.

Hanka puntetan ere egonarazi ninduten 35 edo 40 bat minutuz; jarrera aldatuz gero, oihuka hasiko ziren berehala lehengora itzul nendin. Behin gainera, euretako bat orpoetan eta orkatiletan ostikoak ematen hasi zitzaidan hankak banatu eta igo nitzan, denbora luzez zutik egotera behartuz.

”que igual se follaban a Simone” esaten zuten irain eta oihuen artean; gelatik sartu eta atera zebiltzan, ateari kolpeka eta mehatxuak jaurtiz. Ondoko gelatik zetozen polizia baten oihuak entzun ziren halako batean: “estoy hasta los cojones de oír chorradas” esan eta ni nengoen lekura zetorrela iruditu ziztzaidan.. Bertan, pistolarekin apuntatzeko imintzioa egin zuen, eskuetako hatzak niri zuzenduz, apuntatzen ari balitz bezala.

Berriro ere galdeketa gehiago... oihuak belarri ondoan, iletik eta patiletatik tirakadak, eta kolpeak buruan esku ahurrekin; hasieran, txandaka eta tartea utziz baina gero, segidan.

Kokorikotan jarrarazi ninduten. Lehen belarri ondoan oihuka zihartduena, burua kolpatzen hasi zitzaidan gogor eta etenik gabe; guztira, 50 bat kolpe bataz beste. Amaitzeko, hiru zartada barrabiletan. Saioa bukatutzat eman zutenean, gau aldera ez beraiek, baizik eta are bortitzagoak ziren batzuk, ziegara bisitan joango zitzaizkidala esan zidaten.

67 Jokin Zerain

ADINA:	
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/11/06
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz
ATXILOKETA MOTA:	Komunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	ordu batzu
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Kollejak kolpatzen hasten dira (buruaren atzeko aldean kolpeak) eta tiro bat ematearekin mehatxatzen hasten dira. Pilotukidea buelta eman eta esku artean dudan poltsa buruan jartzen dit, itxi gabe. Buruan kolpeak jarraitzen dute eta pistola jartzen jarraitzen dute, berarekin apuntatuz. Nirekin atzean eserita doanak poltsa itxi egiten du lepotik, nik oihukatzen dut, eta berak ez apurtzeko agintzen dit. Ondoren poltsa irekitzen du eta berriz zarratzen du.

Euretako batek mendira eramango nautela eta tiro bat emango didatela esaten dit. Kotxea bidetik atera eta gelditu egiten dute. Hiru goardia zibilak kotxetik irten eta ni ere ateratzen naute. Oraindik kaputxa bi dauzkat buruan jarrita, gainetik basura poltsa eta eskuak hanka baten inguruan esposatuta dauzkat.

Madrileko komisaldegira heltzen gara, poltsa eta kaputxa bat burutik kentzen didate, bestea jarrita uzten didatelarik. Gela txiki batera eramaten naute, bertan kamilla bat eta aulki bat daude, aulkian esertzen naiz eta bakarrik uzten naute. Oraindik eskuak hanken azpitik esposatuta dauzkat.

Goardia zibil sartzen da eta ez zer nahiago duen galdetzen dit “que me de por culo o chuparle la polla”. Nik ezer esaten diot eta brageta jaisten du pistola buruan jartzen didan bitartean eta tiro bat ematearekin mehatxatzen nau “si se la muerdo”. Brageta igo pistola gorde, gerritik behera biluztera behartzen nau kamillan eskuak jartzera behartzen nauen bitartean eta ipurdia kanpo aldera ateratzera behartuz. Postura horretan zenbait minututan egotera behartzen nau nitaz barre egiten duen bitartean.

62 Ana Belen Egues Gurrutxaga

ADINA:	
SEXUA:	E
ATXILOTZE DATA:	2001/10/07
ATXILOTZE LEKUA:	Madrilen.
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Polizia Nazionala
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº4.
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Bai

Hormaren kontra belaunikatzeko esan eta beherantz indarra eginez, belaunen gainean erori nintzen. Polizietako batek, eskuburdinak estutu zizkidan; beste batek, edo berak agian, oinak zapaltzen zizkidan aldi berean. Gero, batzuk ileetatik goruntz tiraka nituela, besteek gorputzetik heldu eta beheruntz egiten zuten... zerbaitekin atea kolpatu ostean, "ya empieza la fiesta, como no hable el loco le mata, ya puedes hablar tú también" esan zuten.

Zenbaitetan, soinu bat entzun eta gero, gizonezko batek lekutik jaikiarazten ninduen eta jertse bat buruan jarrita, beste batek atzetik besoak altxatu eta burua eskuarekin bortizki kolpatzen zidan. Kolpe hauen kausaz, buruko mina jarri zitzaidan eta ez nuen ondo ikusten. Segidan, eskuak askatu eta jendez gainezka zegoen gela batetara eraman ninduten. Polizietako batek ni berarekin bakarrik uzteko esaten jarraitzen zuen, hil egin nahi ninduela eta.

"Zoroari" deitu zioten. Hark berriro jarri zidan jertsea buruan eta zaplastekoak emateari ekin zion. Beste batek besoei goruntz tira egiten zien bitartean, hanketan ostikoak ematen zizkidan hurrengoak. Bizpahiru tipok berriz, burua kolpatzen zidaten aldi berean... ezkerreko belarria gogor jotzen zidanik ere bazegoen, erabat butxatuz. Sarritan gainera, animalia baten gisan tratatua izatea nahi nuela esaten zidaten eta denen artean inguratuz, buruan kolpatzen ninduten, hitzegin ezean, hurrengo egunean gauzak okertu egingo zirela errepikatuz.

Galdeketa batean, polizietako batek pistola mahai gainean utzi nahi zuen, beste bati leihoa ireki zezan agintzen zion bitartean.

Galdeketak egun guztian zehar luzatzen ziren...

63 Jorge Olaiz Rodriguez

ADINA:	23 urte
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/11/26
ATXILOTZE LEKUA:	Iruñea
ATXILOKETA MOTA:	Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	5 egun
EPAITEGIA:	J.C.I. Nº 1
EGOERA:	Espetxeratua.
SALAKETA:	Jartzear

Iruñako koartelera heldu bezain laster hasi ziren kolpeak; gorputz guztia egurtu zidaten, burua batez ere, odoletan utzi ninduten arte. Flexioak eginarazi nahi zizkidaten gero, eta egindua betetzeari uko egin nionez, euretako batek barrabiletatik heldu eta bihurritu egin zizkidan… Poltsarena berriz, hiru edo lau aldiz egin zidaten, batek estutu bitartean, besteek gogor heldu eta saihetsetan kolpatuz aldi berean.

Madrilerako bidaian, elektrodoak jarriko zizkidatela zioten behin eta berriz… eta heldu orduko hasi ziren kolpeka. Burua mailatu zidaten gehienbat, gomaespumaz forratutako makila batekin. Etengabe kolpatzen ninduten. Gero, biluztera behartu eta hankak eta eskuak gomaespumarekin lotu eta buruz behera etzanarazi ostean, polizietako bat nire gainean jarri zen, burutik behera poltsa bi sartuz… Lehenengo hiru egunetan jasotako tratua berdintsua izan zen, beraiek nahi bezala deklaratu arte. Nola egin entsaiatzen genuen: eserita eta erabat biluzik jartzen ninduten eta zerbait gaizki esanez gero, ur hotza botzatzen zidaten, buruan kolpatzearekin batera. Hotz handia pasa nuen.

Irainak, umiliazioak eta mehatxuak etengabeak ziren: elektrodoak jarriko zizkidatela eta ama eta arreba atxilotuko zituztela zioten... beso bat apurtuko zidatela esanaz, bihurrituko zuten, izugarrizko mina eraginez. Hil egingo nindutela ere errepikatu ohi zidaten…Lehenego egun t'erdian ezin izan nuen atsedenik hartu; gero bai, baina gutxitan eta epe laburrean. Beraz, guztiz nekatua sentitzen nintzen. Gainera, denbora guztian kaputxa buruan eduki ninduten. Medikuak aldegin bezain laster hasten ziren berriz poltsarekin nahiz kolpe, zaplasteko eta mehatxuekin…

64 Aitor Sola Esteban

ADINA: 23 urte
SEXUA: G
ATXILOTZE DATA: 2001/11/29
ATXILOTZE LEKUA: Iruñea
ATXILOKETA MOTA: Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA: Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA: 5 egun
EPAITEGIA: J.C.I. Nº 1
EGOERA: Espetxeratua
SALAKETA: Jartzear

Madrilen, paperezko erroiluekin edo egunkariekin kolpatzen naute buruan, gero eta gogorrago eta sarriago. Behin eta berriro ezer ez dakidala esaten diedanez, batek poltsarekin hasteko esaten die gainontzekoei. Nik asma dudala eta ez egiteko diot, baina alferrik, eskuak aulki bati lotu eta lauzpabost aldiz egingo baitidate. Askatzea lortuko dut; eskuak eta hankak berriro lotuko dizkidate ordea, gomaespuma erabiliz markarik ez uzteko. Berriz hasiko dira poltsarekin;oraingoan, bi jartzen dizkidate. Bitartean, neskalagunaren oihuak entzun ditzaket... Zapatila eta galtzerdiak kendu eta plastikozko poltsa baten gainean zutik jartzera behartzen naute gero. Urarekin bustitzen dizkidate oinak. Jarraian, esku batekin kable bati heltzeko agindu eta beste eskuko hatzamar batean beste bat lotzen didate. Elektrodoak piztuko omen dituzte; gezurra da ordea. Buruz behera etzanarazten naute lurrean, prakarik gabe, hankak eta eskuak atzean gomaespumarekin lotu ahal izateko. Bat poltsarena egiten hasi zait ondoren, eta mugitu naizenez, gainontzekoei eusteko agintzen die haserre... Amesgaizto bat izan zen hura; izan ere, hil egingo nintzela uste nuen... pare bat alditan pistola bat jarri zidaten eskuetan...

Forentseak ikusi ninduen bigarren aldian, burua handituta neukan, ezin nuen begi bat ireki eta bestea berriz, ozta-ozta... ospitalera eraman behar nindutela esan zidan. Nik hasieran ez nuen nahi, neskalaguna bakarrik ez uztearren; joan ezean ikusmena gal omen nezakeen ordea... koartelera itzultzean, pastilak nahiz kremak eman eta izotz poltsak jarri nahi zizkidaten...

65 Leire Markina

ADINA: 21 urte
SEXUA: E
ATXILOTZE DATA: 2001/11/29
ATXILOTZE LEKUA: Iruñea
ATXILOKETA MOTA: Inkomunikatua
POLIZIA TALDEA: Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA: 5 egun
EPAITEGIA: J.C.I. Nº1
EGOERA: Espetxeratua
SALAKETA: Jartzear

Koartelera heltzeaz bat, ziegan sartu eta ordu luzez zutik egotera behartzen naute. Ahituta nagoela eta esertzeko baimena eskatzean, kokorikotan egon naitekeela esaten didate.

Madrilera bidean, nirekin doazen emakume biek jatorrarena egiten dute haseran; denbora aurrera joan ahala ostera, bestelako jarrera erakusten didate: mehatxuak, umiliazioak, ile teinkaketak, burukoak... botalarriak bi alditan erasotzen nau ondorioz, eta autoa geratu beharko dute.

Usain sarkor bat nabari dezaket Madrilera iristean; beldurrarena dela esanez, galdeketei ekiten diete. Hormaren kontra dagoen aulki batetan eserrarazi eta gero, akoltxatua den zerbaiteko kolpatzen didate burua. Poltsa eskuekin apurtzea lortu dudanez, eskuak nahiz hankak aulkiari lotuz jarraituko dute ni ito nahian. Bainera egin, elektrodoak jarri edo makila bat sartuko didatela diote... Jarraian, pistola bat hartzera behartzen naute, beste mehatxu bat asmatuz, nire hatz markez bete dudalako.

Bigarren itzulian, biluztu egiten naute, eta bide batez, baita makilaren mehatxua gogorarazi ere. Zenbaitetan, “himno nacional” delakoa hortzartean ozen kantatzeko agintzen didate. Halaber, ondoko gelatik datozen Aitorren garraisiak entzun ditzakedanez, barrabiletan zartadak ematen dizkiotela aipatzen dute; baita nire gurasoak atxilotuko dituztela ere. Burukoak eta mehatxuak behin eta berriz... Neure buruari zartadak ematera eta poltsa egitera behartzen naute. Bilutsik nago eta bortxa nazaketela diote “pero que no les doy morbo...”. Tarte batez zertxobait lasaitu ostean, berriro hasten dira oihuka, poltsa buruan dudala flexioak egiteko aginduz. Batzuk egindakoan, geratzeko esaten didate. Lehendabizi, euretako bat atzean jarri zait, brageta jeitsi duela entzuteko moduan. Gero, ipurdia eta bularrak igurtziz, zera diote: inork ez didala zakilik sartuko baina bai agian beste edozer.

Azkeneko egunetako tratu fisikoa ez da hain gogorra izango; asko presionatuko naute ordea. 8 kilo galduko ditut eta gartzelan lo egin ahal izateko, beharrezkoak zaizkit lasaigarriak.

Zigor Bravo

ADINA:	
SEXUA:	G
ATXILOTZE DATA:	2001/11/06
ATXILOTZE LEKUA:	Gasteiz.
ATXILOKETA MOTA:	Komunikatua
POLIZIA TALDEA:	Guardia Zibila
ATXILOKETA DENBORA:	Ordu batzu
EPAITEGIA:	J.C.I.Nº1
EGOERA:	Espetxeratua
SALAKETA:	Jartzear

Lehen galderak egiten zizkidaten bitartean, buruan esku ahurrekin kolpatzen hasi ziren, tipo gogorra nintzela uste banuen ere, bertan egongo nintzen bost egunetan ni biguntzeko denbora izango zutela esanez. Buruan liburu lodiren batekin, telefono-gidaren bat beharbada, jotzen ninduten gero. Aldi berean, nire neskalaguna atxilotu zutela eta kolaboratu ezean, zer egiten zioten ikusi ahal izango nuela errepikatzen zidaten. Ondoren, poltsa hartu zuten, atzetik jarri eta estutuz. Behin, bi polizien artean heldu behar izan ninduten, lurrera eror ez nendin. Bospasei aldiz errepikatu zuten poltsarena, neskalaguna zein egoeretan uzten ari ziren ikusi nahi al nuen galdetuz.

Beranduago, auto batean sartu ninduten kaputxarekin, geratu, jaitsiarazi eta tiro ematearekin mehatxatzeko segidan. Buruan kolpatzen jarraitzen zuten eta beste pare bat aldiz ere geratu zen autoa bidetik atera ondoren. Kasu hauetan ordea, ez zidaten jeisteko agindu.

Madrilera heldu bezain laster, galderak polizia onaren papera egiten zuen emakume batek egiten zizkidan aurrena. Gero aldiz, oihuka eta kolpeka hartzen ninduen gizon batengana eramaten ninduten. Mehatxuak gainera, ez ziren atertzen...

Patio batetara atera ninduen guardia zibil berri bat etorri zen ondoren. Honek eman zizkidan buruan kolpe bortitzenak esku ahurrekin eta etengabe oihuka ziharduen. Belaunikatzeko agindu zidan eta “me vas a comer la polla pero como me la muerdas te pego un tiro” esaten zidan bitartean, brageta nola jaisten zuen entzuten nuen. Negarrez hasi nintzen ...

TORTURA METODOAK

Torturaz mintzo garenean pertsona bati eragiten zaizkion sufrimendu latzez dihardugu. Sufrimendu fisikoak nahiz psikologikoak izan daitezke, funtzionari publiko batek edota funtzio publikoetan ari denak eragindakoak. Torturaren bidez lortu nahi diren helburuak desberdinak dira:

1. Torturatua izan den pertsonaren edo beste baten erruduntasuna frogatzeko informazioa lortzea. Garrantzitsuena froga lortzea da, egiazkoa ala gezurrezkoa izateak berdin duelarik.
2. Egin duenagatik, edo ustez egin duenagatik torturatua izan den pertsona zigortzea.
3. Torturatua den pertsona uzkurtzea eta izutzea, eta bildurra hedatu eta gizarte osoa geldiaraztea.
4. Torturak bereziki nortasuna suntsitzea dakar, giza duintasunaren ukapena, gizabanakoaren nortasunaren desintegrazioa du helburu. Luzera, bere ondorioak fisikoak baino gehiago psikologikoak dira.

Tortura metodoak zientifikoki aztertuak izan dira jarritako helburuak eraginkortasun handiagoz lortzeko. Torturaren esperientziak nortasuna bera zalantzan jartzea lortzen du, ez baitu torturatuaren nortasuna bakarrik erasotzen, talde bateko partaide

izatea ere erasotzen du (lagun kolektiboa, familia, gizartea...). Tortura metodoak eta atxiloketa prozesu guztia helburu hau lortzera zuzenduta daude.

Tortura metodoak urtez urte aldatzen joan dira. Gaur egun modu sofistikatuagoak erabiltzen dira, gorputzean aztarnak ez uztera bideratuak. Teknika psikologikoak geroz eta gehiago erabiltzen dira.

Tortura metodoak bi eratara sailkatu izan dira, fisikoak eta psikologikoak. Lehenak metodo fisikoak erabiliz min fisikoa eragiten dutenak dira, neke fisiko bizia, berehalako heriotza ikustea, asfixia, ... Metodo psikologikoak, eraso fisikorik gabe, pertsonaren egoera psikologikoa asaldatzea eragiten dutenak dira. Horregatik tortura psikologikoaren teknika askoz eraginkorragoa da, torturatua nahasmen osora eramaten baitute, nahi dutena lortuz. Hala ere, oinaze fisiko guztiek psikologikoa ere badakartela, eta tortura metodo asko konbinatuak izan daitezkeela ere kontutan hartu behar da. Gaur egun, tortura metodo erabilienak hauek dira, kaltetuek TAT-eri kontatu diotenaren arabera:

1. Metodo fisikoak:

a) **Kolpeak**. Metodorik erabiliena da. Gorputz atal bakoitza kolpatzeko instrumentu desberdina erabiltzen da; eskua, porrak, telefono gidak, egunkari kiribilduak, makilak,... Kolpatzen diren atalak ere desberdinak dira: burua, aurpegia, eztarria, saihetsak, genitalak, ...

Aitor Solak, bere testigantzarekin batera igorritako marrazkia



b) **Tortura elektrikoa**. Gorputzaren atal sentiberetan deskarga elektrikoak aplikatzen dira: adegiak, bularra, barrabilak, zakila, belarriak, inglea,...

c) **Asfixia eragiten duten teknikak**. Denbora konkretu batez oxigenoa kentzea, ezagutza galtzera iritsi arte. Herio sentimenduarekin nabarmentzen da. Sarritan plastiko poltsa bat erabiltzen da.

d) **Akidura, neke fisikoa eragiten duten teknikak**. Zutik eta ezeri eusteko aukerarik gabe luzaroan egotea behartzen dituzte, zangoak tolestuta, ariketa fisikoak egitera behartu leher egin arte (flexioak, abdominalak,...), posizio zailenetan egotera behartu...

2. Metodo psikologikoak:

e) **Zentzumenen manipulazioa:** ikusmena galarazten diote txano batekin, mozorro batekin; begiak itxita egotera behartu edo burua makurturik lurrera begiratzera, atxilotua torturak entzun edo ikustera behartu, drogen erabilera, argia pizturik mantendu...

f) **Oinarrizko gauzak murriztea edo kentzea:** jatea, edatea, loa, garbitasuna...

g) **Mehatxuak:** Torturatuaren kontra (hiltzeko mehatxuak, "bigarren fase batera pasatzea", gehiago torturatuko dutela mehatxatzea...); familiaren kontra (hurbileko jendearen atxilotzea, torturatzea); lagunen kontra...

h) **Apalkuntzak, irainak, deskalifikazioak:** himno faxistak kantatzera behartzea, atxiloketa burutu duen polizia taldeari "biba"-ka ekitea, apalkuntza sexualak, "ze kiratsa darion"...

i) **Polizia ona polizia gaiztoa**

j) **Galdeketa luze eta etengabeak.**

k) **Tortura metodoen artean aukeraketa egin beharra**, torturari buruz mintzatzera behartu...

l) **Tortura sexuala**, ahozkoa izan daiteke (mehatxuak, irainak, bortxatuko dutenaren mehatxuak), sexu-organoen aurkako erasoa (kolpeak, elektrodoak), biluzik jartzera behartu, ukitu...

m) **Imaginaziora helegitea:** "hitzik egiten ez baduzu ziegara eramango zaitugu eta gero itzuliko gara", torturatua gero gertatuko denarekin nahastuta utziz.

n) **Errudun sentimenduak sortzea:** "familia suntsitu duzu"...

o) **Tortura-simulazioak** atxilotuari kableak eman elektrodoak aplikatuko dizkiotela esanez, buruan poltsa ezarri itolarria eragitera iritsi gabe..., **exekuzio-simulazioak**...

p) **Atxilotua torturak jasaten ari diren beste atxilotuen oihuak entzutera behartu.**

Aitor Solak, bere testigantzarekin batera igorritako marrazkia

Nahiz eta erabiltzen diren metodoak fisikoak edo psikologikoak izan, ezin dira bereizi, biak batean aplikatzen baitira. Pertsona baten kontra fisikoki grinatzen direnean, ez dute tortura psikologikoa ezabatzen, biak aldi berean erabiltzen dituzte, pertsona honi eragindako minak defentsak galtzea suposatzen baitu, bai fisikoak nahiz psikikoak. Tortura fisiko guztiek daramate tortura psikologiko osagarria. Gainera, pertsona bakarrean tortura teknika desberdinak erabiltzen dira aldi berean.

TORTURA METODOAK GORPU POLIZIALEN ARABERA

Polizia talde bakoitzak erabiltzen dituen tortura metodoak ikertzerakoan, atxilotuak eta torturatuak izan direnen testigantzak izan ditugu kontutan; 2001. urtean atxilotuak izan diren 73 pertsonen testigantzak jaso ditugu (52 gizonezko eta 21 emakumezko). Hauetako batzuen testigantza txosten honetan egin dugu publiko, eta beste batzuena iritsi zaigu baina ez dute publiko egin nahi izan agerikoak diren arrazoiengatik.

Testigantzak polizia talde ezberdinen (Ertzaintza, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila), torturatuak izan direnen sexu eta tortura metodoen arabera sailkatu ditugu.

ERTZAINTZA

Ertzaintzak gehien erabiltzen duen tortura bidea psikologikoa da, tortura fisikorik gabe, tortura psikologikoa jasan dutenen kasu ugari dira jaso ditugunak. Hala ere, kasuen erdian bi tortura bideak erabili dituzte.

Ertzaintzak erabiltzen dituen metodo fisiko erabilienen artean hauek azpimarratuko genituzke: bultzadak, tortura fisikoen autoadministrazioa (ariketa fisiko gogorrak egitera edota posizio zailetan egotera behartzen dituzte), kolpe murriztuak esku irekiaz (batez ere beldurra eragiteko. Kolpearen intentsitatea baino gehiago kolpatutako lekuan mina sortzea helburu dutenak).

Metodo psikologikoen artean erabilienak: mehatxuak (familiarekin, Guardia Zibilaren eskuetan uztearekin, torturatzearekin...), mesprezuak, oihuak, loa eragotzi edo eta atseden hartzea, ikusmena eragotzi (atxilotua begiak itxita edo lurrera begira egotera behartuz).

POLIZIA NAZIONALA

Polizia Nazionalak atxilotu dituztenen testigantzak irakurrita Ertzaintzak erabiltzen dituen tortura metodoekin aldeak badira. Tortura psikologikoa emakumezkoen %50ek jasan du. Gizonezkoen kasuan portzentaia %25era murrizten da. Emakumezkoen %50ak tortura fisikoak nahiz psikikoak jasan ditu eta gizonezkoen kasuan %75era igotzen da portzentaia.

Polizia Nazionalak erabiltzen dituen metodo psikologiko erabilienen artean hauek azpimarra ditzakegu: **mehatxuak**, **umilazioak**, **loa eragoztea**, **gertukoen erabilpena** (atxilotu egingo dituztela mehatxatuz), **beste atxilotuen oihuak entzutera behartu**, **torturaz hitz egin** (galdeketetan tortura metodoei buruz hitz egin), **biluztu**, **ikusmena eragotzi**...

Eta metodo fisiko erabilienak honako hauek dira: **kolpeak** (eskuekin, liburu edo telefono gidekin. Eta kolpe gehien jasotzen duten gorputz atalak burua, genitalak, sabela, bularra... dira), **ileetatik tira**, **tortura fisikoaren autoadministrazioa** (ariketa fisiko gogorrak egitera edota posizio zailetan egotera behartzen dituzte...).

GUARDIA ZIBILA

Polizia talde hau bere ankerkeriagatik da ezaguna, iritsi zaizkigun testigantzetan ikusi ahal izan dugun bezala. Emakume bakar baten kasua ezagutzen dugu, tortura fisikorik erabili gabe, metodo psikologikoak bakarrik erabili dituztena. Gainontzeko kasu guztietan bi tortura moduak erabili dituzte, fisikoak eta psikologikoak.

Guardia Zibilak erabilitako metodo psikologikoen artean nabarmentzen direnak: **ikusmena eragoztea** (lehendabiziko unetik atxilotuei begiak estaltzen dizkiete, mozorroz edo txanoz), **mehatxuak**, **irainak**, **ukipen bidezko tortura sexuala** (atxilotuak emakumezkoak direnean areagotzen direnak), **biluztea**, **erabiliko duten tortura metodoa berarekin aukeratzea**, **loa eragoztea**, **kolabora dezan eskatzea**...

Metodo fisiko aipagarrienak: **kolpeak** (tresna ezberdinekin emandako kolpeak, liburuekin, makilekin, pistola kulatarekin...), **poltsa jarrita asfixia sortzea**, **elektrodoak** (belarrietan, genitaletan, sabelean, adegietan, lepoan,...), **ariketa fisiko gogorrek eragindako neke itzela** (flexioak, luzaroan zutik egon beharra...), **atxilotuak ur hotzez bustitzea**.

Aitor Solak, bere testigantzarekin batera igorritako marrazkia

SALAKETEN EGOERA

Atal honetan torturatuak izan diren pertsonak eta TAT-ek jurisdikzio ordinarioetan ezarritako salaketen eboluzioa azalduko da.

2001. urtean hasitako publikazio lanari jarraiki (TORTURA EUSKAL HERRIAN. 2000 TXOSTENA liburuaren argitalpena), lehenengo zatian 2000. urteari buruzko txostena osatuko dugu, urte horretan zehar torturak jasan dituen ororen salaketek izan duten garapena gehituz.

Atal honen bigarren zatian 2001. urtean aurkeztutako salaketen berri emango dugu eta txosten hau egitean dauden egoeraren berri ere emango da. Informazio osagarria eskuratu nahi izan ezkero, jarri gurekin harremanetan.

Euskaraz daukazu bertsio honetarako gaztelerazkoarekiko aldaketatxo batzu izan dira. Bi asteren tartean epaitegietan salaketa gehiago tarteratu izan dira eta testigantzen atalean hoien berriztapena egin dugu. Horregaitik, agian, nahiz eta testigantzen atalean salaketa ezarritzat eman, salaketen atalean batzuen berri ez duzu aurkituko. Hurrengo urteko txostenean emango dizugu horren berri.

2000 URTEA

1 IZARO LOPEZ BIDAGUREN

EZARTE DATA: 2000ko otsailaren 25ean
EPAITEGIA: Biboko 6. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D..550/00.
ABOKATUAK: Begoña de la Cal, Arantza Zulueta, Aintzane Ayastui
EGOERA: Erreforma eta sorosgarri helegitea tarteratzen dira. Erreforma arbuiatzen da eta apelazio onartu. Apelazio bozketatzen da eta artxibatzen da. ARTXIBATUA

2 JON URRETABIZKAIA SAUQUILLO

EZARTE DATA: 2000ko otsailaren 25an.
EPAITEGIA: Bilboko 7. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 733/00.
ABOKATUAK: Begoña de la Cal, Arantza Zulueta, Aintzane Ayastui
EGOERA: Sobresimenduzko autoaren kontra erreforma eta sorosgarrihelegitea aurkeztua. 00/12/20 data. Erreformakoa atzera botata eta apelazioaren zai.

3 JULEN URIARTE ITURRIAGA

EZARTE DATA: 2000ko martxoaren 7an.
EPAITEGIA: Bilboko 3.A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 703/00.
ABOKATUAK: Begoña de la Cal, Arantza Zulueta, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Erreforma helegitea eta sorosgarri apelazio tartekatzen dira kausaren bertan behera uztearen eta artxiboaren kontra. Erreforma errekurtsoa arbuiatuta eta apelazio onartuz. Apelazio bozketatzen da eta artxibatzen da. ARTXIBATUA. 00/12/16 data.

4 MIKEL ARRIETA LLOPIS

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8an.
EPAITEGIA: Donostiako. 1 .A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.2586/00. Madrileko.10.A. E. inhibituta. A.D.1266/00.
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui, Arantza Zulueta, Iñaki Goioaga.
EGOERA: Sobreseinduzko autoaren kontra erreforma eta sorosgarri helegitea tartekatua.

5 JOSU GOTZON LARREA ELORRIAGA

EZARTE DATA: 00/07/21
EPAITEGIA: Madrileko 9. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 5935/00
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui.
EGOERA: Diligentzi polizialak. 01/04/9 data.

6 MIKEL LUJANBIO

EZARTE DATA: 00/06/25
EPAITEGIA: Donostiako 3. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.:
ABOKATUAK: Zigor Reizabak, Aintzane Ayastui.
EGOERA: ARTXIBATUA.

7 GARIKOITZ GASTESI

EZARTE DATA: 2000ko maiatzaren 26ean.
EPAITEGIA: Donostiako.2.A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 1266/00
ABOKATUAK: Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Aitor Ibero,Aintzane Ayastui.
EGOERA: Sobreseimenduzko autoaren kontra erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztuta. Biak atzera botata. ARTXIBATUA

8 EGOITZ URBE

EZARTE DATA: 2000ko maitzaren 25ean
EPAITEGIA: Donostiako 2. A.E
DILIJENTZI ZKIA.: A.D 1259/00
ABOKATUAK: Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Aitor Ibero, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Sobreseimenduzko autoaren kontra erreforma helegitea eta sorosgarri apelazioa tarteratu dira.Biak atzera botata salaketa artxibatua. ARTXIBATUA

9 MIKEL OSTOLAZA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 3. A.E
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.2687/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Ainhoa Baglieto, Zigor Reizabal, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Probidentzia pertsonatutzat eta salaketaren itzulpenaz. 00/11/24 data. Probidentzia testimonioa eskatuz E.Nri. 00/12/15 data. Probidentzia Ertzantzari komunikazio bat elkartuaz.01/02/28 data. Autoa sobreseimenduzkoa. 01/04/30 data.

10 JOKIN SOLANO SALABERRIA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3089/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Ainhoa Baglieto, Zigor Reizabal. Joseba Agudo, Iñigo Elkoro, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Probidentzia exhortoa eskatuaz. 01/01/16 data. Auto dilijentzien artxiboa aginduaz helegitea. 01/04/06 data.Probidentzia helegitea ezarritzat. 01/04/23

11 INAKI MINER CANFLACA

EZARTE DATA: 2000eko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3099/00
ABOKATUAK: Zigor Reizabal,Iñigo Elkoro, Ainhoa Baglieto, Joseba Agudo, Aitor Ibero, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Autoa aurredilijentziak irekiaz eta itzulpenaz. 01/11/25 data. Probidentzia exhortoa igorriaz Madrilera. 01/01/09 data. Autoa sobreseimenduzkoa helegitea.01/04/24 data. Probidentzia helgiteaz. 01/05/04 data.

12 UNAI KIJERA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3087/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero,Ainhoa Baglieto, Zigor Reizabal, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Probidentzia proposamena izendatutzat eta exhortoa igorriz. 01/01/12 data. Autoa sobreseimenduzkoa. 01/04/09 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea. 01/04/18 data. Probidentzia helegitea ezarritzat. 01/05/02 data.

13 AHILETZ ZULOAGA LARREA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3086/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Autoa aurre dilijentziak irekiaz eta itzulpenaz.01/11/25 data. Probidentzia exhortoa igorriaz Madrilera. 01/01/10 data. Autoa dilijentzien sobreseimenduzkoa. 01/04/06 data. Probidentzia helegitea ezarritzat. 01/04/23 data.

14 INAKI GURRUTXAGA RAFAEL

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3095/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Autoa aurre dilijentziak irekiaz eta itzulpenaz.00/11/25 data. Probidentzia exhortoaz.01/01/09.data Auto sobreseimenduzkoa helegituta.01/04/24.data.

15 IMANOL GORROTXATEGI

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3092/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Aurre dilijentzien autoa eta itzulpena.00/11/25 data. data. Auto sobreseimenduzkoa helegitua.01/04/24. data.

16 ANGEL TELLERIA LUJANBIO

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3093/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero,Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Probidentzia izendatutzat eta exhortoa igorriaz.01/01/12.data. Auto sobreseimenduzkoa.01/02/12.data. Helegitea.01/04/24data. Probidentzia helegiteaz.01/05/02.data.

17 URTZI AIRA URRUZOLA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3090/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Aurre dilijentziak irekiaz eta itzulpenaz. 00/11/25 data Probidentzia exhortoa igorriaz E.Nera txosten medikuak eskatuaz. 01/01/10.data. Auto sobreseimenduzkoa helegitua. 01/04/06.data Probidentzia aktuazioak M.Fri.01/04/23.data.

18 JON GASAMANES

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3091/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Autoa aurre dilijentziak irekiaz eta itzulpenaz. 00/11/25 data Autoa artxibozkoa helegitua.01/04/24 data Probidentzia proposamena helegituaz.01/05/03 data

19 GOTZON ARANBURU

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3085/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto,Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Autoa aurredilentziak irekiz eta itzulpena eskatuz 00/11/25 data Exhortoa E. N. igorriaz 01/01/09.data. Autoa artxibozkoa helegitea.01/04/24.data.

20 INAKI LORENZO QUINTELA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an.
EPAITEGIA: Donostiako 4. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3096/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Ainhoa,Baglieto, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Sobreseimenduzko autoa. 01/04/05.data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztuta..01/04/23 data.

21 ENEKO ALONSO

EZARTE DATA: 2000ko maiatzaren 8an
EPAITEGIA: Donostiako 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 1196/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro.
EGOERA: Autoa sobreseimenduzkoa 00/10/06 data. Sobreseimenduzko autoaren kontrako erreforma helegitea. 00/10/26 data Zitazioa berarentzat. 00/11/02 data Probidentzia ertzainen deklarazioa ezarritzat eta ertzainen erantzuna atxiloketan parte hartu zuten ertzainak zehaztuaz. Probidentzia ertzainak izendatutzat. 01/02/12 data Autoa sobreseimenduzkoa. Erreforma eta apelazioa helegitea. Erreforma helegitea atzera botaz, eta apelazioa errekurtsoa onartuta.01/06/07 data.

22 XABIER ZUNIGA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2720/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Auto artxiboarena. 01/01/12 data. Helegitea artxiboaren kontra. 01/01/17 data. Helegitea atzera botatzen da.01/02/06 data. ARTXIBATUA.

23 IRATXE APAOLAZA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 3. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2680/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Ainhoa Baglieto, Aintzane Ayastui.
EGOERA: E.N.era ofizioa.01/01/17 data. Auto sobreseimenduzkoa.01/04/14 data. Erreforma eta sorosgarri apelazio helegitea aurkezten da. 01/04/30 data.

24 JOKIN APEZETXEA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Iruñako 2.. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2721/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, Zigor Reizabal, Ainhoa Baglieto, Iñigo Elkoro, Joseba Agudo, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Probidentzia Madrilera txosten medikuak eskatuz. 01/01/17 data. Autoa sobreseimenduzkoa helegitua.01/04/14 data. Erreformako helegitea atzera botatzen da.01/04/30 data.

25 IKER INIGO

EZARTE DATA: 2000ko abuztuaren 31an.
EPAITEGIA: Iruñako 1.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.9307/00
ABOKATUAK: Amaia Izko.
EGOERA: Ofizioa E.N.era. Autoa sobreseimenduzkoa. 00/07/23 data. Helegitea aurkeztuta. 00/08/08 data. Helegitea atzera botatzen da. 01/06/08 data. ARTXIBATUA. 01/06/08 data.

26 AITOR DOMEZAIN ARTOLA

EZARTE DATA: 2000ko urriaren 24ean.
EPAITEGIA: Donostiako1. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3086/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto.
EGOERA: Deklarazio polizialak Auto sobresimenduzkoa. Erreforma eta sorosgarri apelazio helegitea aurkeztuta. 01/02/29 data
Biak atzera botatzen dira. ARTXIBATUA. 01/06/28 data.

27 LARTAUN RODRIGUEZ ALDANONDO

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8an.
EPAITEGIA: Donostiako 1. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.3086/00
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui, Ainhoa Baglieto, Aitor Ibero.
EGOERA: Deklarazio polizialak. Auto sobresimenduzkoa. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztuta. 01/05/29 data. Biak atzera botata. ARTXIBATUA. 01/06/08 data.

28 AITOR ABANDA PAGOLA

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8an.
EPAITEGIA: Donostiako. 5.A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.6089/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto, Aitor Ibero, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Madrilera 29.A.E. inhibituta
Txosten medikuak.

29 GARIKOITZ MENDIZABAL

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8an.
EPAITEGIA: Donostiako 5. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2472/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto, Aintzane Ayastui, Aitor Ibero.
EGOERA: Madrilera inhibituta 4. A.E. A.D. 1539/01

30 JOXEAN ASTIGARRAGA

EZARTE DATA: 2000ko urriaren 3an
EPAITEGIA: Donostiako 1. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2914/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto, Aintzane Ayastui, Aitor Ibero.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa.00/11/10 data.
Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztuta. 00/12/18data.
Biak atzera botata. 01/02/19data.
ARTXIBATUA. 01/03/10 data.

GORKA IRURETAGOIENA MUJIKA

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 7an
EPAITEGIA: Donostiako 1. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3184/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero, aintzane Ayastui, Ainhoa Baglieto.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa.
Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua.
Biak atzera botata.
ARTXIBATUA. 01/06/28 data.

GAIZKA GARCIA URBIETA

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 22an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 1756/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa.
Erreforma eta sorosgarri apelazio helegitea aurkeztua. 01/03/01 data
Erabakiaren zain.

LEIRE MARTINEZ PEREZ

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8an.
EPAITEGIA: Durangoko 2. A E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.0963/00
ABOKATUAK: Arantza Zulueta, IñakiGoioaga, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Madrilera 16.A.E. Inhibizioa. A.D.5674/00
Auto sobreseimenduzkoa.
Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztuta.

AITOR LORENTE

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 6an.
EPAITEGIA: Bilboko 1. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2501/00
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui, Arantza, Zulueta, Iñaki Goioaga.
EGOERA: Zaragozako5. A.E.A.D. 3768/00 Auto sobreseimenduzkoa. 00/12/15 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua. 01/02/23 data. Biak atzera botata. 01/09/03 data. ARTXIBATUA. 01/09/03 data.

JON KARRO

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 29an.
EPAITEGIA: Bilboko 9 AE.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.2768/00
ABOKATUAK: Arantza Zulueta, Iñaki Goioaga, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa. 01/01/11 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztuta. 01/01/18 data. Biak atzera botata. ARTXIBATUA. 01/06/25 data.

OSKAR AMARO

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 29an.
EPAITEGIA: Bilboko 7.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2886/00
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui, Arantza Zulueta, Iñaki Goioaga.
EGOERA: Autoa sobreseimenduzkoa.00/12/26 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua.00/12/28 data. Biak atzera botata. ARTXIBATUA. 01/06/08 data.

37 ENEKO ZESTAU ARANIBAR

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8 an.
EPAITEGIA: Iruñako 3 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.5369/00
ABOKATUAK: Amaia Izko.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa.01/01/16 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua. Biak atzera botata. ARTXIBATUA. 01/11/25 data.

38 XABIER RESANO ARANIBAR

EZARTE DATA: 2000ko irailaren 8an.
EPAITEGIA: Iruñako3.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.4741/00
ABOKATUAK: Amaia Izko.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa. 01/01/16 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua. Biak atzera botata. ARTXIBATUA. 01/11/15 data.

39 IBON BELOKI ORTUZAR

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 23an.
EPAITEGIA: Durangoko 3. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 1038/00
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui, Arantza Zulueta, Iñaki Goioaga.
EGOERA: Bilboko.4. A.E. Inhibituta.A.D. 2819/00. 00/11/29 data. Sobreseimenduzko autoa notifikatuta. 01/05/10 data.

40 GORKA URTEAGA ARDOIA

EZARTE DATA:
EPAITEGIA: Madrileko 27. A.E..
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. nº 1309/00
ABOKATUAK: Amaia Izko.
EGOERA: Presondegiko sendagilearen txostenen zai. Mediku forensearen deklarazioa. Sobreseimenduzko autoa. 01/10/26 data. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua. 01/11/08 data. Erreformakoa atzera botatzen da eta apelaziokoaren zai. 01/12/14.data

41 JUAN TRECET SASTRE

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 22an.
EPAITEGIA: Donostiako 1. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2883/00
ABOKATUAK: Aitor Ibero.
EGOERA: Madrilera 6.A.E.A.D.191/99.inihibituta. 01/01/09 data. Itzultzen da Donostiako1.A.E..A.D.2883/00, bertan metatuz.01/02/16 data.

42 AMAIA PASCUAL

EZARTE DATA: 2000ko azaroaren 23an.
EPAITEGIA: Donostiako. 1 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 3280/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto, Aitor Ibero, Iñigo Elkoro, Zigor Reizabal, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua.

JON IGOR SOLANA

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren21an.
EPAITEGIA: Bilboko7. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.3562/00
ABOKATUAK: Arantza Zulueta.
EGOERA: Sevillara inihibizioa.A.D.3678/01. Sobresiemenduzko autoa. 01/08/13 data. Erreforma eta sorosgarri apelazioa helegitea aurkeztua. 01/09/10 data

HARRIET IRAGI

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 21ean.
EPAITEGIA: Bilboko. 8.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.3345/00
ABOKATUAK: Arantza Zulueta, Iñaki Goioaga, Aintzane Ayastui.
EGOERA: Sevillara inihibizioa. 11. A.E.A.D. 205/01 00/12/21 data. Exhortoa E.N.era txosten medikuak eskatuz.

IBON MUNOA

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 15ean.
EPAITEGIA: Donostiako 3 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 135/00
ABOKATUAK: Ainhoa Baglieto, Aitor Ibero, Zigor Reizabal. Iñigo Elkoro, Joseba Agudo Aintzane Ayastui.
EGOERA: Madrilera inihibituta. 01/05/10 data.

MIKEL ZULUAGA

EZARTE DATA: 2000ko Abenduaren, 15ean.
EPAITEGIA: Bilboko. 8.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.479/01.
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui.
EGOERA: Auto sobreseimenduzkoa. Erreforma eta sorosgarri helegitea aurkeztua.

VICTOR GONI

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Gasteizko 3 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.3305/00.
ABOKATUAK: Iñigo Elkoro, Juan Carlos Ioldi.
EGOERA: Madrilera 6.A.E. inihibituta. A.D. 3940/01.01/01/07 data. Txosten medikuak. 01/04/04 data. Poliziari exhortoa. 01/06/29 data. Abokatu eta forenseen deklarazioa. 01/09/12 data.

NEREA GARRO

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 29an.
EPAITEGIA: Donostiako. 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.5/01.
ABOKATUAK: Zigor Reizabal, Joseba Agudo.
EGOERA: Madrilera 6. A.E. A.D. 210/01. E.N. ofizioa txoten medikuak eskatuz. 01/05/29 data. Auto sobreseimenduzkoa. Erreforma eta sorosgarri apelazio helegitea aurkeztua..01/09/04 data

ASIER KARRERA

EZARTE DATA:
EPAITEGIA: Bilboko.5.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.1072/01.
ABOKATUAK:
EGOERA: Sobreimenduzko autoa.Erreforma eta sorosgarri apelazio helegitea aurkeztua.

IGOR MARTINEZ DE OSABA

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Gasteizko. 3 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 251/01
ABOKATUAK:
EGOERA: Sobreseimenduzko autoa. 01/05/02 data. Erreforma eta sorosgarri apelazioa helegitea aurkeztua. Erreformakoa atzera botata.

ROBERTO EZIOLAZA

EZARTE DATA: 2001ko urtarrilaren 26ean
EPAITEGIA: Gasteizko 1 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 295/01.
ABOKATUAK:
EGOERA: Navalcarnerora ofizioa 01/05/23 data.

ASIER URRETABIZKAIA

EZARTE DATA: 2000ko abenduaren 29an.
EPAITEGIA: Donostiako. 2. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 349/00
ABOKATUAK: Aintzane Ayastui.
EGOERA: Madrilera.6.A.E.Inhibituta. 01/01/04 data.

2001 URTEA

1 JOSE RAMON RAMADA ESTEVEZ

EZARTE DATA: 2001ko Ekainaren 6ean
EPAITEGIA: Donostiako 1. Argipide Epaitegia. Madrilera inhibizioa 8. Argipide Epaitegira. 01/05/14. data.
DILIJENTZI ZKIA.: AD.2682/01
EGOERA: Pertsonazioa Madrilen. Txostenak itzultzaileen bulegora bidalita.

2 INAKI KRUTZAGA

EZARTE DATA: 2001ko uztailaren 26ean
EPAITEGIA: Bilboko 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

3 LIERNI ARMENDARIZ GONZALEZ DE LANGARIKA

EZARTE DATA: 2001ko apirilaren 5ean
EPAITEGIA: Donostiako 1. A.E. Inibizioa Bartzelonako 26. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 1557/01
EGOERA: Pertsonazioa eta berrespena. Txosten medikuak eta Exhortoak Madrilera.

4 NEREA GOIKOETXEA GASTESI

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 2an
EPAITEGIA: Donostiako. 5.A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2691/01.
EGOERA: Madrileko A.E.Dekanoa. 01/11/13 data.

5 OLATZ GALARRAGA FRAILE

EZARTE DATA: 2001ko -urriaren 2an.
EPAITEGIA: Donostiako 3. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2765/01.
EGOERA: Madrilera exhortoa txostenak eta Guardia Civilen identifikazioa eskatuz. 01/10/25 data.

6 JOSE MANUEL ZUBILLAGA

EZARTE DATA: 2001ko apirilaren 4ean.
EPAITEGIA: Iruñako 1 A. E. Madrilera inibizioa 33. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: 5291/01. 01/06/26 data.
EGOERA: Salaketaren berrespena eta abokatuaren izendapena. 02/01/15.data.

7 PEIO GOIKOETXEA

EZARTE DATA: 2001ko apirilaren 4ean.
EPAITEGIA: Iruñako 1. A. E. Madrilera Inibizioa. 42 . A.E. 01/06/26 data.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 4232/01.
EGOERA: Berrespena eta exhortoa Madrilera. 01/10/15 data

8 ENAUT LERMA

EZARTE DATA: 2001ko maiatzaren 22an.
EPAITEGIA: Donostiako 3.. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: 1282/01.
EGOERA: Erreforma eta sorosgarri Apelazio helegitea. 01/12/13 data.

9 LEIRE GALLASTEGI

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 3an
EPAITEGIA: Donostiako 3. A. E. Madrilera inibizioa 43. A. E. 01/04/19 data.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 857/01
EGOERA: Atestatuaren eskaera. 01/06/12 data.

10 JON ZUBIAURRE AGIRRE

EZARTE DATA: 2001ko apirilaren 4ean.
EPAITEGIA: Donostiako 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.674/01
EGOERA: Erreforma errekurtsoa, eta sorosgarria apelazio errekurtsoa tarteratzen dira, kausaren bertan behera uztearen eta artxiboaren kontra. 01/11/01.data.

11 ASIER GARCIA

EZARTE DATA: 2001ko ekainaren 4ean.
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E
DILIJENTZI ZKIA.: 2046/01
EGOERA: Exhortoa Madrilera txosten medikuak eskatuz. 01/08/07. data

12 ZIGOR GOIKOETXEA

EZARTE DATA: 2001eko ekainaren 14ean
EPAITEGIA: Bilboko 3. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: 1537/01
EGOERA: Sobreseimenduzko autoa 01/07/12 data. Erreforma errekurtso, eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tartekatzen dira. 01/07/20 data.

13 URTZI MURUETA

EZARTE DATA: 2001eko ekainaren 8an
EPAITEGIA: Bilboko 10. A. E. Madrilera 10.A.E.01/10/23data.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 3758/01
EGOERA:

14 URTZI PAUL

EZARTE DATA: 2001eko ekainaren 8an
EPAITEGIA: Bilboko 9. A. E . Inhibizioa Getxoko 2. A.E. 01/06/22data.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 722/01
EGOERA: Pertsonatua, deklarazioa, exhortoa txosten medikuak eskatuz. 01/11/29data

15 JORGE DEL CAMPO

EZARTE DATA: 2001eko ekainaren 8an
EPAITEGIA: Bilboko 1. A. E. Inhibizioa Madrileko 2. A.E
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 5405/01
EGOERA: Exhortoa Getxon deklaratu dezan. 01/06/26 data.

16 IMANOL LARRAÑAGA

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 28an
EPAITEGIA: Iruñeako 1. A.E. Inhibizioa Madrileko 28. A.E. 01/06/26 data
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 4292/01
EGOERA: Pertsonamentua eta deklarazioa. 01/07/31 data.

17 JOSE ANGEL ALTZUGUREN

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 28an
EPAITEGIA: Iruñeako 1. A.E. Inhibizioa Madrileko 14. A. E. 01/06/26 data
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 5578/01
EGOERA: Pertsonamentua eta ofizioa Guardia Civileei identifikaziorako. Txosten medikuak. 01/10/26 data.

18 EIDER PEREZ

EZARTE DATA: 2001eko ekainaren 13an
EPAITEGIA: Donostiako 1. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 1642/01..
EGOERA: Txostenen eskaera. 01/07/9 data Presondegiko txosten medikua: 01/07/20 Guardia civilen deklarazioak. 02/01/15 eta 02/01/17

19 AITOR OLAIZOLA

EZARTE DATA: 2001eko maiatzaren 15ean
EPAITEGIA: Donostiako 4. A. E. Inhibizioa Madrileko 15. A.E.01/06/1 data
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 503/01
EGOERA: Txosten medikuen eskaera.

20 ALICIA SÁEZ DE LA CUESTA

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 25ean
EPAITEGIA: 1. A.E. Inhibizioa Madrileko 16. A.E.01/05/07data.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 2745/01
EGOERA: Ofizioa Guardia Civilari identifikatu ditzan. 01/12/01data. Presondegiko txosten medikua: 01/03/30 data

21 AINARA FRESNEDA

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 28an
EPAITEGIA: Iruñeako 1. A. E. Inhibizioa Madrileko 12. A. E. 01/06/26 data.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 4197/01
EGOERA: Exhortoa salaketa berresteko. 01/09/24 data. Sobreseimeduzko autoa 01/11/19 data. Erreforma eta sorosgarri apelazioko helegitea: 01/11/26 data

22 IRATXE SORZABAL DÍAZ

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 28an
EPAITEGIA: Madrileko 13. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D. 2664/01
EGOERA: Argazkien eskakizuna. Txosten mediku berriak. Errekonozimendua San Carlos Eritetxean 01/03/31 data.

23 URKO ARROYO

EZARTE DATA: 2001ko ekapirilaren 5ean.
EPAITEGIA: Gasteizko 4. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D.1268/01
EGOERA: Txosten medikuak eskatuta. 01/04/3 data.

24 OIER GOMEZ

EZARTE DATA: 2001ko ekainaren 4ean.
EPAITEGIA: Gasteizko 4. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A. D.1197/01
EGOERA: Exhortoa txosten medikuak eskatzen. 01/04/3 data.

25 PREMIN SANPEDRO

EZARTE DATA: 2001ko irailaren 12an.
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.231/01
EGOERA:

26 ARANTZA MARTIN

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 2an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

27 PERU ALVAREZ FERNANDEZ DE MENDIBIL

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 2an.
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

28 UNAI LOPEZ DE OKARIZ

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 2an.
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

29 FERNANDO GARCIA JODRA

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 9an
EPAITEGIA: Madrileko20.A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: 1073/02
EGOERA: Exhorto Penala 826/01. Salaketan berrespena. 01/12/14 data Presondegiko txosten medikua. 01/08/29 data.

30 NEREA BENGOA

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 22an.
EPAITEGIA: Donostiako 2. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA: Presondegiko txosten medikuak. 01/08/29 data.

31 IZATE ETXEBERRIA

EZARTE DATA: 2001ko abuztuaren 8an
EPAITEGIA: Gasteizko 2. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.2878/01
EGOERA: Salaketaren Berrespena eta forensen txostena. 01/10/9 data.

32 ENEKO BALANTZATEGI

EZARTE DATA: 2001ko abuztuaren8an.
EPAITEGIA: Gasteizko 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2877/01
EGOERA: Salaketaren berrespena eta forensearen txostena. 01/11/3 data.

33 JUAN CARLOS SUBIJANA

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 2an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 2472/01
EGOERA: Madrileko5 A.E. . 01/10/5 data. Presondegiko txosten medikuak. 01/10/24 data.

34 JOSÉ RAMÓN ACEDO

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 22an.
EPAITEGIA: Donostiako 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.1749/01
EGOERA: Presondegiko txosten medikuak. 01/09/3 data.

35 RAÚL VALLINAS

EZARTE DATA: 2001ko urriaren 9an.
EPAITEGIA: Gasteizko G.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA: Presondegiko txosten medikuak. 01/09/7 data.

36 SENDOA DOMINGUEZ

EZARTE DATA: 2001eko urriaren 2an
EPAITEGIA: Gasteizko 2. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA: Salaketaren berrespena. 01/12/11 data.

37 AITOR DURAN

EZARTE DATA: 2001eko urriaren 10ean
EPAITEGIA: Gasteizko G. E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

38 IBAN ORTIGOSA

EZARTE DATA: 2001eko urriaren 10ean
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

39 UNAI ROMANO

EZARTE DATA: 2001eko urriaren 10ean
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.Inhibizioa Madrileko 25. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 5544/01
EGOERA: Txosten medikuak.Forense eta lekukoen deklarazioa.
01/01/29 Guardia Civil inputatuen deklarazioa.
01/01/22 data.

40 JOKIN ZERAIN

EZARTE DATA: 2001eko abenduaren 13an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

41 OSKARBI JAUREGI

EZARTE DATA: 2001eko abenduaren 13an
EPAITEGIA: Donostiako 3. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: 3388/01
EGOERA:

42 ROBERTO LEBRERO

EZARTE DATA: 2001eko abenduaren 13an
EPAITEGIA: Donostiako 4. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

43 SANTI ARAGON

EZARTE DATA: 2001eko urriaren 22an
EPAITEGIA: Donostiako 3. A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.2838/01
EGOERA: Txosten medikuak. 01/11/16 data. Ofizioa Ertzainak identifikatzeko. 01/11/12 data.

44 BIXENTE GOIA

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 28an
EPAITEGIA: Iruñeako 1. E. A. Madrilera inhibizioa. 01/06/26 data.
DILIJENTZI ZKIA.: A.D. 5566/01
EGOERA: Ofizioa Guardia Civilari eta txosten medikuen eskaera. 01/10/21 data.

45 JOXE ELIZEGI

EZARTE DATA: 2001eko apirilaren 26an
EPAITEGIA: Donostiako 3.A.E:
DILIJENTZI ZKIA.: A.D.1159/01
EGOERA: Sobreseimenduzko autoa.01/06/26.data Erreforma eta sorosgarri Apelazioko helegitea. Erreformako helegitea, atzera botatzen da. 01/07/12.data. Apelazioko helegitea onartzen da eta sobreseimenduaren aurka dago. Proba berriak egiteko agintzen du. 02/01/29.data

46 RICARDO ARANBURU

EZARTE DATA: 2001ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Donostiako 3 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: 3/02
EGOERA: Ofizioa Ertzantzari, atxilotu eta Madrilera noiz eraman zuten eskatzen.02/01/08

47 ANGEL MURGOITIO

EZARTE DATA: 2001ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Donostiako1 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

48 JULEN ERENAGA

EZARTE DATA: 2001ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Donostiako 1 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

49 ANA BELÉN EGUES

EZARTE DATA: 2001ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Donostiako 1 A.E.
DILIJENTZI ZKIA.: 53/02
EGOERA:

50 ASIER ALTUNA

EZARTE DATA: 2001ko abenduaren 28an.
EPAITEGIA: Donostiako 1. A. E.
DILIJENTZI ZKIA.:
EGOERA:

TORTURAREN AZTARNA IKUSTEZINAK

"... kolpeak pasatzen dira, min fisikoa pasatzen da, beltzuneak desagertzen doaz... baina barruan geratzen dena denbora bat tardatuko du desagertzen. Panpin bat baino ez zara, eta zurekin nahi bezala jolasten dute. Anulatu eta umiliatu ninduten. Egun horietan eurek irabazi zuten..."

Alicia Saez de la Cuesta.

"...min fisikoa gauza bat da baina biak dira. Min psikologikoa da gehiena. Min fisikoa pasatzen da. Gelditzen dena psikologikoa da. Bai, pentsatuz hori berriz pasa daitekeela, eta baita ere pentsatuz egin dizuten guztia, sinarazi dizuten guztia, lagunen izena esan behar izatea, beraiek esaten dizuten guztia sinatzea... azkenean, beraiek irabazi dute sentzu horretan: lortu nahi zutena lortu dutela. Deklarazio bat ezartzen dizute aurrean, buruz ikas arazi, sinatu eta beraiek dira garaile... Torturaren ondorioak seigarren egunetik aurrera azaltzen dira..."

Iratxe Sorzabali elkarrizketa Euskaldunon Egunkarian,

abenduaren 16an.

Tortura fisikoaren erabilera begi bistan gertatzen da, markak uzten ditu, gorputz atalak handituak, hausturak edo lesioak... baina bada beste tortura mota bat tortura psikologikoa alegia, bere erabilera ezkutuan geratzen dela. Bere aztarnak pertsonaren barnean geratzen dira, ez dira begiekin ikusten,

baina hor daude. Askotan (batzutan) uste da, atxilotuari kolpeak eman ez badizkiote, poltsa egin ez badiote, elektrodoak jarri ez badizkiote... atxiloketa arina izan dela, torturarik ez dela egon. Baina arrasto ikus ezinak uzten dituzten metodoak beti erabiltzen dira. Inkomunikazioak ahalbideratzen du atxilotuak poliziaren esku egonik tratamendu mespretzagarri, gaizto eta bortitzena jasango duela; mehatxuak, irainak, heriotza simulakroak, galdeketa amaigabeak, identitate sexualari egindako erasoak...

Tratu honek psikologikoki, epe motzean nahiz luzeagoan uzten dituen ondorioak ugariak, anitzak eta ezagunak dira, atxilotuak bere baitan bizi dituenak askotan ezkutuan eta bakardadean. Hauek ezagutuak izan daitezen eta milaka herritarrek bizi izan duten egoera ezagutaraztea eta kontzientziatzea beharrezkoa dela deritzogu.

Atxiloketaren ondoren min psikologikoa da geratzen dena. Min hori ondorio psikologikoetan gauzatzen da, gertaeraren ondoko egunetan edo asteetan, eta batzuetan desagertu arte moteltzen badira ere, zenbait kasutan kroniko bihur daitezke. Orduan *trauma ondoko estresaz* hitz egin dezakegu.

Trauma ondoko estresa bat-batean agertzen da, eta atxiloketaz geroztik urteak ere igaro daitezke ondorio hauek agertu baino lehen. Hauek dira agertu daitezkeen ondorio mota ezberdinak:

1) ***Trauma berbizitzea***. Subjektuak trauma egoera *berbizitzen* du, hau da, ez du trauma *gogoratzen, berriro bizi* baizik. Trauma berbizitzearen sintomen artean hauexek ditugu: gertaerari buruzko pentsamenduak behin eta berriro edukitzea, hari buruzko ametsak eta amesgaiztoak, berbizitzearen sentsazioa ematen duten "flashback-ak", aluzinazioak, etab., eta gertaera gogorarazten duten estimuluen aurrean ondoezaren erreakzio fisiologiko/psikologiko bortitzak izatea.

Egoera horretan, subjektua ber-traumatizatuta dago beti, etengabe jasan duen egoeraren eraginpean, behin eta berriro bizi izaten baitu atxiloketan gertatutakoa.

2) ***Saiheste jokabideak***. Multzo honetan bi sintoma mota ditugu berez:

a) Zehazki *saiheste jokabideak* direnak: gertaera gogorarazten duten pertsonak, tokiak, etab., saihesten edo ekiditen dira. Horrekin batera,

b) *Disoziazio jokabideak* daude: horren bitartez "sorgortze" psikikoa ("anestesia psikiko" moduko bat) lortzen da. Honako sintomak garatzen dira: gertaerarekin lotutako zerbait ezin gogoratzea, lehen esanguratsuak ziren hainbat jardueretan interesa galtzea, besteengandik urruntzearen sentsazioa, sentimendu positiboak/afektuak ezin sentitzea eta etsipena edo etorkizunik ez izatea sentitzea.

Subjektuak sintoma horiek guztiak emozio jasanezinetatik ihes egin nahian garatzen ditu, trauma gogorarazten duen guztia saihestuz edota emozionalki anestesiatuz.

3) ***Hiperaktibazioa***. Hipereaktibazioa "beti guardian" egotea izango litzateke, berriro antzeko gauzarik gerta ez dakion. Subjektua ez da inoiz seguru sentitzen. Sintomen artean hauexek ditugu: lo egiteko arazoak, kontzentratzeko arazoak, sumindura, etengabe erne egotea eta erreakzio exageratuak.

Trauma ondoko estresa izaten da torturaren ondorio gisa agertzen den koadro klinikoa. Trauma ondoko estresa diagnostikatu ahal izateko, subjektuak hainbat sintoma izan behar ditu:

1.- Trauma berbizitzearen sintoma bat.

2.- Saiheste jokabideen hiru sintoma.

3.- Hiperaktibazioaren bi sintoma.

Aipatu ditugun sintoma horiek guztiak kontraesanean daudela dirudi, neurri batean: trauma ondoko estresa duena garai batean kokatuta geratu dela dirudi, atxiloketaren gertaerara lotuta, eta dialektika bat sortzen da hor. Alde batetik, gertaera etengabe bizi behar duela dirudi (behingoz artxibatu nahian) eta bestetik, saihestu nahi du, ahaztu edo/eta sentimenduak anestesiatu, sofri ez dezan. Sintoma horiek, ordea, egokitze funtzio bat betetzen dutela dirudi. Izan ere, alde batetik, pertsona trauma eragin duen gertaeratik babestu nahi

dute, eta bestetik, memoria emozionalarekin batera hitzezko memoria osatu nahian huts egindako ahalegina dira.

Izan ere, oroitzapen traumatikoei buruzko ikerketaren arabera, traumak memoria esplizituko prozesuak eragozten ditu, hau da, esperientzia hitzetan jarri ahal izatea oztopatuta geratzen da ia. Aldi berean, memoria emozionalari lotutako areako iharduera areagotzen da. Beraz, trauma barne bizipen emozionaletan artxibatzen da nagusiki, eta oso gutxi memoria esplizituan edo narratiboan. Horregatik, traumari *hitzik gabeko izua* deitzen zaio ere. Memoria inplizituak ez du gogoratzen, berbizi baizik, eta ez du gertaera iraganekotzat hartzen. Oroitzapenak memoria narratiboan kokatuz soilik (hitzetan jarriz) desagertu ahal izango dira atxiloketaren ondorioak. Horregatik garrantzitsua da atxilotuak bere esperientzia kontatzeko eta hitz egiteko horretarako antolatutako gune egokiak izatea.

BI KASU ARGIGARRI

Atal honetan 2001. urtean emandako bi tortura kasu aipagarri azalduko ditugu: Iratxe Sorzabal eta Unai Romano. Kasu hauen argitasuna, Entzutegi Nazionaleko Epaile diren Ismael Moreno eta Guillermo Ruiz Polanco-ren jarduerak, ospitaletako eta espetxetako mediku txostenak, Entzutegi Nazionalera lotuak dauden Auzitegiko medikuen iharduera "harrigarriak"... torturaren errealitate gordina erakusteko garaian elementu garrantzitsuak direlakoan gaude.

Lesioen eraginez emandako medikuen parteak dituzten eta tortura salaketen ondorioz hasitako prozesu judizialak instrukzio fasean darraiten askoz ere kasu gehiago dira. TAT-ek elementu guzti hauek baditu eta interesaturik dagoen orori gustura emango lizkioke.

Gainera, bi kaltetuen testigantza osoa gehituko dugu egoera latzaren erakusgarri, eta zenbait mediku txosten erreproduzituko ditugu, bai Auzitegiko medikuen txostenak baita ospitaleetako medikuenak ere, gure ustez zehatzenak eta erabatekoenak direnak.

IRATXE SORZABAL

TESTIGANTZA

2001.eko martxoaren 30ean atxilotu ninduen Guardia Zibilak Hernanin, eta hortik aurrera bost egun pasa ditut inkomunikatuta beraien eskuetan. Hau da egun horietan jasandakoaren testigantza:

01/03/30, ostirala. Atxiloketa, goizeko 9.10ean izan zen, ni etxetik ateratzen nintzelarik. 3 pertsona gerturatu zitzaizkidan, plaka atera eta horietako bat identifikatu eta kotxe batean sartu ninduten. Kotxean, Intxaurrondora gindoazela esan zidaten, "¿Ya sabes a donde vamos? ¡A Intxaurrondo!, ya sabes lo que quiere decir eso, ¿no?!!". Intxaurrondora iritsi (kotxean gindoazela, burua makurtu arazi zidaten bidaia osoan), eraikuntza batean sartu eta gela batean, antifaz bat jarri zidaten ezer ikus ez nezan. Hatz markak hartu zizkidaten, baina nik ez dakit zein paperetan utzi nituen hatz markak, begiak estaliak baitnituen. Gero, emakume bat etorri zen eta katxeatu ninduen paretaren kontra nengoelarik. Bi gizonezko ere zeuden nire ondoan eta sujetadorea kendu arazi zidaten, gerritik gora biluztu araziz. Hori gertatutakoan, bi gizonezkoak nire titiak igurtzen hasi ziren, "mira que tetas" eta horrelakoak esaten zituzten bitartean. Nik forzejeatzen nuen eta arkadak izaten hasi nintzen, eta beraiek barrez hasi ziren eta gero erdi oihuka antzerkirik ez nezala egin esan zidaten. Jantzi eta gero, gizonezko batek argazki batzuk atera zizkidan eta gero beste batek "nire eskubideak" irakurri zizkidan. Ondoren, eraikuntzatik atera, kotxe batean sartu eta Hernanira bueltatu ginen, etxera, miaketa egitera...

Etxeko miaketa bukatu zutenean, miaketaren idazkia eman zidaten sinatzeko, baina nik ez nuen sinatu eta epaile eta idazkariak kopia bat

eman zidaten baina Guardia Zibilek kendu eta beraiek gelditu ziren kopiarekin (geroztik ez dut ikusi paper hori). Hortik, buruan forro polarra jarri zidaten, etxetik atera eta kotxe batean sartu ninduten. Gutxi gora behera 15.00ak izango ziren, eta kotxean sartu bezain laster Madrilera abiatu ginen.

Kotxean bost gindoazen: lau Guardia Zibil eta bostok. Gidariaren ondoan zihoana“ burua” edo“ buruzagia” zen (aurrerago horixe esan baitzidan berak). Ni atzean nindoan, biren artean. Aurreko bien eta nire ezkerrean zegoenaren aurpegiak ikusi nituen. Kotxean igo bezain laster “buruak” esan zidan: “bueno, aquí se han acabado las mariconadas de derechos, jueces y mierdas. ¿de aquí en adelante vas a ver lo que es bueno!, ¡¿has oído hija de puta?!”, eta kolpe bat eman zidan buruan. Hortik aurrera, antifaza jarri zidaten eta segituan, irainak, mehatxuak eta buruan kolpeak hasi ziren. Gidaria izan ezik, beste hiruek kolpe bortitzak ematen zizkidaten buruan. Segituan, nire eskuinean zegoenak, bere hanken artean zeukan aparatu bat hartu eta eskuineko saihetsak ditudan pare horretan deskarga elektrikoak ematen hasi zen. Aldi berean, nire ezkerrean zihoanak, plastikozko poltsa bat hartu eta buruan jarri zidan, arnasa hartu ezinik nengoelarik eta ia asfixiaraino. Guzti horrekin batera, aurrekoak (“buruak”) kolpeak ematen zizkidan bortizki buruan. Eta guzti horretaz gain, nire eskuinean zein ezkerrean zeudenak titiak igurtzen zizkidaten. Guzti hori, bai elektrodoak, poltsa, igurtziak eta kolpeak oihu, irain eta mehatxuen artean egiten zidaten... gelditu gabe, dena batera. Konortea galdu nuen bizpahirutan gutxienez. Eta gainean pixa egin nuen ere. Konortea galdu baino lehen, behin baino gehiagotan ahoarekin (hortzekin) poltsa puskatzen nuen, eta orduan beste poltsa bat jartzen zidaten buruan. Gero, poltsak puskatzen nituela ikusirik, 3 poltsa batera jartzen zizkidaten buruan.

Egiten ari zidatena oso suabea zela esaten zidaten; Madrilera iritsiko ginenean ikusiko nuela zer zen sofritzea, hango kideak animaliak zirela esaten baitzuten. Momentu batean, nire eskuinean zegoenak, aparatuaren pilak bukatu zirela esan, aldatu zituen eta elektrodoak ipintzen jarraitu zuen. Aldi pare batean, nire ezkerrean zegoenari pasa zion aparatua eta honek ere jarri zizkidan elektrodoak nire gorputzeko ezkerreko paretan. Beti ere, elektrodoak, kolpeak, poltsa, igurtziak, oihuak, irainak eta mehatxuak, guztia batera.

Momentu batean, kotxea gelditu zen (esan zutenez gasolindegi bat zen) eta hor bizpahiru minutu egon ginen tarte horretan torturatu ez nindutelarik. Orduan, horietako bat atera zen eta plastikozko poltsa gehiago ekarri zituen, esanez, guztiak apurtzen nituela, baina ez zela poltsekin arazorik izango, ni hil arte edukiko baitzituzten. Kotxea martxan jarri eta berriz hasi zen guztia: poltsa, elektrodoak, igurtziak, kolpeak, oihuak...

Momentu batean, esan zidaten Gerestarekin egin zuten bezala egingo zidatela, edota Basajauni egin ziotena, mendi batera eraman eta hilko nindutela. Kotxea gelditu zuten (mendian ginela esna zidaten) eta pistola bat jarri zidaten eskuetan. Nik ez nuen hartzen eta kolpatzen jarraitzen zuten... pistola hartzeko agindu zidaten, kotxetik ateratzeko eta korrika egiteko. Orduan beraiek tiro egingo zidatela, hilko nindutela eta gero emango lituzketen azalpenak oso erreza egingo zitzaiela, ihes egiten saiatu nintzela esango baitzuten, eta horregatik hil nindutela. Pistola hartu eta kotxetik jaitsi arazi ninduten. Orduan, korrika egiteko oihukatu zidaten, baina nik ezin nuen mugitu ere egin eta ez nuen korrika egin. Orduan, hartu ninduten eta kotxera sartu ninduten berriz, zera esanez “ vamos, vamos, al coche, que viene gente. ¡metete al coche que viene gente! De buena te has librado zorra. Porque venía gente que si no te matamos aquí mismo!”

Hortik aurrera, kotxea martxan jarri eta berriz, aurreko berdina: poltsa, igurtziak, kolpeak buruan, elektrodoak, oihuak, mehatxuak... Denetatik esaten zuten, beste gauza batzuen artean “hija de puta, gorda, te hemos dejado cebarte... ¿cuánto pesabas hace un año, 38 kilos? mira, mira como te has puesto... y esto sólo es el principio... ya verás cuando lleguemos a Madrid... te vas a cagar... allí será mucho peor... los compañeros que te esperan allí son animales... ya verás.. aquí en el coche no se puede trabajar cómodo, pero ya verás allí, que hay sitio de sobra y espacio y tiempo para trabajar a gusto... Te vamos a matar poco a poco...”

Madrilera iritsi (geroago jakin izan nuen Madrileko Guardia Zibilaren egoitza nagusian ginela), eraikuntza batean sartu eta pasilo batzuetatik gindoazelarik, bat-batean 6-7 gizonezkoek kristoren jipoia eman zidaten. Nire “ongi-etorria” zela edo esan zidaten. Jipoia eman zidatenean (batez ere buruan izan ziren kolpeak) antifaza mugitu zitzaidan eta 6/7 gizonezko zirela ikusi ahal izan nuen, kotxean ekarri nindutenak eta beste 2 edo 3 (azken hauek burua pasamontañas batekin estalita zutelarik). Jipoia oso bortitza izan zen baina denboraz laburra (20 segundo gutxi gora behera). Eskuekin eta zerbait gogorragoarekin kolpatu ninduten.

Hortik pasilo batzuetatik eramaten naute “a volandas” kalabozo batera. Kalabozoan ordu laurden bat uzten naute gutxi gora behera, eta ni-

re bila etortzen dira berriz eta pasilo eta eskailera batzuetatik goiko solairuko gela batera eramaten naute. Gelan sartu baino lehen antifaza kentzen didate. Gizon bat dago eta mediku forentsea dela esaten dit eta txartel bat erakusten dit. Baina ni oso-oso-oso urduri nengoen eta ez diot sinesten. Pentsatzen dut Guardia Zibil bat dela eta antzerkia egiten ari zela. Errekonozitua izan nahi dudan galdetzen dit baina gerturatzen den bakoitzean salto egiten dut beldurrez. Dardarka nago etengabe eta ezin dut hitz egin. Negarrez nago, dardarka... Ni lasaitzen saiatzen da baina nik ez diot sinesten, oso beldur baitnaiz. Ordu erdi bat egoten naiz gela horretan gutxi gora behera (gehienez): eserita aulki batean, dardarka, isilik eta negarrez.

19.30etan gutxi gora behera medikua ba doa (beranduago jakin izan dut benetako medikua zela, ondorengo kontakizunetan azalduko dudan bezalaxe) eta ni, beheko solairura jaisten naute berriz, medikua joan bezain laster jartzen didate berriro antifaza. Orduz geroztik, biharamuneko eguerdirarte (orduan baitator medikua), atseden eta gelditu gabe, 16 ordu segidan, honako hau gertatzen da:

"A gela" deitzen duten gela batera eramaten naute, bertan gizonezko asko dago 10 bat gutxi gora behera kalkulatzen dut nik. Eta guztiak txandakatzen dira ni torturatzeko: plastikozko poltsak jartzen dizkidate buruan asfixiatu arte, behin eta berriz atsedenik gabe... Horretarako gizon batek atzetik eusten nau eta horrela, konortea galtzen dudanean ez naiz lurrera erortzen, buruan kolpeak ere etengabeak dira (eskuekin, listin batekin beraiek esaten dute listin bat dela -enroilatutako aldizkari batekin hori ikusi egiten dut momentu batean- etab...). Eskumuturrak lotzen dizkidate (goma espumarekin bilduz eskumuturrak, markarik gelditu ez dadin) eta hankak ere. Manta batekin biltzen naute orduan eta zello edo prezintoarekin inmobilizatzen naute. Soilik burua uzten didate agerian eta lurrean etzaten naute buruz gora. Nire gainean Guardia Zibil bat jartzen da eta plastikozko poltsa batekin asfixiatzen nau behin eta berriz. Bestela, plastikozko poltsa ahotik sartzen dit eztarriraino eta sudurzuloak ixten dizkit asfixiatu arte eta "botaka" egin arte. Txandakatzen dira beraien artean hori egiteko (txandakatzen dira egia esan, guztia egiteko). Biluztu arazten didate ere (bortizkeriaz, beraiek, zeren nik ez dut biluzteko indarrik ere!), eta zirkulu bat egiten dute beraiek eta ni erdian jartzen naute. Orduan flexioak egin arazten dizkidate. Bi flexio mota, bata, gorputz osoa jaitsi eta gero igo, eta bestea, besoak igo eta jaitsi. Flexioak egiten ditudan bitartean ere kolpatzen naute buruan (besoak jaisten ditu-

danean) eta gorputz osoa ukitzen eta igurtzen hasten dira denak, batez ere titiak, ipurdia eta pubisa. Biluzten nautenean, esku eta hanken loturak kentzen dizkidate, noski. Makila bat jartzen didate eskuetan, eta ipurditik sartuko didatela esaten didate. Biluzik nagoelarik, belaunikatu arazten naute, lurrean, manta baten gainean, masailetan ere zaplastekoak ematen dizkidate...

16 ordu segidan gertatzen da guzti hori, eta beti, oihu, irain eta mehatxuen artean. Turno aldaketak egoten dira denbora horretan eta beti esaten didate "ahora vienen los malos de verdad...". Bortxatuko nautena-

rekin mehatxatzen naute etengabe... momentu batean, gizonetako batek gerrikoa kentzen du eta galtzetako kremailera jaisten duenaren itxura edo egiten du (ni antifazarekin nagoenez, entzun besterik ez dut egiten), eta esaten dit “ahora me vas a comer la polla”... Beste batzuk hasten dira esaten “ahora te vamos a echar un polvo, uno a uno, nos vamos a turnar...”, etab, etab...

Nire familiari buruzko mehatxuak egiten dizkidate, nire ahizpa atxilotuko dutela, nire ama atxilotuko dutela eta bera ere bortxatuko dutela... momentu batean telefonoz hitz egiten du batek nire ama atxilotzeko agindua emanez eta bertara eramateko (geroago jakin izan dut gezurra zela). Garrasiak entzuten ditut eta esaten didate nire lagun bat dela eta bera ere torturatzen ari direla (geroago jakin dut gezurra zela). Esaten didate ere, handik atera eta helikoptero batetan eramango nautela eta bertatik botako nautela... beraiek agintzen didatena buruz ikasi behar dudala ere esaten didate, bestela horrela jarraituko dutela ni hil arte... bainera eta “ potroa”-rekin mehatxatzen naute esanez hori bakarrik falta zaidala probatzeko... Galderak egiten dizkidate, oihukatuz, behin eta berriz eta erantzunak gustukoak ez dituztenean bortitzago kolpatzen naute eta beraiek ematen dizkidate erantzunak buruz ikas ditzadan.

16 ordu horietan, hiru alditan edo, “B gela” deitzen duten beste gela batera eramaten naute. “A gela”-ren ondoan dago gela hori. Horra eramaten nautenean, aulki batean eseri arazten naute eta galderak egiten dizkidate, eta galderekin batera erantzunak ere. Egindako galderei, beraiek emandako erantzunak eman behar ditudala agintzen didate eta hori egin arte ordurarteko tratuarekin jarraituko dutela esaten didate. Beraiek emandako erantzunak ematen ez ditudanean, “A gela”-ra eramaten naute eta aurretik azaldutako tratua jasaten dut. “B gela”-n nagoenean, denbora laburrez edukitzen naute bertan, eta bertan, aurreko gelan dauden pertsona berdinak daudela iruditzen zait, ahotsengatik. Hala ere, aldietako batean, antifaza kentzen didate (“B gelan”), eta hiru Guardia Zibil ezagutzen ditut, kotxeko berdinak, besteek burua estalita dute.

Guzti hau, beraz, ostiral arratsaldetik (A” eta “B” geletan gertatzen dena), larunbateko eguerdia arte gertatzen da.

01/3/31, larunbata, eguerdiko 12etan gutxi gora behera kalabozora eramaten naute eta ordu laurdenera edo, goiko solairura eramaten naute mediku forentsearengana (bezperan ikusi nuen gela berdinean). Oraindik ere zalantzak ditut berekin... ez dakit ziur benetako medikua

denik, baina txikituta nago eta arriskatzen naiz egiten ari didatena kontatzera: pentsatzen dut medikua bada lagunduko didala, eta ez bada, egia esan, egiten ari zidatena baino gehiago egitea ia ezinezkoa zela, eta nahi izanez gero, egingo zidatela, beraz... beldurrez hala ere, baina ezin nuen gehiago... burua lehertzear neukan, lepoko mina (hezurrak edo zerbikaletakoa) izugarrizkoa zen, neke fisikoa jasan ezina eta elektrodoen ondorioz egin zizkidaten markak erakusten hasi nintzen... Medikuak nire itxura ikusi eta ospitalera bidaliko ninduela esan zidan. Momentu batean gelatik atera zen eta beste mediku bat etorri zen (Guardia Zibilaren medikua zela esan zuen), eta honek ezin izan zuen ezetzik esan, beraz, ospitalera eraman ninduten, urgentzietara. Ospitale horretan arratsaldeko 19.00ak arte edukitzen naute gutxi gora behera, froga ezberdinak egiten.

Lehenik, “medicina interna”-ko mediku batek ikusten nau. Ditudan lesioen informe bat egiten du. Nik kontatzen diot lesio horiek nondik datozen, hots, Guardia Zibilaren esku jasaten ari naizen tratuagatik (kolpeak, elektrodoak, etab...). Errekonozitzen nau eta froga ezberdinak egitera bidaltzen nau: alde batetik, eskaner delako bat egiten didate, gero, zerbikalen plaka edota erradiografiak. Dermatologo bat etortzen da ere eta elektrodoen ondorioz gelditutako lesio eta marken argazkiak atera ostean, zauritutako azalean biopsia delakoa egiten dit. “Medicina interna”-ko medikua etortzen zait gero eta zerbikal batzuk mugituak ditudala esaten dit (erradiografiek horrela erakusten baitute), eta traumatologoarengana bidaltzen nau, zeren ziur aski “kollarin” bat jarri beharko didate. Traumatologoarengana joan eta lepoa pixka bat ukitu ondoren, kasu gehiegirik egin gabe, pastilla batzuk errezetatzen dizkit eta kito (paracetamol).

Mediku forentseak esaten dit informe eta froga guztiak epaileri emango dizkiola. Egun, nik oraindik ez dut informe eta froga horien emaitzen berri.

Larunbat arratsaldeko zazpietan gutxi gora behera, ospitaletik atera eta berriz Guardia Zibilaren egoitzara eramaten naute. Iritsi bezain laster, kotxetik jaitsi eta batek belarrira esaten dit “¡¡te vas a cagaar!!”. Zuzenean “B gela”-ra eramaten naute. Bertan, antifazarik gabe, aulki batean esertzen naute eta aurrean dudan mahai baten atzean “burua” dago. Nire atzean gehiago daude baina 3 besterik ez ditut ikusten, segidan oihukatzen baitidate atzera ez begiratzeko.

“Burua” hitz egiten hasten zait eta esaten dit oso haserre daudela nirekin. Bere “buruzagiak” bronka bota diola eta hortik aurrera, agintzen didana egin behar dudala esaten dit, eta berak esandakoak buruz ikasi

eta deklarazioan bota behar ditudala hitzez-hitz. Hiru aukera ditudala esaten dit:

1. ez badut deklarazio poliziala egiten, ordurarte bezala jarraituko genuela, hots, torturak etengabe: poltsa, kolpeak, elektrodoak etab... luze bat (ospitalera eraman aurreko tratua). Eta bere gainetik dagoen "buruzagiak" oso ongi ezagutzen duela zein tratu ematen ari didaten, beraz, ez dutela inongo arazorik alde horretatik.

2. Deklarazioa egitera igotzen banaiz (goiko solairuan izango baita, esaten didatenez), baina beraiek ikasi arazitakoa ez badut hitzez-hitz esaten, ordurarte bezala ez baizik eta okerragoa izango dela tratua hortik aurrera, eta gelditzen diren hiru egunetan hil arte sofriaraziko nautela.

3. Deklarazioa egiten badut eta beraiek esandakoa edo agindutakoa deklaratzen badut, orduan hortik aurrera ez didatela esku bat gainean jarriko eta deklarazioa eta gero lo egiten utziko nautela.

Eskubiderik ez dudala esaten didate eta hiru aukeretako bat hartu behar dudala. Horiek dira ematen dizkidaten 3 aukerak eta ni, fisiko zein psikologikoki txikituta nengoelarik, deklarazioa beraiek nahi duten bezala egingo dudala esaten diet. Ensaiatu arazten didate deklarazioa, behin eta berriz, guztia buruz ikasi arte. Orduan, goiko solairura igo eta gela batera eramaten naute ("B gela"-tik deklarazio gelara lurrera begira eta begiak itxirik joan arazten naute. Gorputz erdia okertuta eramaten dit, zeren lepoko minaren ondorioz, ezin baitut burua soilik makurtu). Gela horretan gizon bat dago eserita eta aurkezten didate ofiziozko abokatua bezala . Bere aurrean dagoen aulki batean eseri arazten naute eta nire aurrean mahai bat dago non bi guardia zibil daude, bata instruktorea (hori da orain arte "burua" bezala deskribatu dudana), eta beste bat zeinek ordenagailuz idazten du deklarazioan esaten dena (hau ere galdeketa bat baino gehiagotan ikusi dut). Gero, bat edo bi gehiago sartzen dira gelan eta ofiziozko abokatuaren ondoan esertzen dira. Bat ikusten dut, eta "burua"-rekin batera, deklarazioa sinatzen du ere (hori, ni atxilotu ninduena da eta esteekin batera torturatu nauena). Deklarazioan aurretik ensaiatutako galderak egiten dizkit "burua "-k, eta ni erantzuteko behartu eta derrigortu eta ikasi arazi didatena esaten dut beldurrez.

Deklarazioa amaitu ostean, kalabozora eramaten naute eta ongi egin dudala, beraiek agindu bezala egin dudala esan ondoren, bertan uzten naute lo egiteko. Bokadilo bat ekartzen didate eta minarentzako pilula bat. Nik ez dut ezer hartzen eta lo egiten saiatzen naiz.

01-4-2001. igandea: Goizean gutxi gora behera 4 ordutako "galdeketa" egiten didate "B gelan". Denbora horretan, gauza gehiago buruz ikasi arazten didate eta esaten didate arratsaldean beste deklarazio bat egitera joango naizela. Aurreko eguneko berdina gertatzen da, "burua" k guzti hori esaten dit eta hiru aukerak ematen dizkit...mehatxuak...

Gero, kalabozora eramaten naute eta minarentzako pilula bat ematen didate (paracetamol). Prezintatuta dago pilula eta ireki eta hartu egiten dut buruko eta lepoko minak izugarriak direlako oraindik.

Eguerdi partean mediku forentsea dator eta errekonozitzen nau. Fisikoki hobetoxeago nagoela ikusten du, baina ni ez naiz ausartzen berari kontatzen deklarazioetarako egiten dizkidaten mehatxuak, zeren oso beldur naiz berriz, ostirala eta larunbateko tratu eta torturetara bueltatuko direlakoan mehatxuena kontatzen badut.

Arratsaldean, bigarren deklarazio poliziala egitera eramaten naute eta beraiek agindutakoa egiten dut. Deklarazio honetan, ofiziozko abokatua, ni gaizki nagoela konturatzen da, zeren aulkitik altxatzeko bik lagundu behar naute eta bizkarra zuzen edukita mugitu behar naiz, lepoko minarengatik. Galdetzen die ea zerbait pasatzen zaidan, aulkitik altxatzeko zailtasunak ditudala iruditu zaiola esaten du baina esaten diote ongi nagoela, nekaturik besterik gabe. Niri galdetzen dit zuzenean, ea zer moduz nagoen, baina ni guztiz ikaratuta nago eta "ongi" erantzuten diot, nahiz eta ezin okerrago egon.

Gelditzen diren bi egunak, astelehena eta asteartea, igandekoaren modura pasatzen dira; kalabozotik "B gelara", bertan, agintzen didatena buruz ikasi, ensaiatu eta gora igo deklarazioa egitera (aurrez entsaiatutako hori) etab... Guztia, beti, mehatxatuz...

Forensea egunero dator eta ni ez naiz ausartzen mehatxuena kontatzen, ez baitut lehen egunetako egoerara itzuli nahi... Azken egun horietan, tortura sikologikoa jasaten dut mehatxu etabarren bidez, azaldu dudan bezala, eta fisikoki, igandean bi guardia zibil gauean kalabozora sartzen dira oihuka eta buruan kolpe bana ematen didate eta joan egiten dira. Horretaz gain, hiru azken egun horietan ez naute fisikoki torturatzen. Halere, nahiz eta janaria eskaintzen didaten, nik ez dut ia jaten: ezer lehen bi egunetan eta hiru madalena eta bi yogurt azken hirutan (paracetamola hartzen nuenean, madalena erdia jaten nuen), eta beraz,

fisikoki oso ahul nago, dudan minaz gain, oraindik min handia baitut lepo eta buruan batez ere.

Azkenik, astearte gabean, "burua" etortzen zait kalabozora eta oihukatu gabe, hitz eginez, mehatxatzen nau, esanez, asteazken goizean, goizean-goiz Audientzi Nazionalera eramango nautela, eta egin behar dudana zera dela: deklarazio polizial guztiak berretsi. Hori egiten ez badut, nire familia, eta nire ama atxilotuko dutela eta niri emandako tratua jasanaraziko diotela, nola hala "kolaborazioa " sartuko diotela eta nire esku zegoela hori ez gertatzea. Horrela, ordubete egoten da gutxi gora behera, nirekin kalabozoan hitz egin eta mehatxatuz. Nik baietz esaten diot, nahi duena egingo dudala, beldurrez ikaratuta.

Azkenik astearte goizean (goizeko seietan), aldatzeko arropa ekartzen didate, eta "buruak" berriz mehatxatzen nau, epailearen aurrean deklaratzeko. Furgoneta batean sartzen naute eta Audientzia Nazionalera eramaten naute, eta goizean zehar epailearen aurrera eramaten naute deklaratzera. Lehenago, mediku forentseak berriro errekonozitzen nau.

Epailearen aurrean inkomunikatua pasatzen naiz, eta beraz, ez dago nire konfidantzazko abokaturik. Ofiziozko abokatu bat asignatzen didate. Nik orduan, badakit guardia zibilaren eskuetan 5 egun eta gau pasa ondoren, ez naizela berriz beraien eskuetara itzuliko, eta beraz, deklaratzeari uko egiten diot, ez baitago nire konfidantzazko abokaturik, eta jasotako torturengatik salaketa jartzen dut epailearen aurrean.

Audientzia Nazionaleko kalabozoetara itzultzen naiz deklarazioa eta gero, eta mediku forentsea berriz dator ni errekonozitzera eta lesioen beste informe bat egitera.

Hortik, inkomunikazioa altxatzen didate, nire konfidantzazko abokatuarekin hitz egiten dut, eta bost egunetan gertatutakoa kontatzen diot.

Ondoren espetxe agindua jasotzen dut eta Soto del Realeko espetxera eramaten naute. Bertan, lesio parte bat egiten didate ere, torturen markak begi bistakoak baitira.

MEDIKUEN BALORAZIOA

M. Itxaso Idoyaga Hoyos doktorea
Elkargo zk.: 4808584
Bizkaiko Mediku Elkargoa

IRATXE SORZABAL DIAZ ANDREARI BURUZKO TXOSTEN MEDIKOA

Gaixoari ezin izan diogunez mediku azterketarik egin, txosten hau honako elementuetan oinarrituta egiten dugu:

- Iratxe Sorzabalek idatziz emandako lekukotasuna
- Auzitegi Nagusiko Angel Canelada auzitegi medikuaren txostenak.
- Madrilgo San Carlos Ospitale Klinikoko txostenak: barne medikuntza, traumatologia eta dermatologiakoak.
- Anatomia patologikoko txostena.
- Taisir Taufiq Hamdan auzitegi medikuaren txostena
- Madrid-V presondegiko zaintzako medikuaren txostena.

ANAMNESIA

Iratxe Sorzabalen lekukotasunari jarraiki, hauek izan ziren gertaerak:

Guardia Zibilak 2001eko martxoaren 30ean atxilotu zuen bere etxean, Hernanin, goizeko 09:10 aldera. Kotxez eta burua makurtuta eraman zuten Intxaurrondoko koartela zela esan zioten leku batera. Begietan mozorro bat jarri zioten, ez ikusteko. Kontaketan dio gerritik gora biluztu zutela, eta bi gizonek eskuak bularretan ibili zizkiotela, "begira nolako titiak" eta antzeko gauzak esanez. Berak aurka egin zien eta nazka eta okadak sentitzen hasi omen zen. Gero jantziarazi egin zuten, eta, beranduago, etxera eraman zuten erregistroa egiteko.

Kontaketan dioenez, 15:00etan berriz kotxean sartu eta Madrilera eraman zuten; Madrilera bidean buruan kolpe asko hartu zituen, baita irainak eta mehatxuak ere. Eskuin aldean zuen guardia zibilak hanka artean zeraman aparatu bat atera zuen eta eskuin aldeko saihetsean deskargak ematen hasi zitzaion. Bitartean ezkerraldeko guardia zibilak plastikozko poltsa bat hartu eta buruan ipini zion, arnasa hartzea eragozten ziola ia ito arte. Aurrean kopilotoaren eserlekuan zihoan guardia zibilak etengabe jotzen omen zuen buruan. Gainera dio bere eskuinean zihoanak eskuekin bularrak igurzten zizkiola. Dioenez, hori guztia (hau da, elektrodoak, poltsa, ukitzeak eta kolpeak(etengabekoa izan zen, garrasi, irain eta mehatxu artean. Kordea galdu zuen bi aldiz gutxienez, eta pixa gainean egin zuen. Bi aldiz edo, kordea galdu aurretik poltsa hortzekin hautsi zuen, eta orduan beste batzuk jartzen zizkioten. Azkenean, poltsak hautsi egiten zituela ikusirik, hirunaka jarri zizkioten.

Kontatzen du nola eskuinaldean zeukan poliziak deskargak emateko aparatuko pilak bukatu zitzaizkiola esan zuen, aldatu zituen, eta berriz deskargak ematen jarraitu zuen. Bi aldiz edo, aparatua ezkerraldekoari pasatu zion, eta hark ere deskargak eman zizkion gorputzaren ezkerraldean. Esaten du etengabekoa izan zela elektrodoak jartzea, jotzea, poltsa, ukitzeak, garrasiak, irainak eta mehatxuak, dena batera. Esaten du halako batean kotxea gelditu zutela, pistola eskuetan jarri ziotela eta korri egiteko esan ziotela, baina bera ezin omen zela mugitu ere. Berriro Madrilerantz abiatu zirenean, lehen bezalako tratua ematen jarraitu zuten.

Kontaketan dioenez, Madrilera iristean korridore batean sartu zuten, eta 6 edo 7 guardia zibilen artean jipoi ikaragarria eman zioten, baina oso denbora gutxian. Jotzen ari zitzaizkiola, gehienbat buruan, une batean begietako mozorroa mugitu zitzaion, eta 6 edo 7 gizon zirela ikusi zuen. Horren ondoren ziega batera eraman omen zuten eta ordu laurden batean-edo han utzi. Gero, begi mozorroa kendu eta auzitegiko medikua zela esan zuen batengana eraman zuten. Hark txartel bat erakutsi zion, baina berak hain urduri zegoenez ezin izan zuen irakurri. Medikua hurbiltzen zitzaion bakoitzean eta ukitu, bera ikaratu egiten omen zen guardia zibilen bat ote zen beldurrez; dardarka zegoen, negarrez, eta ezin zuen hitzik egin.

Esaten du auzitegiko medikuak alde egin zuenean berriro begi mozorro bat jarri ziotela. Noizean behin gela batera eramaten zuten, galdeketa egiteko; gelan 10 bat gizon zeuden, ahotsengatik zirudienez. Elkarren artean txandatu egiten ziren eta buruan poltsak jartzen zizkioten itotzeko; bitartean haietako batek atzetik heltzen omen zion, kordea galduta lurrera eror ez zedin. Buruan etengabe jotzen zuten (eskuz, edo telefono gida edo aldizkariren bat bilduta erabiliz; ezin du zehaztu, ez baitzuen ikusten). Eskumuturrak eta oinak lotu zizkioten eta *goma espuma* jarri zioten, markarik ez uztearren. Orduan manta batean bildu zuten eta, ez mugitzeko, zigilua jarri zioten. Lurrean ahoz gora etzan zuten, burua bakarrik ageri zuela. Bere gainean guardia zibil bat jarri zen, eta behin eta berriz itoarazi zuen poltsarekin, eta, gainera, poltsa ahotik barrena sartzen zion eztarriraino, eta sudurra tapatzen zioten, botarazteko.

Kontaketan dioenez, gero oso zakarki erantzi zuten, berak indarrik ez zeukalako. Biribilean jarri ziren, bera erdian zegoela. Flexioak egitera behartu zuten; bi motatakoak: gorputza altxatuz eta jaitsiz batzuk, eta besoak altxatuz eta jaitsiz besteak. Ahal bezala horretan ari zela, buruan jotzen zuten. Eta gorputza ukitzen hasi zitzaizkion, bereziki bularra, ipurdia eta pubisa. Makila bat eskuetan jarri eta ipurditik sartuko ziotela esan zioten. Lurrean,

manta gainean, lau hanketan jartzera behartzen zuten eta zaplaztekoak ematen zizkioten.

Azaltzen du bortxatuko zutela esaten ziotela etengabe. Batek gerrikoa askatu eta galtzetako brageta jaitsi zuen. Ez zuen mozorrotik ikusi, baina hala sentitu zuen. Guardia zibil horrek salaketa bat egin beharko zuela esan zion, besteek banaka-banaka bortxatu egingo zutela esaten zioten bitartean. Esan du bere familiaren kontrako mehatxuak ere etengabe egiten zizkiotela, bere ahizpa atxilotuko zutela, ama ere bai eta bortxatu egingo zutela... Entzun zuen nola batek telefonoz bere ama atxilotzeko agindua ematen zuen. Garrasiak entzun zituen, eta torturatzen ari ziren bere lagun batenak zirela esan zioten. Handik helikopteroan atera eta airetik botako zutela ere esan omen zioten... Bainera eta potroa egitearekin mehatxatzen zuten. Galderak egiten zizkioten garrasi artean, behin eta berriz esaten zizkioten entzun nahi zituzten erantzunak, eta zerbait gustatzen ez zitzaienean, indar handiagoz jotzen zuten eta erantzunak esaten zizkioten buruz ikas zitzan. Azaltzen du gela batean egiten ziotela galdeketa, eta beste batean ematen zizkiotela tratu txarrak.

Esaten du auzitegiko medikuarengana berriz eraman zutenean txikituta zegoela; horregatik kontatu omen zion zer tratu hartzen ari zen; arriskatuta, artean ez baitzegoen seguru hura nor ote zen. Buruko eta lepoko min handia zuela eta guztiz akituta zegoela esan zion, eta elektrodoek utzi zizkioten markak erakutsi zizkion. Gero ospitale batera eraman omen zuten eta han dermatologoak, barne medikuntzako medikuak eta traumatologoak aztertu zuten. Plakak, eskanerra, argazkiak eta lesioen biopsia egin eta parazetamol hartzeko agindu zioten.

Kontaketan dio Guardia Zibilaren komisariara berriz itzulitakoan galdeketekin jarraitu zutela, baina lehengo tratua eman gabe. Lurrera begirarazten zioten eta gorputz erdia makurtu behar zuen, lepoa bakarrik makurtuta ezin baitzuen lurrera begiratu. Deklarazio bat buruz ikasarazi zioten, irainduz eta mehatxatuz. Berriz ere buruan jo omen zuten, baina hurrengo hiru egunetan ez omen zioten beste tortura fisikorik egin.

MEDIKU TXOSTENAK

2001-03-30. Angel Canelada auzitegiko medikuarena: bertan dio gaixoak “ez ukitu” esan ziola tentsio arteriala hartu nahi izan zionean. Gainera, dio “karga emozional handia” zuela.

2001-03-31. Auzitegiko medikuaren txostena. Dioenez, Sorzabal andreak dermatosia ageri zuen, haren esanetan aparatu batek eragina. Buruan kolpeak hartu izanaren alegazioa ere jasota dago. Ospitalera eraman zezatela erabaki zuen.

Esaten du traumatologia, dermatologia eta barne medikuntzako kontsultaren emaitzak ez duela adierazten lesioak garrantzi kliniko handia dutenik. Lesioen argazkiak egin eta larruazaleko biopsia hartu zioten. OTA (Ordenagailu Bidezko Tomografia Axial) bat ere egin omen zioten hezur lesiorik eta neurologikorik ez zuela ziurtatzeko, eta lepoaldeko erradiografiek egiaztatu zuten “hezurretako lesio akuturik ez” zegoela, “baina bai trapezioen kontraktura, prozesu kronikoren batekin lotura izan dezakeena”.

2001-03-31. San Carlos Ospitaleko Barne Medikuntzako txostena. Honako hauek dira aipagarrienak:

- zefalea eta zerbikalgia mekanikoa, gaixoak dioenez erasoak eta burua hainbat ordutan makurtuta edukitzeak eragina
- lepoaldeko kontraktura; hematoma edo hiperemia traumatikorik dagoen jakiteko daturik gabe
- eritema saihetsetan
- Bizkarrezurreko Rx erradiografia, lepoaldekoa:
  - lordosi zerbikalaren zuzenketa
  - Z3-Z4 atzeko azpiluxazioa
- Garezurreko OTA: ez dago asaldura adierazgarririk

2001-03-31. San Carlos Ospitaleko traumatologoaren txostena. Iritzi diagnostiko hau azaltzen du: trapezioen kontraktura, agian prozesu kronikoren batekin lotura izango duena. Lepoaldeko Rx-ean dio ez dagoela hezur lesio akuturik, eta bizkarrezurreko alderdi zerbikalean ez dela ageri ezegongortasun irizpiderik.

2001-03-31. San Carlos Ospitaleko dermatologiako 2. urteko egoiliarraren txostena, mediku adjunturik aurkitu ezinik berak egina. Deskribapenean dio eskuin saihetsean Xx10 cm-ko gainazal batean lesioak ageri dituela, sare itxurakoak eta kolorez eritema itxurako more-marroiskak, eta puntu batzuetan mikrobesikulak sortu direla. Esker saihetsean, ezaugarri bereko lesioak, barreiatuta eta kopuru txikian. Eskuin saihetseko biopsia hartu du. Lesioekin bat ez datozen patologiak aipatzen ditu: zoster herpesa, botika erupzioa, exantema birala, psoriasia, ekzema kronikoa eta patologia infekziosoak, hala nola, inpetigoa edo gorputzeko ezkabia eta penfigoa edo penfigoidea.

2001-04-01. Auzitegiko medikuaren data honetako txostenak dio gaixoa hobeto dagoela, eta afaldu, lo egin eta gosaldu duela. Aipatzekoa da dioenez argazkietako lesioak eta biopsietakoak arazorik gabe "lehortzen" ari direla.

2001-04-02. Auzitegiko medikuaren data honetako txostenak dio azaleko lesioak lehortzen ari direla. Tentsio arteriala eta bihotz-biriketako auskultazioa normalak dira.

2001-04-03. Auzitegiko medikuaren data honetako txostenak dio Sorzabal andreak esan duela ondo dagoela, lasaiago dagoela, eta azken bi egunetan tratu txarrik eman diotenik ukatu duela. Txostenak dio zefalea duela. Azterketan puntu lehorrak dira nabarmenena; eboluzio ona daramate. Tentsio arteriala eta bihotz-biriketako auskultazioa normalak dira.

2001-04-04. Auzitegiko medikuaren data honetako txostenak dio dermatitisak lehortzen jarraitzen duela eta epidermisa esfoliatzen hasi dela. Tentsio arteriala eta bihotz-biriketako auskultazioa normalak dira.

2001-04-04. Madrid-V presondegiko medikuaren txostena. Dioenez, azterketan gaixoak eskuin saihetsean larruazaleko lesioak ageri ditu, ospitalean alde horretan egin zioten biopsia; lesio berdinak baina gutxiago ditu ezker saihetsean. Mina dauka lepo aldean eta parietal aldean.

2001-04-21. Taisir Taufiq Hamdan auzitegi medikuaren txostena. Esaten du azterketan gorputzaren eskuinaldean larruazaleko orbanak dituela, baita orban horietakoren baten lagina hartzeko egindako zauriaren seinalea ere. Okzipital aldean alopezia edo ilerik gabeko une bat ere ikusten da. Gaixoak dioenez, lepoaldeko mina dauka. Egindako gainerako proben balorazioan esaten du diagnostiko bakarra duela: trapezioko muskuluen kontraktura, agian prozesu kronikoren batekin lotua; eta hor egin zitzaiola berotasun eta parazetamol tratamendua.

2001-04-24. Anatomia patologikoko txostena. Esaten duenez, larruazaleko lesioaren azterketa mikroskopikoan hanturazko infiltratu bat, polimorfonuklear neutrofiloz osatua, ageri da dermisa eta epidermisa itsasten diren tokian, epidermisa bereizita dagoela. Epitelioaren zatikako nekrosia ikusi da. Aurkitu diren arrastoak espezifikoak ez direnez, azterketa honekin lotuta azterketa kliniko makroskopikoa eta bilakaeraren ebaluazioa egin behar direla dio.

BALORAZIOA

A) Tratu txarren alegazioa, *IRCT* erakundearen protokoloari jarraiki.

2.1.2.1.1. Tortura psikologikoko metodoetarako algoritmoa

1. *Bipiltzea*
   01.10 Sentimen gabetzea
   1.1.1. Begi mozorroa jartzea

1. *Behartzeko teknikak*
   02.05 Aitorpen bat egitera behartzea

2. *Mehatxuak*

2.10. Biktimarentzako mehatxuak

2.51. Familiarentzako mehatxuak

2.52. Lagunentzako mehatxuak

2.1. *Duintasunaren eta norbere irudiaren kontrako irainak*

5. Tortura sexuala: abusatzea eta ukitzea

06.00 Komunikazio teknikak

5.20. Erantzun onak/txarrak tratu txarrarekin jarraitzeko motibotzat hartzea

2.1.2.2.1 Tortura fisikoko metodoetarako algoritmoa

1. Kolpeak: batez ere buruan

5.1 Ezohiko gorputz jarrera behartuak: lepoaldearen flexio handi jarraitua

5.2 Ariketa akigarriak: flexioak

6.2 Itomena: plastikozko poltsa buruan jarrita eta goiko arnasbidea itxita

9. Elektrizitatearen eragina

A) Azaleko lesioen balorazioa.

Deskribatutako ezaugarri makroskopiko eta mikroskopikoetan oinarrituta, esan daiteke dermatitisa dela, epidermispean besikulak eratuta eta epitelioaren zatikako nekrosia dituena.

Alde batera utzi behar dira, antzeko eritasunak izan arren,

epidermisa kaltetu gabeko epidermispeko dermatitis besikuladunak, eta eosinofilo, linfozito eta mastozitoak nagusiki dituzten hanturazko infiltratuak. Hortaz, patologia gutxi batzuk bakarrik sartzen dira lesioaren diagnostiko bereizgarrian. Aurretik ez zegoenez patologia autoinmunerik, metabolikorik, alergikorik eta dermatologikorik, ezta erradio dermitisik ere, eta botikarik ere ez zuenez hartzen, eta kontuan hartuta lesioak non zeuden eta nolakoak ziren, eta hurrengo egunetan zer bilakaera izan zuten, hau da lesioen kausazko diagnostikoa: **erredura elektrikoak eragindako dermatitis besikuladuna**.

Kontsultatu dugun auzitegi medikuntzako bibliografian larruazaleko dermatologiari buruzko iturri ugariak bat datoz **erredura elektrikoak** deskribatzen dituztenean: korronte elektrikoak epidermisa dermisetik bereizten du (epidermispeko besikula edo baba sortuta) eta epitelioaren zatikako nekrosia sortzen da. Erredura hori beroak eragindako bigarren mailako erreduren antzekoa da. Infiltratu polinuklear neutrofiloa ager daiteke. Hain zuzen, Iratxe Sorzabal andreari egindako biopsian deskribatzen den gauza berbera.

Lesioak dauden tokia, bestalde, hark kontatutakoarekin bat dator bete-betean: lesioak saihetsetan daude, gehiago eta handienak eskuin aldean, hau da, justu-justu atxilotuak deskarga elektriko gehienak egin zizkiotela esandako tokian.

Pilaz edo bateriaz dabilen aparatua eta deskribatu den morfologia (lesio puntadunak eta 3-4 egunen buruan esfoliatzea/ezkatatzea) Europako Kontseiluko Torturaren Aurkako Batzordeak (CPT) 1994ko txostenean jasotakoen antzekoak dira.

B) Lepoaldeko lesioen balorazioa.

Azterketa klinikoan zerbikalgia, miaketan lepoaldeko kontraktura (trapezioetako kontraktura) eta erradiografietan lordosi zerbikalaren zuzenketa eta Z3-Z4 atzeko azpiluxazio oso txiki bat adierazi dira.

Aurretik lepoaldeko patologiarik ez zeukanez, ezta artritisik eta beste hanturazko prozesurik ere, eta kontuan hartuta gaixoa-

ren adina eta, batez ere, azterketa erradiologikoak ez duela aurkitu ez endekapenezko patologiarik ez patologia kronikorik (ez dago kaltzifikaziorik bizkarrezurreko eta ornoetako lotailuetan, ez dago artrosirik artikulazioetan, ezta endekapen seinalerik ere ez kartilagoan ez diskoan), alde batera utzi behar da patologia kronikoaren hipotesia. Hala, bada, **traumatismo izan berri bat** da.

Azpiluxazio bat dagoenez lerradura txiki batekin, eta hori eragin lezakeen beste ezer gertatu ez denez (horrelako gehienen eragileak zirkulazio istripuak izaten dira), aurkitu den emaitza bateragarria da gaixoak azaldu duenarekin, hots, **hainbat ordutan flexioko jarrera behartuan** egotearekin. Lesioa egonkorra da berehalakotik definizioz, izan ere, muskulu espasmo antialgikoak (trapezioen kontrakturak) inmobilizazioari laguntzen baitio.

C) Ageriko lesiorik sortzen ez duten tratu txarrak

Gaixoak beste tratu txar batzuk aipatu ditu, lesio nabaririk uzten ez dutenak: kolpeak eskua zabalik edo gauza lauekin jotzea, markarik ez uzteko babesgarriak jarrita jotzea (mantan bilduta, *goma espuma* jarrita lotzea), sexu ukipenak, mehatxuak eta irainak egitea, ikusmena kentzea...

Bestalde, plastiko zorroak eragindako asfixiaren sintomatologia xehetasunez deskribatzen du gaixoak: itolarria, arnasa hartzeko defentsa mekanismoak (poltsa hortzekin haustea(, une batzuetan kordea galtzea, eta esfinterrak lasaitzea. Hori guztia sinesgarria da ikuspuntu teoriko eta klinikotik begiratuta.

Gaixoaren egoera psikologikoaz esan behar da hark kontatutakoa ("ukitzen ninduen bakoitzean ikaratu egiten nintzen, dardarka nengoen, negarrez, eta ezin nuen hitzik egin") bat datorrela auzitegiko medikuak lehen bisitaz idatzitakoarekin ("ez ukitu" esan ziola tentsio arteriala hartu nahi izan zionean eta "karga emozional handia du").

D) Lekukotasunaren fidagarritasuna erakusten duten beste datu batzuk

Mediku elkarrizketa egitea ezinezkoa izan den arren, idatzizko kontaketak eta epaile aurreko deklarazioak xehetasunak ematen dituzte, eta puntu hauek nabarmendu behar dira:

- Bi deklarazio horiek bat datoz
- Sintomatologia (nola fisikoa hala psikologikoa) eta mediku txostenetan azaldua bat datoz
- Berak azaldutako sintomatologia eta mediku azterketetan aurkitutako emaitza objektiboak bat datoz
- Berak azaldutako sintomatologia eta deskribatutako tortura metodoak bat datoz
- Berak adierazitako torturatzeko moduak eta Guardia Zibilak atxilotutako beste pertsona batzuek azaldutakoak bat datoz (jasota daude CPT-Torturaren Aurkako Batzordearen txostenetan eta beste batzuetan)

Txostena egiteko izan ditugun mugak:

- Ezin izan dugu gaixoarekin egon
- Ezin izan ditugu aztertu larruazaleko lesioen argazkiak
- Ez dugu ikusi histologiako prestakina

ONDORIOAK

Tratu txarren alegazioak bat datoz egindako mediku azterketen emaitzekin.

Aurkikuntza objektiboak egin dira gai hauetan:

- *shock* elektrikoak (elektrodoak) eman dira.
- lepoaldeko traumatismo bat dago, bizkarrezurreko lepoaldean flexio behartu bat izan delarik.

Nabaritasun subjektiboa dute gai hauek:

- plastikozko zorroekin asfixia eragin da
- alegatutako beste batzuk.

Lagungarria izango zatekeen beste hauek ere izatea: proba mediko osagarriak, hala nola muskulu minaren entzimak odolean neurtzea; larruazaleko lesioen xehetasun handiagoko deskribapen bat; eta auzitegi medikuaren tratu txarren alegazioa.

Bilbo, 2001eko maiatzaren 11
Sin.: Itxaso Idoyaga Hoyos doktorea



Entzutegi Nazionaleko Auzitegi medikuak egindako txostena.



57

INFORME MEDICO FORENSE

ANGEL CARRILADA COELLO, Medico Forense titular de los JUZGADOS CENTRALES DE INSTRUCCION, números DOS y CINCO CUMPLIENDO con lo ordenado por la Superioridad

MANIFIESTA.- Que identificado con el oportuno carnet profesional; a las 11 2º horas, en la fecha 31.05.2001 y local D.G.G. Cad al que acudimos de reiterados, se gira visita para proceder al RECONOCIMIENTO y así entender sobre el estado de salud y otras circunstancias del detenido D. Iratxe SORZABAL DIAZ de 29 años de edad, de profesión u oficio el cual y sin testigos, DICE:

que le aplicaron un aparato y le han provocado unas quemaduras que dudo le cumplirán del afeitarle se lleva al Hospital Clínico de la Universitaria

Igualmente dice que le han practicado

Exploración.- una radiografía sobre tórax y dorsolumbar pie izquierdo y derecho que no se aprecian al parecer lesiones óseas

Se fotografían las lesiones cervicales de cuello dorso izquierdo y mejilla para fijar la causa

CONCLUSIONES.- Que las lesiones descritas tardan en curar las primeras en curar 7 días las segundas en curar 10 días y las terceras en curar 7 días

Y no habiendo mas asuntos que tratar por parte de los comparecientes a este acto, firman el presente informe, juntamente con el perito, de lo que yo, la Secretaria Judicial, doy fe.

Entzutegi Nazionaleko Auzitegi medikuak egindako txostena.



JUZGADO CENTRAL DE INSTRUCCION Nº [redacted]

HORA: [redacted]

FECHA: 04-04-01

LUGAR: Aud. Nacional

ANGEL CARRILADA COELLO, Medico Forense, titular de los Juzgados Centrales de Instrucción, numeros DOS y CINCO, de esta AUDIENCIA NACIONAL,

Cumpliendo con lo ordenado por la Superioridad

MANIFIESTA.- Que identificado con el oportuno carnet profesional y en la hora, fecha y lugar referenciado, ha girado Cvisita para proceder al Reconocimiento y así entender sobre el estado de salud y otras circunstancias del detenido D. Iratxe Sorzabal Díaz de 29 años y profesion u oficio el cual y sin testigos, DICE: Que bien

ACLARACION.- por aparatos respiratorio

Exploracion.- TAC 17/8 y 86 ppmm La exploración cerebral practicada muestra

La dermitis eritema necrosis explicada ya la apreciamos.

CONCLUSION.- Iratxe a tardado en curación de primera asistencia 1 tarda en 48 o 72hrs para el punto de quemadura así como la fisura la extensión de una dermatitis en tanto lo que las fotografías del estado anterior patológico no fijada hace referencia.

Y no existiendo mas asuntos que tratar por parte de los convocados a este acto, firman el presente informe, juntamente con el Perito, de lo que yo, la Secretaria Judicial, doy fe.

Entzutegi Nazionaleko Auzitegi medikuak egindako txostena.



MINISTERIO DEL INTERIOR
DIRECCIÓN GENERAL DE INSTITUCIONES PENITENCIARIAS

DON D. 327
MÉDICO DE GUARDIA DEL CENTRO PENITENCIARIO MADRID V

CERTIFICO:
Que a las 21:15 horas del día 4-Abril-2001 he atendido al (1) interno de este Centro Don Iratxe Sorzabal Díaz, hijo de , y de , nacido el , en , y una vez identificado de la observ
Presenta lesiones plurinetiformes en cuello y pecho (derecho) Biopsiadas en hospital el 3-4-2001 y con puntos en cuello (pendiente de resultado de biopsia) Presenta zona eritematosa y edematosa en región cervical y región posterior de hombro derecho. Refiere molestias en zona de biopsia. Pendiente de resultado de biopsia
Presenta la lista D
La lesión es de pronóstico (2) Reglamentario hospitalario
Y para que conste, firmo el presente en Madrid V
a 4 de Abril de 2001.

El Médico,

nº Colegiado

Recibí copia,

Sr. JUEZ

Sarrera unean Madrid V espetxeko zerbitzu medikuek egindako txostena

INSTITUTO NACIONAL DE TOXICOLOGÍA
MADRID
Nº PROCESO 660
2 4 ABR 2001
SALIDA

INSTITUTO NACIONAL DE TOXICOLOGÍA
SERVICIO DE PATOLOGÍA FORENSE
MADRID

INFORME ANATOMOPATOLÓGICO que interesa al Juzgado de Instrucción Central de la Audiencia Nacional, sobre el estudio de la muestra remitida a este Centro, perteneciente a Dña. Sorzabal Diaz Irache, registradas en este laboratorio con el nº. 01.

MUESTRA RECIBIDA: Biopsia de piel

INFORME

Se recibe biopsia de piel de 3 mlm., correspondiente a la detenida Dña. Sorzabal Diaz Irache.

El examen microscópico de la lesión, muestra la presencia de infiltrado inflamatorio constituido por polimorfonucleares neutrófilos en la unión dermoepidérmica, con despegamiento de la epidermis. Se ha observado, necrosis parcelar del epitelio.

Los hallazgos microscópicos descritos son inespecíficos, por lo que para llegar a un posible diagnóstico de la lesión, así como del posible agente etiológico causal de la misma, sería necesario la correlación clínica macroscópica, así como la evaluación de la evolución de la misma.

Es todo cuanto tienen que informar a V.I.

Madrid, a veinticuatro de abril de dos mil uno.

Los Médicos Forenses Anatomopatólogos

Instituto Nacional de Toxicología delakoak egindako mediku txostena

JUZGADO DE INSTRUCCION Nº 13
MADRID

PLAZA DE CASTILLA, Nº 1, PLANTA 5ª
Teléfono: 91 - 397 05 67/ 68 Fax: 91 - 397 09 69

Número de Identificación Único: 28079 2 0159159 /2001
DILIGENCIAS PREVIAS PROC. ABREVIADO 2664 /2001

INFORME MEDICO FORENSE

ASUNTO: DILIGENCIAS PREVIAS PROC. ABREVIADO 2664 /2001

INFORME MEDICO FORENSE.- En MADRID , a veintiuno de Abril de dos mil uno .

Ante S.S.ª, con mi asistencia comparece el Sr. Médico Forense Dr. D. TAISIR TAUFIQ HAMDAN quien en virtud del Juramento que tiene prestado de cumplir bien y fielmente su cargo y cumplimentando lo ordenado por el Juzgado, informa:

Que en el día de la fecha ha reconocido a IRATXE SORZABAL DIAZ, de 29 años de edad, con el objeto de determinar la sanitad y las posibles lesiones sufridas, asimismo se estudio los documentos medicos obrantes en los autos llegando a las conclusiones siguientes:

En la exploración se la observa en el flanco derecho manchas dermatologicas y una cicatriz correspondiente a la toma de muestra de alguna de las manchas dermatologicas.

Asimismo se observa una alopecia en el cuero cabelludo en la región occipital.

Y según refiere se aquella de dolor cervical.

CONSIDERACIONES MEDICO LEGALES:

Por el estudio de la documentación medica obrante en los autos, asimismo de las pruebas complementarias practicadas a la informada como escaner, y del traumatologo y del de medicina interna y de dermatologia, se deprende lo siguiente: Que el unico diagnostico que tenia era una contractura de los musculos de trapecio en probable relación con proceso cronico que es donde se la aplico tratamiento de calor y paracetamol (500 miligramos cada 6 horas).

El resto de las pruebas complementarias normales queda pendiente hasta recibir el resultado de la biopsia de la lesión dermatologica para la determinación de la etiologia de la misma, por lo tanto no presentaba lesiones de naturaleza de violencia externa.

Leida, se afirma, ratifica y firma con S.S*, doy fe.

Madrileko 13. Istrukzio epaitegiko Auzitegi medikuak egindako txostena



SAN CARLOS

EL PACIENTE D./D. HA SUFRIDO UN TRAUMATISMO CRANEOENCEFALICO, NO OBSTIENDO EN EL MOMENTO ACTUAL SIGNOS DE AFECTACION NEUROLOGICA QUE INDIQUEN GRAVEDAD EN EL PROCESO (TRAUMATISMO CRANEOENCEFALICO MENOR).

SIN EMBARGO, PUEDEN APARECER EN EL TRANSCURSO DE LAS PROXIMAS HORAS O DIAS NUEVOS SINTOMAS QUE INDIQUEN LA PRESENCIA DE COMPLICACIONES, INICIALMENTE NO PREVISIBLES.

EL PACIENTE DEBERA PERMANECER ACOMPAÑADO TRAS SU ALTA HOSPITALARIA, DURANTE AL MENOS LAS PRIMERAS 24 horas. SI DURANTE ESE PERIODO APARECIERAN ALGUNO DE LOS SIGUIENTES SINTOMAS, DEBERA PONERSE EN CONTACTO CON SU MEDICO O ACUDIR DE NUEVO AL HOSPITAL:

- Somnolencia o dificultad para despertar al paciente (el paciente deberá ser despertado cada 2 horas durante periodos de sueño).
- Náusea o vómito repetido
- Convulsiones
- Incremento en el mareo
- Dolor de cabeza severo o persistente
- Pérdida de fuerza o adormecimiento de alguna parte de su cuerpo
- Confusión o conducta no adecuada
- Alteración visual con sensación de visión doble o borrosa o existencia de movimientos anormales de los ojos

Si existiera hinchazón en el lugar del golpe aplicará hielo, envuelto en un paño. Si a pesar de ello, la hinchazón continuara aumentando de tamaño, acudirá al hospital.
Podrá comer y beber líquidos, según su apetencia, no debiendo tomar ningún tipo de bebida alcohólica, ni fármacos que puedan producir somnolencia.
Si se han aplicado puntos de sutura acudirá a su Centro en aproximadamente 4 días.
Deberá continuar profilaxis antitetánica, si así se indica en su informe de alta.

Firma del Interesado



SAN CARLOS

TOS DEL PACIENTE

NHC

CUMPLIMENTACION OBLIGATORIA

Iratxe inkomunikatuta zegoen bitartean, San Carlos Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak egindako mediku txostenak.




INFORME DE URGENCIAS
67
DATOS DEL PACIENTE
NHC
CUMPLIMENTACION OBLIGATORIA



Residente 2º año Dermatología

Paciente presenta lesiones cutáneas que pero describir: vacío
el costado derecho de un area de aprox. 10 cm presenta lesiones de aspecto vesiculado eritematoso-violaceo-marronaceo que algunos puntos hace microcirculacion. En el resto resto presenta lesiones aisladas de las mismas caracteristicas en pequeño número.

Tomo biopsia de costado derecho y realizo Dermatoscopia.

Dado que no me consideno capacitado para emitir un Juicio Diagnostico, basado en el Jefe de Hospital y ante la imposibilidad de localizar a ningún adjunto de Dermatol... a enumerar las patologías que NO me parecen encajar con las lesiones presentadas por la paciente: Herpes Zoster, empleo medicamentos, Varicela viral, psoriasis, eccema crónica, patologías infecciosas como impetigo o tinea corporis, ni otras lesiones inflamatorias como eritema o pemfigoide.

Nº empleado 15170
Nº col. 28285390

Fdo Residente de Dermatología de 2 años de Dermatología ante la presencia de Adjunto de Guardia de [illegible]

Nombre
Nº empleado 11321
Colegiado 28284548
(Especialista en Med Interna)



INFORME DE URGENCIAS

68

SAN CARLOS
CLÍNICO

Atención Especializada Área I (Ma...

DATOS DEL PACIENTE NHC

CUMPLIMENTACIÓN OBLIGATORIA

COT
Rotulo [illegible] no alt neurológica valorable

Rx: No lesión ósea aguda [illegible] criterios de malignidad en columna cervical.

JD: Contractura [illegible] probable relación con precaria crónica.

Tto: Calor local
Analgesia 1er Paracetamol [illegible]
- Paracetamol [illegible]




69
ERACHE Sorzabal Díaz 29.
31-3-2001 UPH
ORIGEN URGENCIAS
REGION EXAMINADA
TC CRANEAL
13:30 horas
HOJA DE CONSULTA DE RADIODIAGNOSTICO
1. No se visualizan Líneas de Fractura
2. No Existen signos Radiológicos de
Sangrado Agudo Intra-Extraaxial en la actualidad
3. No observamos otras alteraciones
significativas.
FDO. Dr. Hernández García Borrego


HOSPITAL UNIVERSITARIO SAN CARLOS
MADRID

FRANCISCO SORZABAL DIAZ
31-3-01 UPH

ORIGEN URGENCIAS Rx
REGION EXAMINADA
Rx Cervical AP y Lateral

HOJA DE CONSULTA DE RADIODIAGNOSTICO

Rx Radiológico:
1. Rectificación de la Lordosis Cervical Fisiológica
2. Mínima subluxación posterior a nivel del espacio cervical C3 C4
3. No líneas de fractura
4. No observo otras alteraciones

Estudio Dinámico Cervical: no se identifican desplazamientos

FDO. Dr. [illegible]

SORZABAL KASUA ETA KOMUNIKABIDEAK

Laurogeigarren hamarkadan, komisaldegian Joseba Arregiren heriotzak asaldaturik, José Luis López Aranguren burutzat zuen ehunen bat espainiar intelektualek osaturiko talde bat espainiar polizia egoitzetan erabiltzen ziren torturen aurka azaldu zen El País egunkarian argitaratutako manifestu baten bitartez. Era berean, edozein polizia egoitzatan gertaturiko tortura kasu oro publikoki salatuko zutela adierazten zuten.

Izan ere, harez geroztik iragan urteetan guztietan eta gaurdaino aldagabean deliturik gaitzenaren kasuak bildu diren arren, prentsa torturaren salaketa, ebidentzia eta testigantzak bazter utziz joan da, gutxietsi eta irakurlea sineskaitzera edo erabateko distantzia eta erreparoez irakurtzera bultzatzeko albiste bilakatu arte, hizkuntzaren beharrezko baliapide eta baldintza guztiez adieraziak direnak.

Tamalez intelektuak talde hark ez zuen Madrilgo egunkariko adierazpena errepikatu. Agian, eta beste gauza batzuren artean, poliziek torturagatik jasotzen zituzten zigorrekin gertatu zen gisara, orduz geroztik komisaldegietan erabiltzen ziren tortura eta tratu txarrak argitaraezinezko berri bihurtu zirelako.

Tortura kasurik agertzen denean, espainiar komunikabideek sistimaz erabili informazio trataerari dagokionean eman berri den gertaerarik paradigmatikoenetakoa Sorzabal kasua deritzatena izan zen. Bera medio euskal hiritar bati eragindako tortura kasu

ezinnabariagoa harrotu zelarik eskandalutzat jo daitekeen arren, lotsagabekeria politiko eta profesionalaren mugako zerbait bezala ederki kalifika liteke, bere prozedura eta helmen informatiboari begira.

Askia da hemerotekari erreparatzea honen kalifikatzaile biribilik abalatzen duen datu bilduma egiaztatzeko. Bi tonu eta bolumen ezberdinetan mintzo zaigun prentsa idatziari errepasoa emateak, euskal disidentzia politikoaren aurkako jazarpena albiste gisara hustia dezaten espainiar medioei ezarri zaien irizpide politikoa argiro islatu eta zedarriztatzen digu. Hona ekarri kasuan, objektibotasuna galtzeko arriskurik gabe, badugu adieraztea badela neurrizgaindiko esberdintasun itzela atxilotu zutenean Iratxe Sorzabali –Sorzabal kasua— eman informazio trataeraren eta bere tortura salaketari emaniko trataera iheskor eta urriaren artean, bigarrenak alde espektakularrak hartu zituelarik, objektiboki, atxiloketa inkomunikatu betean zegoela ospital madrildar batean ingresatu zutenean egin zizkioten aparteko argazkiak bide.

Bihoa aurretik, bai eta ere, Iratxe Sorzabalena bezain anker eta zital diren kasuak epaitegietan salatzen direla maiz. Euskal hiritar honen kasuan gertatzen da bereziki bere torturak jendarteko dimentsioa hartu zuela bere lesioak argiki erakusten zituzten argazkien agertze aproposari esker.

Atxiloketa

Iratxe Sorzabal 2001eko martxoaren hogeita hamarrean atxilotu zuten, gutxi gora-behera goizeko bederatziak laurden gutxiagotan, lan egiten zuen Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolamendu antierrepresiboaren izenean Gipuzkoako herri batera prentsaurrekoa ematera zihoanean. Bere atxiloketa, gipuzkoan zertu sarekada handi baten azkena izan zen; sarekada honen lehen ondorioa, gero epailearen esku eta askatasunean ipinitako atxilotu batzuen testigantzak abalaturik, tortura nabarien salaketa zenbaiten aurkezpena izan zen.

Zirkunstantzia hauek ikaratu zituzten bere lankideak, atxiloketaren egun berean prentsa agiria zabaldu zutenak. Honetan,

Guardia Civilaren ziegetan Iratxe Sorzabal tratu txarren objektu izan zitekeen susmo eta beldurra adierazten zuten.

Iratxe Sorzabalen atxiloketak, ia hasieratik, leku handia bete zuen komunikabide idatzi eta ikus-entzutekoetan. Hernanin atxilotu eta biharamunean, martxoaren 31an, Egunkaria euskal medioak, bere 9. orrialdean eta lau zutabetan, bataz beste hogeita hamar lerrotan ematen zuen gertaeraren berri. Gara egunkariak, bere hamairugarren orrialdean, bost zutabetan eta atxiloketa lekuaren argazkiez azaltzen zuen gertaera. Bere kronikan goraipatzen zuen gaztearen atxiloketa gertatzen zela egun horietan emandako polizia operazioan izandako beste atxilotuen “tortura salaketa larriak” epaitegietan aurkezten ari zirenean.

Deia egunkari bilbotarrak zutabe batean hogei lerro eman zion hamalaugarren orrialdean Iratxe Sorzabalen atxiloketari. El Correo Español egunkariak solte –laburra- baino ez zuen sartu bere hogeitalaugarren orrialdean; bitartean, bere entrepresa-anaia den Donostiako Diario Vasco egunkariak hogei lerro ematen zion bere zazpigarren orrialdeko zutabe batean. Diario de Navarrak berria biltzen zuen, hogei lerro ematen ziolarik, baina garrantzi handiagoa ematen zion bere hirugarren orrialdean hiru zutabetan garatzean. Madrilgo El País egunkariak erizpide bera hartu zuen albistea kokatzean bere hamairugarren orrialdean, hogeitabost bat lerrotan hiru zutabetan.

Iratxe Sorzabalen atxiloketaren gaineko lehen berria El Mundo-ren orrialdeetan ere bildu zuten, bere zortzigarren orrialdean Gipuzkoan izandako polizi-operazioaren albistean kokatua; eta bai eta ABC-n ere, hogeitabigarren orrialdean ipini zuelarik zutabe batean.

Biharamunean, apirilaren batean, bakar-bakarrik Gara egunkariak ematen zuen atxilotuarekin zerikusia zuen zerbait, bi lerroaldetan gogoratzeko Iratxe Sorzabal Audiencia Nacionalera eramana izateko zegoela.

Apirilaren hiruan prentsaren informazio-segimendua datu berriak ematen hasi zen, zalantzarik gabe egunkari zenbaiti emandako polizi-filtraketetik sortuak. Euskal inguru abertzaleko Egunkaria, Deia eta Gara egunkariek informazio laburretan soilik euskal herritarra poliziaren esku zegoela gogoratu eta Irunen lagun baten etxeko miaketa aipatu bitartean, El Correo Español-ek

bere hemeretzigarren orrialdeko bi zutabetan oraindik atxilo zegoenaren aurkako lehen polizi-leporaketa larrien berri ematen zuen. Bere Bilboko entrepresa-anaiak bezala, Donostiako Diario Vasco-k zegokiona egiten zuen bere bigarren orrialdeko zutabe batean; Madrilen, bitartean, El Mundo-k lerroalde batean inputazio hauek beraiek biltzen zituen eta ABC-k, hogeigarren orrialdean eta hiru zutabetan, Iratxe Sorzabalen aurkako polizi-inputazioen gaineko polizi-informazio handiago eta osatuagoa ematen zuen.

Hurrengo egunean, apirilak 4, Iratxe Sorzabal gaztearen aurkako akusazio andana piztu zen. "El Correo Español" egunkariak, bere 21. orrialdean, eta hiru zutabeetan, txosten judizialik eduki ez arren, poliziak Iratxeren kontra egiten zituen salaketen bilduma zehatza azaltzen zuen. Albistea kaleratzeko aukeratu zen izenburua nahikoa argigarria zen: "20 atentatu leporatzen dizkiote AAB-etako Gipuzkoako Arduradunaren taldeari". Modu eta forma berdinak mantenduaz, "El Diario Vasco" egunkariak, bere 7. orrialdean agertzen zuen aipatu informazioa.

Desde Madrid, era el diario "El País" quien vehiculizaba la información facilitada por la Policía. El titular de su información, incluida en la página 15, a una columna, también era explícita: "La Policía atribuye más de veinte atentados al comando de la portavoz de Gestoras". Iratxe Sorzabal había pasado en cuatro días de ser portavoz de Gestoras a tener a su cargo un supuesto comando que habría cometido un sinnúmero de acciones armadas.

Madrilgo prentsari dagokionez, "El Pais" egunkaria zen poliziak emandako informazioa kaleratzen zuena. Zutabe bakarrean, 15. orrialdean txertatutako albistearen izenburua, nahikoa argigarria zen: "Poliziak, 20 atentatu baino gehiago leporatzen dizkio AAB-etako bozeramailearen taldeari". Iratxe Sorzabal, lau egunetako epean, AAB-etako bozeramaile izatetik, ekintza zenbaezinak burututako talde bateko burua izatera bihurtu zuten.

Apirilak 5ean, lege antiterroristaren arabera atxilotuak inkomunikatuta mantentzeko epea amaitzen zeneko egunean alegia, idatzizko prentsan Iratxe Sorzabalen inguruan idatzitako albisteak, bi norabide ezberdinetan banatuak ziren. Modu honetan, iritzi publikoak, egun horretan, eta agian, kontzientzi jakinik gabe ere,

Estatu espainiarrean kazetaritza egiteko bi moduak ikusi ahal izan zituen: batetik, iturri instituzionaletatik eratorritako informazioa zalantzan jartzen ez duten komunikabideak eta bestetik, instituzioetatik eratorritako albisteez gain, beste iturrietatik eratorritakoak ere kontuan hartzen dituztenak, azken hauek, aurrekoetatik eratorritakoak zalantzan jartzen dituztenak.

Aipatu apirilak 5ean, "Egunkaria"-k, bere 10. orrialdean eta 5 zutabeetan, Iratxe Sorzabal, Madrileko ospital batetara eramana izan zela zioen, dirudienez, bere atxiloketa denboran pairatu torturen ondorioz. "Gara" egunkariak, bere 15. orrialdean eta 4 zutabeetan, euskal gaztearen argazki batez lagunduta, honako izenburua argitaratzen zuen: "Sorzabalek ospitalean amaitu zuen tortura zantzuak zituela".

"Deia" egunkari bilbotarrak, arriskurik hartu ez eta bere 11. orrialdean, zutabe batean, "Iratxe Sorzabal espetxeratua izan da" esatera mugatzen zen. Honela, "Deia"-k, AAB-etatik igorritako prentsa-oharrari muzin egiten zion. Aipatu prentsa-oharrean, tortura salaketa xehetua azaltzeaz gain, Sorzabal Madrileko ospitale batetara eramana izan zela zioen.

Beste komunikabideek ere, muzin egin zioten jasotako albisteari, eta "El Correo Español" egunkariaren kasuan, ez soilik hori, baizik eta lotsagabeago jokatzera ausartu zen. Egunkari bilbotar honek, 20. orrialde osoa erabili zuen, ohiko iturrietatik jasotako informazio poliziala plazaratzeko. Honela, inolako zuhurtzi profesionalik gabe, ganoragabetasun osoz eta neurri juridikorik kontuan izan gabe, bere izenburuan honakoa zioen: "Espetxeratutako AAB-etako Arduraduna, enpresariak eta PPko zinegotzien zaintza burutzen zuen". Albisteak eragin haundiagoa izan zezan, ondoko zutabetxo batean, Iratxe Sorzabalek ustez erahildako pertsona baten alargunaren argazkia ezartzen zuten. Cristina Sagarzazu, Montxo Doral ertzainaren alargunaren argazkiaren azpian, "El Correo"-ren galderei erantzunaz, emakume honek, egitzat jotzen zuen Iratxe Sorzabalen atxiloketaren ondoren, "Hiltzaile bat gutxiago dabilela kaleetan". Errugabetasun zantzuaren printzipioa, ez dirudi existitzen denik aipatu komunikabidean.

"El País" Madrileko egunkarikoek ere, ez dirudi dakitenik zer den errugabetasun zantzua atxilotuaren eskubide bezala. Honela, egun hartako alean, 15. orrialdean, 30 lerrotako albistea osatzen

zuen honako izenburuaz: “AAB-tako bozeramailea, orain ETAren informazio emaile, espetxeratua bi erahilketagatik”.

Beste komunikabide batzu, “Diario de Navarra”, “El Mundo”, “La Razón” eta “ABC” adibidez, ebazpen judiziala argitaratzea mugatu ziren oraingo honetan, betiere informazio polizala argitaratzearekin batera. Beraien orrialdeetan argitaratutako izenburuek, gaztearen espetxeratzea eta inputazio polizialak jasotzen zituzten.

Lau hilabete beranduago, irailak 13an, Iratxe Sorzabal aske zen. Bere atxiloketa eman zenean, akusazio hain larriak egin zituzten komunikabide gehienek ez zuten albistearen berri eman. Kazetaritza lanbidearen ukapen erabatekoan, ez zuten zalantzan jarri ea nolatan posible zen aske geratu pertsona bat zeinak duela hain gutxi hain akusazio larriak jaso zituen: PP-ko zinegotzien eta enpresarien zaintza, ETAko talde baten burua, ETA-ren informazio emaile, 20 atentatu burutu, eta besteren artean, ertzain bat akatzearen arduraduna. Beste behin ere, “benetako egitate batek ezin du inondik inora izenburu on bat galdu arazi” kazetaritzaren esaera lotsagabea nagusitu zen.

Torturaren frogak

Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) 2001 eko urriaren 20 an eskeinitako prentsa aurreko batek torturaren iraupenenan komunikabideek duten inplikazio zuzena erabat agerian utziko zuen berriro ere.

Egun hartan, talde honetako eledunek, Iratxe Sorzabalek bere garaian aurkezturiko tortura salaketaz gain, Guardia Zibilaren egoitzatan eragindako elektrodoek zauritutako Iratxeren gorpuaren argazkiak erakutsi zizkioten iritzi publikoari. Argazki hauen kopia anitz banatu zitzaizkien Donostiako hotel batetan eskeini zen prentsa aurrekora azaldu ziren komunikabide guztietako kazetari guztiei.

Han azaldu zenez, argazkiak Madrileko San Carlos eritetxeko medikuek hartu zizkioten Iratxe Sorzabali, Guardia Zibilak Hernanin atxilotu eta hurrengo egunean. Bertan ikusten denak zalantza izpirik ere ez du uzten: elektrodoek sortutako erredurak.

Hedabideek eskeini zizkioten islada, dena den, beste moduko bat izan zen.

Gara egunkariak lehen orrialdean, Iratxeren gorputz zaurituaren argazki haundi bat argitaratu zuen. Argazkiari izenburu labur batek laguntzen zion: “elektrodoen marka”. Donostian argitaratzen den egunkariak bere iritzi orrialdeetan “ignominiaren frogak” izenburuko editorial bat argitaratu zuen ere, eta honetaz gain, TAT-en prentsaurrekoa garatzen zuten eta “argazkiek Iratxe Sorzabali ezarritako elektrodoen testigantza frogatzen dute” izenburupeko bi orrialde oso (11 eta 12) eskeintzen zizkion albisteari. Informazioari lagunduz TAT-ek banatutako hainbat argazki azaltzen ziren, eta 12. orrialdean deliktuaren argazkiak lortu izanaren apartekotasunaren inguruko azalpen-azterketa bat egiten zen.

Egunkaria-k ere luze hitzegiten zuen gaiaz. Nahiz eta Afganistandik iristen ziren berriak “beroak” izan (EEBBetako armada gatazkan zuzenean aritzen zen lehen eguna zen), bere lehen orrialdea bost zutabetan eta argazkiarekin eskeintzen zion albisteari. 6. eta 7. orrialdeak, argazkiekin batera prentsaurrea garatzeari eskeintzen zizkion. Bere 8. orrialdean Baionan hainbat euskal iheslarik emandako prentsaurrekoari eskeintzen zion Egunkariak. Prentsaurrean, iheslariek, Iratxe Sorzabalen gisara basatiki torturatuak izatearen beldurragaitik espainiar Estatura espultsatuak izatea arbuiatzen zuten.

Gara eta Egunkarian ez bezala, ikuspegi politikotik zein profesionaletik begiratuta beste komunikabide guztien urritasuna eskandaluzkoa izan zen. Hala frogatu zen ondoren, gertakizunak garatu ahala.

Egun hartan bertan, soilik bi egunkarik isladatu zuten TAT-en prentsaurrekoa: El Diario Vasco eta El Mundo. Beste guziek, Deia bezalakoeuskal esparrukoak barne, ez zioten ezta lerro bakar bat eskeini.

Donostiako Diario Vasco-k, 6. orrialdean eta bi zutabetan, 25 lerro inguruko laburpena eskeintzen zion TAT-en prentsaurrekoari. Argazki batzuetaz hitz egiten zuen, bainan ez zituen erakusten.

"Martxoan atxilotutako emakume baten aurkako ustezko torturak salatzen dituzte" izenburu aseptikoa ematen zion albisteari.

El Mundo egunkariak, prentsaurrekoan gertatutakoa 19. orrialdean eta hiru zutabetan azaltzea nahiago izan zuen, eta nahiz eta argazkirik ez erakutsi, "Amnistiaren Aldeko Batzordeetako emakume gazte baten aurkako ustezko torturen argazkiak aurkezten dituzte" izenburupean ematen zuen albistea...Harrigarria

Urriak 22an Gara egunkariak, 11. orrialdean eta bost zutabetan prentsaurrekoaren ondoren izandako informazio isiltasunaz galdezkatzen zuen bere burua. Donostiako egunkariak "Iratxe Sorzabalen zaurien inguruan isiltasuna" izenburutzen zuen hausnarketa.

Urriak 22an bertan, Gara eta Egunkaria-ren aurreko eguneko edizioak eta bertan argitaratzen zituzten albistea eta argazkiak ikusteko hogeitalau ordu eduki izanda ere, El Correo Español egunkariak, bere 20. orrialdean eta zutabe bakarrean bi egun lehenago izandako prentsaurrekoaren berri ematen zuen: "Atxilotutako Amnistiaren Aldeko Batzordeetako emakume militante bati eragindako torturak salatzen dituzte" zioen El Correo-k. Aurkeztutako argazkietaz mintzatzen ziren bainan ez zituzten erakutsi.

Urriaren 23an Gara egunkariak 23. orrialdean eta bost zutabetan Gasteizeko Jaurlaritzak kasuan esku hartuko zuela azaltzen zuen. "Lakuak Sorzabal kasuaren inguruko azalpenak eskatuko ditu, bainan ez du torturaren aurkako neurririk hartuko" izenburutzen zuen Garak albistea. Informazioa Nazioarteko Amnisitiaren arduradun baten adierazpenez laguntzen zuen: "baditugu beste kasu batzu, bainan hau oso kezkagarria da benetan". Egunkaria-k antzerako azalpena egiten zuen eta bere iritzi orrialdeetan iritzi agiri bat aurkezten zuen. Bi egunkari hauetan Gasteizeko parlamentuko Giza Eskubideen Batzoredearen, Arartekoaren eta Joseba Azkarraga, Gasteizeko gobernuko justizia sailburuaren adierazpenak ematen zituzten argitara.

TAT-ek eskeinitako prentsurrekoa ezkeroztik lehenenengo aldikoz, Bilboko Deia egunkariak, 12. orrialdean eta hiru zutabetan, "jusiziak Sorzabalen torturen inguruko salaketak ikertzen ari da" esaten zien bere irakurleei. El Correo Español-ek bere aldetik zortzi lerrotako "labur" batetan eta "ustezko torturak/Jaurlaritzak

esku artzea aztertzen du" izenburupean argitaratzen zuen albistea.

Denbora tarte baten ondoren, kasuak azaroaren 10an gaurkotasuna berhartzen du. Azaroaren 11ko egunkariek isladatzen dutenez, Arartekoak gaia mugiarazi nahi du. Gara egunkariak, 12. orrialdean "Arartekoak Sorzabal kasua Europara eramatea aurrikusten du" esateko hiru zutabe erabiltzen zituen. Kasu honetan, informazioa iturri instituzional eta ofizialetatik zetorrenez, El Diario Vasco-k ere jasotzen du, 8. orrialdean hiru zutabetan, 40 lerro inguruko informazio batetan. El Mundo-k ere jasotzen zuen albistea, 24. orrialdean. Besteek isiltzea nahiago izan zuten.

Azaroak 12an El Pais-ek kasua berhartzen du eta 27. orrialdean, hiru zutabetan, "Eusko Jaurlaritzak tortura ustezko kasu batetaz argipenak eskatzen dizkio barne ministeritzari" esaten du. Ikusten denez, oraingo honetan hizkeraren fintasunak perfekzioa ukitzen du. Sorzabal irmoki "ETAren informatzaile" gisa aurkeztu zuen egunkari berak, oraingoan eta torturen gaiaz aritzean "ustezko" terminoa etengabe erabiltzen du.

Azaroaren 14an gaiaren nabaritasuna areagotuz doa eta El Pais bera da iritzi publikoaren arreta mantentzen duena "Nazioarteko Amnistia Sorzabal torturatu ote zuten ikertzen ari da" esaten zuen 22. orrialdean, zutabe batean eta 25 lerrotan.

La Razon egunkariak ere sartu zuen muturra azaroaren 16an. "Barne ministeritzak Irache Sorzabalen torturak ezeztatzeko mediku txostenak igortzen ditu" esaten zigun egunkari honek. Informazioaren garapenean Pedro Morenés, Estatuko Segurtasunerako idazkariak, Juan José Martinez Leunda, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako eta Iustiziarekiko kooperaziuorako saileko zuzendariari emandako erantzuna argitaratzen zuen. Beste batzuen artean, Iratxe Sorzabalek zituen aztarnak "dermatitis" baten ondorioak zirela eta hau izan zela hain zuzen Madrileko erietxe batetan ingresatzearen arrazoia, esaten zuen Morenes-ek.

Zazpi egun beranduago, Gara egunkariak Gasteizeko Giza Eskubideen batzordearen ekimenetaz informatzeko orrialde oso bat erabiltzen zuen. "Giza Eskubideetako batzordeak tortura arbuiatzen du bainan ez du hau eragozteko neurririk hartzen". Orrialde honen alboan, 11.an beste izenburu bat: "Lakuak Rajoyri Sorzabal kasuan lagun dezan eskatzen dio". Egunkaria-k antze-

ko hitzetan mintzo zen eta Deiak “Eusko parlamentuak torturaren aurkako erabakia hartu du” zioen.

Beste hedabideak isilik zeuden... “Sorzabal kasuaren” errealitateak ez zien inolako titularrik zapuztu.

ELKARRIZKETA

Euskaldunon Egunkariak, 2001eko abenduaren 16an argitaratua

Zein da oraingo zure egoera?

Ez dut bizimodu normala egiten. Denbora pasa da askatu nindutenetik, baina bizimodu normala ez dut egiten. Ezin dut. Ez naiz etxetik ateratzen. Beldur naiz.

Berriz atxilotzearen beldur?

Bai. Guzti hori oraindik buruan dut. Kalera irtetzen banaiz, edozein momentutan iduritzen zait berriz atxilotu behar nautela, berriz guztia hasiko dela.

Zer da, mendeku baten beldurra frogak atera direlako? Bertze beldur bat?

Guztia da. Azkenean, lehenago gertatu zitzaidana orain gertatzea edo hainbeste euskalduni gertatu zaiena. Badirudi abertzalea izateagatik, gaur egun edozein momentutan eramaten ahal zaituztela. Nire buruan ditut, batez ere bost egun horiek. Ezin dut. Ezin dut.

Nola bizi izan zenituen komisaldegiko bost egun horiek?

Hartaz gogoratzea da, batez ere sentsazio bat. Barnean geratzen den sentsazioa heldu zaizu. Irudi pila bat berriz heldu zaizkit eta egin zizkidaten guztiak… Ikusten… hasten naiz gogoratzen eta…

Geroztik konzientzia hartu duzu zer gertatu zitzaizun?

Bai, bai. Denborarekin hartzen duzu konzientzia eta beste urruntasun batekin ikusten duzu. Pasa da, bainan torturaren ondorioak ez dira bost egun horietan azaltzen hasten, baizik eta seigarren

egunetik aurrera. Orduan hasten zara horri guztiaz pentsatzen. Handik aurrera, beste bat zara.

Komisaldegian sartu eta atera ondoan, zure bizia ezin da gehiago lehen bezala izan?

Noski gainditzen ahal dela eta nik ere gainditu ko dudala. Azken finean bizia aurrera doa eta gainditu behar duzu. Badakizu non zauden eta zergatik egin dizuten. Azkenean, estatuaren arma bat da tortura. Bainan desberdina. Gauzak beste erara ikusten dituzu. Nik orain ezin dut bizitza normala egin. Orduan, zerbait aldatu da.

Torturaren lekukotasunak lehendik ere baziren. Zuri gertatu arte, asmatzen zenuen zer izan zitekeen?

Ezin duzu imajinatu ere egin. Urte askotan beti irakurri izan ditut lekukotasunak, hitzegin izan dut torturatua izan den jendearekin. Beti da ezezagunaren beldur hori. Ezin da esplikatu pasa arte. Ezin da azaldu zer sentitzen den, inoiz sentitu ez dudan zerbait sentitu bainuen. Inoiz ere ez dut hainbeste min fisiko sentitu. Inoiz ez nuen imajinatuko horrelako min bat sentitzen ahal nuenik eta aguantatzen ahal nuenik. Eta inoiz ez dut sentitu horrelako beldurrik. Pasa arte ezin da imajinatu zer izan daitekeen. Orduan konturatzen zara zer den.

Hori gertatzen den mementoan baduzu hilko zarelako beldurra?

Bai, bai. Bainan, beldurra baino gehiago, gogoa. Nik ez nuen hiltzeko beldurra, gogoa neukan. Ezin duzu, bainan ahal izanez gero? Hori iduritzen zaizu momentu horretan. Gero, denborarekin, nire buruarekin beldurtu naiz pentsatuz hiltzeko gogoa izan dudala. Inoiz ez dut hiltzeko gogorik izan eta orain ez eta gutxiago ere. Bainan momentu hartan bai, lasaitasun bat bezala edo, gutxienez, hori bukatzeko zerbait bezala. Horregatik ezin dira esplikatu gauzak : sentsazio horiek – hiltzeko gogoa – ez dira bizitzen.

Min fisikoaz gain, bada torturatzaileen aurkako herra eta min morala ere, ala min fisikoak dena gainditzen du?

Ez, ez. Min fisikoa gauza bat da, bainan biak dira. Min psikologikoa da gehiena. Min fisikoa pasatzen da. Gelditzen dena psikologikoa da. Bai, pentsatuz hori berriz pasa daitekeela eta baita ere pentsatuz egin dizuten guztia, sinarazi dizuten guztia, lagunen izenak esan behar izatea, beraiek esaten dizuten guztia sinatzearena… Azke-

nean da, beraiek irabazi dutela zentzu horretan : lortu nahi zutena lortu dutela. Deklarazio bat ezartzen dizute aurrean, buruz ikasarazi, sinatu eta beraiek dira garaile.

Iraun duzula erran duzu. Nola posible izan zaizu irautea?

Banekien bost egun zirela eta horiek pasatzean epailearen aurrean pasako nintzela eta bukatuko zela. Denboraren nozioa ere ez duzu asko kontrolatzen. Orduan ez dakizu zenbat egun pasa diren eta zenbat ez, bainan badakizu bukatu behar dela. Gainera, ez dira bost egun. Dira bost egun eta bost gau. Kalean, pentsatzen duzu bost egun zein azkar pasa diren. Bainan bost egun eta bost gau horiek luzeago egin zaizkit azkeneko aldiz espetxean egon nintzen bi urteak baino. Zeren eta ez dago deskantsurik. Egunak dira, orduak dira, minutuak…

Forentsea ikusi zenuen. Lehen aldian ez zinen ausartu ezer kontatzera...

Ez. Lehen aldian ez nuen sinisten forentsea zenik. Pentsatzen nuen txakurra zela, besteak bezala. Izan zen momentu bat, gela batera eraman ninduten. Tipo bat azaldu zen, erakutsi zidan forentsea zela. Nik ez nuen sinistu. Oso oso gaizki nengoen eta gerturatzen zen bakoitzean salto egiten nuen: ez, ez, ez ukitzeko, uzteko… Lasaitzeko esan zidan. Egon nintzen ordu erdi, aulki batean dardarka, ezer esan gabe. Ezin nuen…

Bigarren aldian...

Biharamunean hitzegin nion. Lehen egunean, forentsea joan zenean eta eraman ninduteIarik beste galdeketa bat egitera, pasilloetan denak farrez ari ziren forentseaz. Zeren eta forentseak esan baitzien oso gaizki eta oso urduri ikusten ninduela eta lasaitasuna eta lo egin behar nuela. Forentsearen aurka oihuka ari ziren. Orduan pentsatu nuen : agian forentsea izango da… Biharamunean txikituta nengoan. Dena berdin zitzaidan, zeren eta ezin bainuen gehiago. Eraman nindutenean pentsatzen nuen izan zitekeela eta hala baldin bazen, agian zerbait egin zezakeela. Gutxienez frogaren bat edo geldituko zela… Eta ez bazen hala ere, total, pentsatzen nuen gehiago ezin zela… Orduan erakutsi nizkion zauriak. Orduantxe konturatu nintzen zaurietaz. Gelditu gabe egon ziren torturatzen ordu arte, ez nuen aukerarik izan ez eta nire gorputza ikusteko ere. Erakutsi nion eta tipoa izutu

zen eta esan zidan ospitalera eraman behar nindutela. Guardia Zibilek ez zuten batere gogorik. Gero etorri zen beste bat, ikusteko. Ikusi zuen berak ere eta ezin izan zuen ezetz esan.

Ospitalean inkomunikazio egoeran jarraitu zenuen?

Gainera, hasiera batean, mediku batengana eraman ninduten eta guardia zibilak ondoan. Medikuak galdetzen zidan zer nuen. Eta nola esan behar nion zer nuen eta hauek ondoan! Ezin nuen hitzegin! Azkenean galdetu zien ateratzea.

Inkomunikazio mementoan abokatu ofiziala ikusi zenuen. Zein izan zen haren jarrera?

Deklarazio polizialak eginarazi zizkidaten eta bakoitzean ofiziozko abokatu bat zela esaten zidaten. Pentsatzen dut hala izango zirela, bainan ez nekien zer ziren, benetakoak ziren ala zer… Gogoratzen naiz emakume batetaz. Gelara iritsi nintzen, mahai bat bazegoen, hor jartzen ziren guardia zibilak eta atzean zegoen ofiziozko abokatu hori. Ezin nuen begiratu ere. Sartu nindutenean ez nintzen ibiltzen ahal ere. Bi guardia zibilen artean hartu eta esertzen ninduten aulki batean, deklarazioa eginarazi, altxa, beste batean eserrarazi eta beraiek sinarazten zidaten. Gogoratzen naiz emakumea konturatu zela ez zela normala, bien artean laguntzea. Galdetu zuen ea zerbait pasatzen zitzaidan. Segidan guardia zibila hasi zen esaten: “lasai, lasai, pixka bat nekatuta dago”. Orduan emakumeak niri galdetu zidan zuzenean. Begiratzeko beldur ematen zidan, esan zidatelako ez begiratzeko ere. Momentu hartan ez nuen esan behar zer egiten ari zitzaizkidan. Ez nekien zer etorriko zitzaidan oraindik. Izu aurpegi batekin begiratu nion…

Epailearen aurrean pasatu zinen. Zein izan zen haren jarrera?

Buf! Epaileak ia ia ez zidan begiratu ere. Irakurri zidan zer zeukaten nire aurka, esan zidan ea deklaratu behar nuen. Bainan ez zuen begiratu nahi…

Zer gertatu zitzaizun bazekielako?

Noski bazekiela! Ziur naiz. Berak eta Entzutegi Nazionaleko epaile guztiek.

Gose greba egin zenuen presondegian zeundelarik, espulsatu eta ez zintzaten tortura. Zenbait hilabeteren buruan atxilotu zintuzten. Bazenuen horrelako zerbait gerta zitekeelako beldurra?

Bai. Gerta zitekeen. Beraiek ere gogorarazi zidaten. Ondo gogorarazi, gainera : nola gose greba egin nuen eta horrekin ondo matxakatu ninduten, farrez. Gogorarazten zidaten nola nengoen, 38 kilorekin, horrela egin eta eroriko nintzela. Esan zidaten, sendotzera utzi nindutela. Itxoin zuten.

Argazkiak atera zirelarik, nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzaren jarrera?

Jarrera epela. Gezurra dirudi. Gainera beraiek ondo dakite hemen torturatzen dela, beraien poliziak ere torturatzen duela. Gero konparatzen duzu beste ixtorio batzuekin, edozein pertsonagatik susmo txiki bat egiten dute eta segidan atxiloketak eta sarekadak gertatzen dira… Eta gero torturaren kasu bat aurpegiratzen diezunean, “ikusi behar dugu… ikusiko dugu frogak nolakoak diren…”. Eta hori nahiz eta argazkiak eta mediku forentsearen agiriak egon. Eta ez du zergatik egon behar, azken finean oso gutxitan ateratzen dira. Nire kasuan, badirudi pribilegiatu bat naizela. Badirudi Euskal Herrian Iratxe Sorzabal bakarrik torturatua izan dela eta horrek amorrua ematen dit. Aurten zenbat torturatu egon dira?

Eta badirudi kasu isolatu bat “salatuz”… Begira zer salaketa egiten ari diren! Ministeritza espainiarrari datuak eskatzen, ikertzeko… Bainan zer ikertu nahi dute? Nirekin hitzegin dezatela. Bainan ez nirekin bakarrik!

Espainol gobernuaren postura?

Argi dago. Betidanik erabili dute tortura. Beraien eguneroko arma da. Gauza bakarra, publikoki ez dutela onartzen, demokrataren aurpegi hori eman behar dutelako. Bainan beraien estrategian dago, ez da ezer berria.

Iniziatibak hartu dituzue nazioarteko egituretan, Espainia zigortzera behartzeko?

Kartzelan –Soton– nengoenean CPTkoak etorri ziren. Euskal preso batzuekin egon ziren eta galdetu zuten zer gertatu zen gurekin. Gertatzen dena da, ikusi behar dela zenbat denbora emanen den hori publikoki atera arte, espainiar gobernuak betoa baduelako. Amnesty International ere horretan dabil.

Azken aste hauetan Europako atxilotze eta entrega agindua negoziatzen ari dira. Horrek larriagotuko du torturaren arriskua?

Oraindik ez dago argi zer egingo duten. Bainan argi dago beste pauso errepresibo bat dela. Pauso berri guzti horiek eta gobernu espainiarraren joakera legitimatzeak beti kobertura gehiago emango dio zanpaketari eta torturari.

Eurolege horretan aipatzen da estatuek giza eskubideen oinarrizko arauak bete beharko dituztela. Espainiak ez baditu betetzen, Europak zigor dezake, ez?

Hori ere aspalditik gertatua da. Orain ere lege hori badago Europan. Eta espulsioen ixtorioarekin berdin: pertsona bat ezin da beste estatu batera espulsatu oinarrizko eskubideak errespetatzen ez badira. Estatu espainiarrean ez dira oinarrizko eskubide horiek errespetatzen eta estatu frantsesak zenbat espulsio egiten ditu? Azken finean, guztiak dira konplizeak.

Frantziako gobernuak horrela jarraitzeak zer erran nahi du, begiak tapatu nahi dituela?

Ez, ez. Frantziako gobernuaren jarrera ez da konplize jarrera, baizik eta erabateko inplikazioa gatazkan. Eta ez da bakarrik euskaldunak entregatzen dituelako, atxilotzen dituelako. Azken finean zanpaketan ere parte hartzen du. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako zapalkuntza hor dago.

Gobernu frantziarrari zure torturaren frogak helarazi zaizkio? Erantzun bat eman diote kasu horri?

Nik dakidanez ez. Espulsatu ninduteneko prozedura administratibo horrek oraindik hor dirau. Askotan espulsaketa gehienak legez aurka ateratzen dira administrazio auzitegietan, espulsatua izan eta urteetara. Ordurako, jada, espulsatua, torturatua, kartzelaratua izanik.

UNAI ROMANO

TESTIGANTZA

2001ko irailaren 6ko 04:00ak aldera lotan nengoen zarata batzuk esnatu ninduteneanean. Psilora irten nintzen eta han ikusi nituen zenbait Guardia Zibil, kaskoa eta txalekoa jantzita, pistolak eskutan eta nire gurasoekin eztabaidatzen. Nigana hurbildu ziren eta ea Unai Romano nintzen galdetu zidaten, nik baiezkoa erantzunez. Heldu eta etxetik atera ninduten, eskuak soka batekin lotzen zizkidaten bitartean. Ni etxetik atera eta jarraian hasi ziren irteten nire arreba, anaia eta gurasoak. Etxekoak kanpoan gaude eta armairuetako ateen zaratak entzuten hasi ziren. Anaiak aulki batzuk eskatu zituen nire gurasoentzat, nagusiak baitira. Erakunde armatuarekin kolaboratzeaz akusatuta nagoela esan zidaten eta une hartan hasi eskaileretatik paisanoz jantzitako Guradia Zibilak igotzen hasi ziren, epaitegiko idazkariak lagunduta, oroi dezakedana zuzena bada. Eskuburdinak jarri zizkidaten eta pisua miatzera zihoaztela esan zidaten. Nire logelatik hasi ginen. Gurasoak lekuko izan ziren nirekin, idazkariarekin eta dena begiratzen zuten hiru Guardia Zibilekin batera. Orriz orri, partituaz partitura begiratzen zuten. Logelaren miaketa bukaezina zen, izan ere bertan aita eta bion gauzan daude eta paper denak gordetzen ditugu; neuk esan ohi dut “paperzale” hutsak garela. Interesatzen zitzaiena mahai gainean uzten zuten: paperak lagunen telefonoak idatizta, telefonoaren ordain-agiriak, kotzekok giltzak, laneko gauzak (paperak) eta aita eta bion hamaika pa-

pertxo. Logelatik eraman beharreko ororen akta altxatu zuten eta hurrengora jo genuen. Ez da inoren gela, baina hor ari da lotan nire anaia Gerardo romano. Logela honetan ere denbora asko eman zuten eta anaiaren telefono agenda eta oroitzen ez dudan beste zer edo zer eraman zuten. Epaitegiko idazkaraia nekatzen hasi zen eta nagusiak arinago joateko agindu zien Guardia Zibilei, izan ere, miaketa oso astuna izaten ari zen, etxean diren armairu eta hainbeste gauza direla eta. Komunekin segitu zuten eta jarraian arrebaren gela, gurasoen gela, pasiloa, egongela, terraza eta sukaldea. Azken hauek arinago miatu zituzten eta oroitzen dudan bakarra da nire lagunen telefonoen liburuxka haru zutela halletik.

Miaketak iraun bitartean arreba eta anaia lanera joan ziren. Jasotako tratua zuzena izan zen eta nire amak miaketa osoa eman zuen negarrez eta ni besarkatzen ahaleginduz. Denaren akta altxatu zuten eta dena bukatua zutela ematen zuenean ganbararekin akordatu ziren. Ni igo ninduten, bi Guardia Zibilekin batera, igogailuan eta haike bi minututara igo ziren eskaileretatik. Ganbaran sartzen ari ginenean, nirekin fidatzen ez zirenez, nirekin estali ziren, eskua pistola-zorroan zuten bitartean. Ezer ez zuten handik eraman eta etxera jeitsi ginenean nire anaia Luis Mari bertan zegoen. Dutxa bat hartzen, janzten eta senideak agurtzen utzi zidaten, baina ahoa ere ireki gabe, miaketa osoan zehar izandako moduan.

Aterpera jeitsi ninduten eta izkina baten kontra jarri ninduten haiek ni nola atera eztabaidatzen zuten bitartean: haietako batek egin behar al zuen, edo bik, zein kotzetan, nondik sartu behar nuen, ea estali behar ninduten ala ez… azkenik estali eta haietako bik eraman ninduten. Hedabideren bat egonen zela suposatzen dut eta hargatik hainbeste prestaketa. Kotxean sartu ninduten 01/09/6ko goizeko 10:30ak aldera, uste dut.

Kotxeak ezagutzen ez dudan leku batetara eraman ninduen. Bidaia osoa ixilik egin dut, burua hankartean sartuta. Kotxetik jeitsi bezain pronto eskailera batzuk daude eta ez zidatenez ezer esan, bertan jausi nizntzen belaunekin. Buruestalki batekin sartu ninduten ziegara eta hormaren kontra jarri ninduten. Arnas hartzeko arazoak nituen eta nire zaintzan zegoen Guardia Zibilak arnas hartzeko eskubiderik ez nuela esan zidan.

Handik gutxira furgoneta batean sartu ninduten eta eskuburdinak jarri gabe Madrilera eraman ninduten. Bidaia, nabaritzen nuenez, abiadura handian gauzatu zen, motoreak ateratzen zuen zarata dela eta. Trasladoan zehar norbait sartu zen ni nengoen tokian eta atxilotuta zergaitik ote nengoan al nekien galdetu zidan. Neuk, atxilotutako beste norbait ezagutzen nuelako izanen zela ihardetsi nion. Berak, lagun moduan, kolaboratzeko gomendatu zidan, une horretara arte nirekin ondo portatu direla eta kolabora dezala.

Komisaldegiren batetara eraman ninduten, arakatu eta lau gomendio arras inportanteak eman zizkidaten: aginduka betetzea, begiak itxita izatea, haiei aurpegira ez begiratzea eta beste atxiloturen batekin topo eginez gero, hari ez begiratzea. Ziega batean sartu ninduten, zutik mantentzera derrigortuz.

Handik gutxira galdeketak hasi ziren. Kolabora dezadan eskatzen zidaten etengabe, burua kolpatzen zidaten bitartean, espuma edo zintaz estalitako makil batzuekin, ez nago ziur. Ez dakit nor ezaguzten ote dudan, bestea ezaguna ald dudan, ez dakit zein kotxe-bonba jarri ote nuen, besteari tiro egin al nion…gazau anitz egin ditudala esaten zidaten eta neuk guztia ukatzen nuen. Leporaketak ukatzerako unean, hirutan edo lautan kolpatzen ninduten estalitako makil haiekin eta gero berriro galdetzen zidaten. Kolpeak buruan eta kopetan izaten ziren beti (buruan diot, ilea dugun tokian). “Glogi” nengoenean kolpatzeari uzten zioten eta lagunei eta senideei buruz, nondik poteatzen nuen Gasteizko Alde Zaharrean, tabernarien inguruan, laneko kontuaz, politikaz, ikastolez, gaztetxeez eta abarrez galdetzen zidatean. Apur bat lasaitzen nintzenean eta ur pixka bat edan ostean (nahikotxo berreskurtazen laguntzen zidan urak, ez dakit drogaren bat izango ote zuen) berriro ere ekiten zioten galdeketei. Ea ez dakit nor ezagutzen ote dudan, ez zenbat kilo ote zituen lehergailuak, ea zenbatetan egon naizen Frantzian, ez lehergailuak pendulorik ote zuen edo ez…

Galdeketa guztiak begiak estalita egin nituen, lo egiteko erabiltzen diren estalki horietako bat jarrita eta maskara ho-

rren gainean buruestalki bat jartzen zidaten. Galdeketak gero eta gogorragoak ziren eta hiru buruestalki jartzera ere iritsi ziren. Uste dut hau kolpeak moteltzeko erabiltzen zutela, baina agobio sentsazioa ikaragarria zen eta zinez une latzak igarotzen ari nintzen.

Boltsa ere egin zidaten. Boltsa bat jartzen zidaten buruan eta kordokatzen nintzen arte ixten zuten. Hau zortzi bider edo egin zidaten. Gero, gauza bera, zorabiatuta edo nengoenean, nire bizitzari buruzko galderak egiten zizkidaten; ea nondik ibiltzen nintzen, norekin, ur gehiago eta berriro berdina…

Flexioak egitera ere behartu ninduten. Zutik nengoen eta kukubilkoz jartzera behartzen ninduten (honi igogailua deitzen zioten) igo eta jeitsi, igo eta jeitsi. Denbora luzez izaten ninduten hau egiten eta izerdiz beteta bukatzen nuen. Horrelako batean paper bat sinataraztea egin zidaten, epaitegirako uste dut, errepikatu behar izan nuena, izan erre, burutik jausten zitzaidan eta eskuetan zein besoetan nuen izerdiaz erabat bustita utzi nuen. Bigarrenez sinatzeko, gorputzean nuen izedi dena lehortearazi zidaten.

Galdeketek iraun bitartean beste jendearen min-oihuka entzuten nituen. Ez dakit zeintzuk izango ote ziren edo eta haiek berauek egiten ote zituzten, baina beldurgarriak ziren. Torturatzen ari ziren beste atxilotuenak zirela imaginatzen nuen.

Horrelako batean, galdeketa batetik atera ninduten eta ziegan zutik ninduten, haietako bat sartu zen eta begietako estalkia jarri zidan, jeitsi berriak nituen eskaileretatik igo ninduen eta emakume bat zegoen gela batera eraman ninduen. Mediko forentsea zela esan zidan eta bere karneta erakutsi zidan. 1989koa zen eta argazkian betaurrekoak zituen. Baina andre edo andereño horrek ez zuen betaurrekorik eta forentsea zenik sinisten ez badut ere bere galderak erantzun nituen. Leonor zuen izena, baina abizena ez dut oroitzen. Nire osasun egoeraz oro har galdetu zidan eta fisikoki leher eginda nengoela eta buruko kolpeena esan nion. Begiratu ninduen eta ezer deigarririk ez nuela esan zidan. Ez dut oroitzen boltsarena esan ote nion. Izandako ebakuntzaz galdetu zidan eta pairatzen dudan arristmia asintomatikoarena esan nion.

01/09/6ko, osteguna, 20:45ak zirela esan zidan eta lau edo bost ur baso edan nituen, bizitza osoan urik edan izan ez banu bezala. Ur honek ez zidan inongo sentsazio arrarorik eragin eta hargatik uste dut galdeketetan ematen zidatena drogatuta zegoela. Forentseak aztertu ninduen gelak zabalerako bi metro eta luzerako bost zituen; aulki bat zuen, bere medikulanabesak zeuden ohatila txiki bat eta konketa bat. Guardia Zibilak atearen atzean zeuden eta suposatzen dut haiek guk esaten genuena entzuten zutela, guk haien hitzak entzuten genituen moduan. Hurrengo goizean itzuliko nintzela esan zidan eta Guardia Zibilei hurrengo egunean ni eramateko esan zien.

Ziegara sartu ninduten eta handik minutu gutxira begietako mozorroa eta buruestalkia edo estalkiak jarri zizkidaten (ez dakit zenbat jarri ote zizikidaten). Beste leku batean sartu ninduten eta forentseari zer esan nion kontatzeko agindu zidaten. Komtatzen hasi nintzen eta haietako batek ero baten moduan oihukatzen mzotu zidan, zer esan nion bazekiela esanez. Jarrain 20 bider edo kolpatu zidan makil haiekin. Galdeketak hasi ziren, hauel aurrekoak baino askoz basatiagoak. Galderak berdinak edo anztekoak ziren, ez dakit nor ezagutzen ote dudan, ea noiz egon nintzen berarekin, kotxe-bonbarena, ea kidea edo kolaboratzailea ote nintzen, ea zenbatetan eta noiz egona nintzen Frantzian. Ezetz erantzuten nuen bakoitzean gogor kolpatzen ninduten. Ni zutik nengoen. Galderak etengabeak ziren eta kolpeak gero eta gogorragoak, baina orain haiek biratzen naute, bira bat hona, beste bat hara… hau dena kolpe eta galdera artean. Bi Guardia Zibil aulkitan igo ziren eta goitik kolpatzen hasi ziren. Gero eta bortzitzagoak dira eta kolpeak ezin ziren gogorragoak izan. Kolpeak beti buruan eta kopetan. Ez nekien zenbat denbora ote neraman hor, ez eta zer odu zen ere ez. Hankak dardarka nituela ikusi zuten eta atseden hartzen utzi zidaten. Ur gehiago, nondik ibiltzen ote naizen galdetu eta berriro gauza bera. Une hartan flexio horiek egiten jarri ninduten, zutik, kukubilkoz, zutik…baina kukubilkoz nengoenean buruan kolpatzen zidaten eta indarrarekin jausten nintzen, nahiz eta erabat jausi aurretik altxatzen ninduten. Gehiago ezin nuen arte behartu zidaten flexioak egitera. Atseden hartzen utzi zidaten eta hitz

egin ez duen “puta seme” bakarra nintzela esan zidaten eta ezer esaten ez banien berdin zitzaiela, hil zuten “Lasa hori” bezala irten behar nintzela. Haietako batek esan zidan hiru urte eman dituela kartzela Lasa eta Zabalaren kasuagatik eta berdin zaiola ni akatzea edo bizrik larrua kentzea. Ur gehiago, galdera gehiago eta berriro hastera. Aulki batean eseri ninduten, jadanik ez nintzen zutik mantentzen eta iraunkorki kolpatzen ninduten. Galderak jada ez ziren hain ohikoak baina kolpeak etengabeak ziren. Besoak jezartzeko aulki batean nengoen eta “glogi” nenbilen alde batetik bestera. Ez dute ni zorabiatzerik nahi eta gehiago ezin nuelak ikusten zutenean apur bat kontrolatzen ziren. Batek baxu hitz egin zidan belarrira, esanez zerbait konta nezala, asma nezala, hori dela bere lana, nik badudala nirea eta 20 segundu ematen zizkidala pentsatzeko, edo 30 edo tartetxo bat. Gero etorri zen eta ezer egin ez dudala esan nion. Histeriko jarri zen eta hortik aurrera arren hil nazala eskatuko niola esan zidan. Batzuren artean heldu ninduten (ez dakit zenbat) eta gogorrago kolpatu zidaten burua. Haiek nekatuz joaten dira eta txandaka egiten dute. Elektrodoak jarri zizkidaten, telebistan ikusten diren porra horietako batekin, uste dut. Elektrodoak barrabiletan, zakilan, belarrian eta belarrien atzeko partean jarri zizkidaten. Boltsa ere jarri zidaten eta kolpatzen segitzen zuten.

Leher eginda nengoen eta mehatxuka hasi ziren esanez nire neska laguna eta anaia bidean zeudela eta niri egindakoaren bikoitza egin behar zietela esanez. Ez dudala ezer egin esaten nien, ez eta nire neska lagunak edo anaiak ere. Ezagutzen nauela esan zuen pertsona bat ekarri zuten eta zerbait eman zidan. Une hartan heriotz mehatxua bota zidaten, zerbait kontatzen banuen. Pertsona hori berehala joan zen eta horren deklarazioa zutela esan zidaten eta edozer gauza konta nezala, berdin zitzaiela zer. Ez dakit zein zen pertsona hura, agian haietako bat.

Kolpeek segitzen zuten haietako batzuren artean eusten ninduten bitartean eta nire ama atxilotu dutela esaten hasi ziren eta Gasteiztik gertuko zingira bidean zegoela. Kolpeek segitzen zuen eta nik arren eskatu nien nire ama uzteko, inoiz ez duela ezer egin. “igogailua” egiten ari ziotela esan zidaten,

presan, oinak lotuta eta uran sartuta. Deiak entzuten ziren, zingiran zeudenekin hitz egiten egonen balira bezala eta batek oihu bat bota zuen, beste guztiak ixilaraziz. Aulki batean eseri ninduten eta nire ama hil zela komunikatu zidaten. Denak ixildu ziren, ahopeka hitz egiten zuten eta nik ez nien ezer ulertzen. Jada ez ninduten kolpatzen.

Ziegara eraman ninduten eta han izan nintzen ordubetez. Nire egora oso larria zen, gehiegizkoa. Burua izugarri handitu zitzaidan eta ez nuen ezer ikusten. Pentsameduak huts egin zidan eta amarena sinistu nuen. Burua sutan nuen eta nahi nuen bakarra handik irtetea zen. Bat–batean haietako bat sartu zen eta ohetik altxatzen ari nintzela ikusi zuen. Gauzak nola ziren jakingo nuela esan zidan, petaka bat ema zidan eta orduan ikus zidan aurpegia, buelta emateko agindu zidalarik. Ixildu eta joan egin zen. Handik gutxira beste bat etorri zen eta buelta emateko esan zidan ere, horrela egin nuen eta ohean botatzeko esan zidan. Beste bat etorri eta gauza bera. Horrela egon nintzen haietako seik ikus ninduten arte. Sutan neukan buru osoa, ukitu eta erabat handituta nuela somatzen nuen, begietan ere mina nuen eta buruak eztanda egin behar zuela sentitzen nuen. Amarenak histeriko neukan eta nire burua lesionatzea erabaki nuen, eskumuturretan horzka eginez. Eskumuturretan zauri txiki batzuk nituen edo hobe esanda, nabaritzen nituen eta lehendabizi hatzekin eta gero ahoarekin nire burua lesionatzea lortu nuen, ez dakit zein neurritan.

Bat-batean bat etorri eta altxatzeko esan zidan. Berarekin joateko esan zidan, atzetik heldu zizkidan eskuak eta orduan konturatu zen eskumuturrekin. Pasiloetatik eraman ninduten, eskailerak igo eta gela batean sartu ninduten. Mediko forenseak, beldurtuta, zer gertatzen zitzaidan eta zer egin ote zidaten galdetu zidan. Guardia Zibilak eskumuturrena esan eta joan egin zen. Berarekin utzi ninduten, histeriko nengoen, ez nuen amakumen haren ahotsa ezagutzen eta ezin nuen ikusi. Bere gauzak ukitzen hasi nintzen eta bere maletarekin akordatu nintzen, aurreko egunean ikusi nuena, txapa bat zuen izkina batean, ukitu eta aurreko eguneko mediku bera zela konturatu nintzen. Esertzera behartu ninduen eta ea zer moduz nengoen galdetu zidan eta buruak eztanda egin behar zidala

erantzun nion. 01/09/7ko goizeko 10:00ak dira. Guardia Zibilei agudo kotxe bat ekartzeko eskatu zien eta eritetxe batera abiatu ginen. Haiek eritetxe militar batera eraman nahi naute, baina medikuak ezetz esan zuen, ez dakit zein eritetxe "unibertsitariora" joateko esan zuen. Bidaian histeriko jarri nintzen eta medikuari nire ama hil dutela esan nion eta etxera deitzeko. Berak behin eta berriro hori ezin zela egia izan errepikatzen zidan eta eskutik heldu zidan bidaia osoan.

Eritetxera iritsi ginen, larrialdietatik uste dut. Aulki gurpildun batean eseri ninduten eta eskumuturrena sendatu zidaten. Mediko forensea medikuekin hitz egitera joan zen eta norbaitek ahopeka ea zer gertatu zaidan eskuetan galdetu zidan belarrira (uste dut Guardia Zibila zela) eta nik begietan zer egin ote didaten galdetu nion; ez zidan ezer esan eta urrundu zen. Gero mediko forensea etorri zen eta epailearekin hitz egin duela eta honek nire amari ez zaiola ezer gertatu esan diola ziurtatu zidan. Eskutik heltzen segitzen zuen eta ni lasaitu nahian zebilen.

Frogak egiten hasi ziren. Haien kezka handiena burbuima ondo izatea zen, hau da, haustura kraneoenzefalikoa ez izatea. Buruan bi eskaner egin zizkidaten, resonantzia bat, TAG bat, buruko, lepoko eta bizkarreko erradiografiak eta beste zenbait ahoan. Litekeena da frogaren bat ahaztu izana. Mediko forensea kezkatuta zegoen denbora asko eduki nindutelako frogak egiten hasi baino lehen eta behin baino gehigotan adierazi zuen bere kexa eritetxean. Hospitalekoek itxaroteko esaten zioten. Ez dakit zenbat orduz eduki ninduten bertan, baina forenseak bertan ingresatu behar nindutela esan zidan, epailearekin harremanetan zegoela eta hark bazuela gertatutakoaren berri.

Froga bat egiten zidaten bakoitzean, mediko forensea etorri eta buru-hezurra ez nuela apurtuta esaten zidan. Minak bizirik hiltzen ninduen eta ez zidaten ezer eman nahi frogen emaitzak izan harte. Berak eskua ematen segitzen zuen. Denborarekin buru-hezurran haustutarik ez nuela esan zidaten eta edema eta lepoko giharretako kontraktura nuela esan zidaten. Burua eta lepoa erabat handituta nituen. Mediko forenseak burua more kolorekoa eta begiak beltz nituela esan zidan,

baina hau normala zela edema bat izanez gero. Lepoa zuzentzeko zera jarri nahiz zidaten, baina hain loditua nuenez, denak geratzen zitzaizkidan txiki eta ordu bete eman zuten tamaina egokia zuen bateon bat bilatzen.

Une batean mediko forenseari egin zidatena kontatu nion eta elektrodoena esan nionean, belarria begiratu zidan eta goiko partea erreta nuela eta atzetik lodituta nuela esan zidan. Xiringa batekin ziztada jarri zidaten eta zenbait pirula eman zizkidaten eta handik gutxira mina jesiten zela nabaritu nuen. Azterketa mediku oso bat egin zidaten, mota guztietako koorrdinazio frogak barne (besoa mugitu eta hatzarekin sudurra ukitu, mailua belaunean eta abar luze bat). Oftalmologoa falta zen ni ikusteko, ezin bait nituen begiak ireki. Leonor etorri zen (mediko forensea) eta espetxe bateko erizaintzara eraman behar nindutela esan zidan, baina lehenago egondako komisaldegira eraman behar nindutela eta gero espetxera. Ikaragarrizko beldurra sartu zitzaidan, baina bera lasaitzen saiatzen da esanez epaileak badakiela eta ez didatela ezer egingo eta bera nire ondoan une oro egoten saiatuko dela. Medikoak edo eritetxekoak pirulak eman zizikioten forenseari eta izotza jartzeko esan zioten.

Polizia-etxera eraman ninduten eta forensearekin batera sartu ninduten bere gelara. Berak aulkirik erosoena eskatu zuen eta besoak jartzeko ere ez zuen bat ekarri zidaten. Eseri nintzen. Izotza ekarri zidaten eta segundu batzuz jarri nuen egokia neritzon tokitan. Denbora luzez jartzen banuen min egiten zidan, beraz une oro mugitzen egon behar nuen. Bazkaria ekarri zidaten, arratsaldeko seirak zian arren, gutxi gora behera. Janaria 2 yogur eta sanwich bat ziren. Mediko forensea nire ondoan eseri zen eta yogurrak jaten eman zizkidan; sandwicha ezin nuen jan. Berak epaitegira joan behar zuen eta bakarrik utzi ninduen bi ordu inguru. Denbora horretan zehar bi guardia zibil egon ziren atean, niri begira eta etengabe barrez. Txandakatzen ziren eta nire aurpegiaren itxuraz barre egiten zuten, txerri bat edo mounstro bat naizela eta antzeko tontakeriak esaten zizkidaten botartean. Nik bitartean geldirik segitzen nuen eta soilik izotza jartzeko mugitzen nintzen. Kolpatzera zetozelaren itxurak egiten zituzten, baina ez

ziren egitera iristen. Gela horretan egon nintzenan ez zidaten ez eta ukitu ere egin. Minak darrai eta lasaitzen nauen bakarra geldirik egotea eta izotza ematea da.

Mediko forensea itzuli zen eta gainontzeko atxilotuengana joan behar zela esan zidan, bisita pasatzera. Bakarrik utzi ninduen. Barrezka eta txantxekin segitu zuten. Bat oihuka zetorrela entzun nuen, nire afaria zekarrela esanez eta yogurrak nola nahasten zituzten eta edaten zituztela entzun nuen, barre geiten zuten bitartean. Denbora nahiko igaro zen eta minak berriro ere gehiagora jotzen zuen. Minaz kexatzen nintzen eta mediko forensea bilatzera joateko agindu zieten batzuei, baina denborak aurrera egiten zuen eta ez zen inor etortzen. Batbatean, haietako bat etorri zen "ampolla" batekin (apurtzen ari zela entzun nuelako badakit) eta niretzat zela esan zuen. Baina ez nintzen fidatu eta zurrupada txikia bota nion. Zapore nazkagarria zuenez, urruntzen zela entzun nuenean, gainontzeko likidoa ondoan nuen kojinezko aulki batera bota nuen. Ez dakit hori egiten ikusi ote ninduen, baina ez zidan ezer esan. Medikamendua oso gogorra zen eta lo egiteko izugarrizko gogoak sartu zitzaizkidan, beraz ahalegin handiak egin behar izan nituen loak ez hartzeko.

Handik ordubetera gutxi gora behera, kotxe batean sartu ninduten eta tontakeriak egiten hasi ziren ezagutzen ez nuen leku batera joaten ginen bitartean. Abiadura azkartzen zuten eta gero bat-batean seko gelditu, sirenak pizten zituzten eta sisi-saga gidatzen zuten. Musika oso altu jarria dute eta bitan edo kotxea galditu zuten. Aurrean zihoaztenak jeisten ziren eta atea irekitzen zidaten, atera behar nindutenaren itxurak egiten, baina gero aurrera segitzen genuen. Sigi-saga egin zuten batean burua lehiatilan jarri behar izan nuen ez kolpatzeko eta kortina bat zegoela nabaritu nuen. Tontakeriak egiten segitu zuten, lehenengoa, bigarrena sartzen eta gero bortizki geldituz. Ez dakit zer bilatzen zuten, baina nik nahikoa nuen loak ez hartzearekin.

Bat-batean gelditu ginen eta eta ondoan dudan Guardia Zibilak ea Guardia Zibilarekin hitz egin nahi ote dudan galdetu zidan. Ezetz erantzun nuen eta kotxetik jeitsi ninduten. Irekitzen eta ixten ziren ateen zaratak entzuten nituen eta espetxe batean nengoela imaginatu nuen, baina ez nintzen fidatzen. Bi argazki atera zizikidaten eta hatz-erexak hartu. Belarrira nire gauzaei buruzko zerbait esan zidaten eta neuk zerbait falta zela eranztun nien, baina hori zela zeukatena esan zidaten. Erabat itsu eta apur bat "tontotuta" nengoen eta medikuengana eraman ninduten. Gainetik begiratu, zerbait galdetu eta lo egiteko laguntzaren bat jarriko zidatela esan zidaten, nik bakarrik ezin bainuen ezer egin eta bi ohatila, komuna eta dutxa zuen ziega batetara sartu ninduten. Laguntza kolonbiar bat zen, etzatzera, txisa egitera eta ohetik altxatzera laguntzen ninduena. Pirula batzuk eman zizkidaten eta "laguntzak" esan zidanez pare bat orduz lo egin nuen. Goizean hitz egin genuen eta aurpegia erabat handituta nuela esan zidan, begiak belztuta eta gainonztekoa morea nuela, susur punta eta ezpainak kenduta, hauek kolore normala omen zuten. Laguntzaz aldatu eta beste bat jarri zidaten. Kolonbiarra hau ere eta besteak esandakoa errepikatzen dit, aurpegia erabat handituta nuela, begiak beltzak eta aurpegia morea. Jakin nuenez, kartzelara 01/09/8ko gauerdiko ordu batak aldera iritsi nintzen. Soto del Rela espetxean nengoen, erizaintza moduloan, isolamenduan.

Bigarren kolonbiarra iritsi eta bi ordutara, inkomunikatua nengoela esan zidaten eta beraz, ezin nuela laguntzarik izan. 01/09/8ko goizeko 11:00ak dira. Une horretatik aurrera dena ukitzen joan behar zian nuen, komunera joan ahal izateko, ohera, jateko… Egun hauetan konturatu nintzen zein gogorra behar duen zian itsu egoteak.

Medikuek tentsioa, pultsoa eta tenperatura hartu zidaten. Sobre bat (espidifen 600), nolotil eta beste bi pirula giharretako kontrakzioarentzat eman zizkidaten. Tentsioa egunean bitan hartzen zidaten eta medikazioa hirutan eman, gauez beste pirula bat ematen zidaten sabla babesteko.

Larunbata 8 igaro zen eta igandea, arratsaldera arte. Dutxa bat haru nuen eta zer edo zer ikusten hasi nintzen. Hasieran hondartsua zen dena eta orduek aurrera egin ahal hobeto ikusten nuen. Begien ingurunean belztuta nuen, begien alde txuria odolarekin nuen, eta aurpegi osoa handituta eta morea (esan zidatenaren arabera) baita lepoa eta bizkarra belztuta

ere. Handidura jesiten ari zela nabaritzen nuen, emeki-emeki, nahiz eta minak eta burua erreta bezala nuenaren sentsazioak segitzen zuten. Ezin nuen lorik egin, burua jezartzerakoan min egiten baitzidan eta medikuari medikazioa handitzeko eskatu nion. Bi nolotik eman behar zizkidala esan zidan, baina bi pirula ekarri zizkidan, bata berdea eta bestea txuria eta bi hauek oso gogorrak zirenez zorabiatzear ere geon nintzen bitan. Pirula horiek ez nituela nahi eta bi nolotik ekartzeko esan nion medikuari.

Egunean 24 orduz eduki ninduten erizaintza moduloan eta ez dute inork ni ikustea nahi, izan ere nire aurpegiaren itxura arras deigarria zen laguntzen arabera, hauek bai ikusten baininduten janaria ekartzera zetozenean. Oso txarto lo egiten segitzen nuen.

Astelehenean, 01/09/10, epaitegiko beste mediko forense bat etorri zen 8ez dut bere izena ondo gogoratzen, baina espainiar aktore ospetsu baten antza zuen), epaitegiko idazkaria zela esan zuen neska batekin batera. Ea hurrengo eguenean epailaren aurretik pasatzeko prest ote nengoen ikustera zetozela esan zidaten eta azterketa madikoa egin zidaten. Mediko forenseak nire egoeran berri hartu zuen, batip bat aurpegia eta lepoarena. Zerbait esan nahi izan nionean, hori epailearen aurretik igarotzeko tramite hutsa zela esan zidan. Prest nengoela adostu genuen, ez oso baldintza onetan, baina onartu nuen. Gauean hurrengo eguneko goizekko zazpiretan altxatu beharko nuela esan zidaten.

Ingresotara eraman ninduten, gosaria eman eta gero Guardia Zibilen esku utzi ninduten, Auzitegi Nazionalera eraman ebahr nindutenak. Eskuburdinak jarri behar zizkidanari eskumuturrak minduta nituela esan nion eta ez jartzeko. Hori ziurtatzen zuen paper medikorik ote nuen galdetu zidan eta ezetz erantzun nuenez bizkarrean jarri zizkidan. Auzitegirainoko bidaia oso latza izan zen, oraindik ez bainengoen ondo. Behin hara iritsita, polizia nazionalaren esku utzi ninduten eta batak “pulpoarena” egin didatela esan zion beste bati (olagarroei ematen zaizkien kolpeak direla eta). Ziega batean sartu ninduten. Handik gutxira atera eta ustez epaitegiko idazkariarengana eraman ninduten eta nire eskubideak irakurri zizkidan (bitan irakurri behar izan nituen apur bat “tontotuta” nengoelako). Iker Urbina izendatu nuen abokatu gisa eta mediko forensea ikusi nahi nuela esan nion. Ziegara eraman eta handik gutxira berriro atera medikuarengana joateko. Min berri bat nuela esan nion, bularrean, mugitzerakoan handitzen dena eta arnasik gabe uzten nauena. Nota hartu eta azterketa bat egin zidan. Torturak eta tratu txarrak detaile handiz kontatu nizkion, baina hori epaileari esan behar niola erantzun zidan. Idatzi zuena ea irakur nezakeen galdetu nion eta ezetz esan zidan, baina azkenean, gogo barik, irakurri zidan. Ziegara eraman eta handik gutxira epailearen aurrera eraman ninduten.

Ziegatik epailearen gelarainoko bidea txaketa buruan egin nuen eta ezin nuen ezer ikusi. Deklarazioa hasi zen. Galderak erantzun eta leporaketak ukatu nituen. Zerbait gehitu nahi ote dudan galdetu zidanean torturena eta tratu txarrena kontatzen hasi nintzen. Minutu erdira geldiarazi ninduen, esanez urte asko daramala Guardia Zibilarekin lanean eta jende askok diola torturak pairatzen dituela eta ez didala sinisten. Gainera, deklarazio polizialik ez dagoenez, hori ez dela salatzeko lekurik egokiena eta joan nadila epaitegira salaketa jartzera. Erabat harrituta gertau nintzen, idazkariari begiratu nuen eta buruarekin baietz erantzun zidan, nire ofiziozko abokatuak ez zidan begirada kentzen (harrituta egongo zen markengatik) eta berak ere ez zuen ezer esan. Antza deklarazioa bukatuta zegoen. Froga kaligrafiko bat egin eta nire abokatuarekin egon nintekeela esan zidaten.

JUZGADO CENTRAL DE INSTRUCCIÓN
NUMERO UNO
AUDIENCIA NACIONAL
MADRID
PROCEDIMIENTO : D. P. 342/01

INFORME MEDICO FORENSE

En Madrid a 10 de septiembre de 2001

Ante el Magistrado-Juez Instructor, y de mi la Secretaria Judicial, comparece el Médico Forense, en funciones de guardia, D. JUAN M. MONGE PEREZ, quien juramentado en legal forma dijo:

Que en el día de la fecha y acompañado por la Secretaria de este Juzgado me he personado en el centro Penitenciario Madrid-V(Soto del Real), en dependencias de la enfermería, al objeto de reconocer a UNAI ROMANO IGARTUA.

Refiere tener sensación de quemazón en cuero cabelludo, que cuando se toca le duele; dolor en espalda y cuello. No presenta mareos.

Manifiesta que no puede dormir bien, por no poder apoyar correctamente la cara y cabeza sobre la almohada; si toma alimento, ayer se duchó sin ayuda de terceras personas y deambula sin problemas.

Porta collarin cervical. A nivel frontal presenta una contusión evolucionada y con cambios cromáticos que, parece más intensa a nivel derecho, hematomas en ambas órbitas con derrame sanguineo subconjuntival en ambos ángulos externos de ojos. Cambios cromáticos en cara y cuello, siendo más intenso en hemicara derecha, compatible con la evolución de las contusiones por efecto de la emigración sanguinea por efecto de la gravedad.

En ambas caras ventrales de muñecas presenta una herida en fase de cicatrización, no presentando signos de infección.

Movilidad ocular y de anejos , así como reflejos presentes. Si puede leer y lo hace correctamente en esta exploración. A la palpación superficial de áreas lesionales no refiere dolor. Movilidad cervical conservada y limitada(sin forzar) en sus movimientos habituales en un 50% aproximadamente.

Entzutegi Nazionaleko Auzitegi medikuak egindako txostena.

– 67 –

Está consciente, orientado en tiempo y espacio, colaborador a la exploración, no alteración del curso ni contenido del pensamiento. Expresa que quiere y está en condiciones de desplazarse para presta declaración judicial.

En la actualidad porta collarin cervical y se le administra:

Adolonta 1-1-1

Nolotil 1-1-1

Espirifen200 1-1-1

Ranitidina300 0-0-1.

Está pendiente de consulta y exploración oftalmológica en próximos días.

De todo lo anterior puede concluirse que desde el punto de vista Médico-Legal, no existe inconveniente para que pueda desplazarse, en vehículo ordinario, a la Audiencia Nacional y preste declaración.

Leído el presente, se afirma, ratifica y firma con S.S. de lo que yo, la Secretaria Judicial, doy fe.

– 68 –

MINISTERIO DEL INTERIOR
DIRECCIÓN GENERAL DE
INSTITUCIONES PENITENCIARIAS
CENTRO PENITENCIARIO MADRID V
[illegible]

Soto del Real, 11 de septiembre de 2001

JDO CENTRAL INSTRUCC Nº1
MADRID

Teniendo prevista su comparecencia en ese Juzgado el/los próximo/s día/s **11/09/01** el interno/s de este Centro.

ROMANO IGARTUA, UNAI	D.P. 342/01

Se informa sobre la peligrosidad del mismo y la posibilidad que pueda/n protagonizar algún tipo de **incidente**.

Señalar que dicho interno está incomunicado.

EL DIRECTOR

Entzutegi Nazionaleko Auzitegi medikuak egindako txostena.

NUMERO UNO

AUDIENCIA NACIONAL

MADRID

Procedimiento :

INFORME MEDICO FORENSE

En Madrid a 11 de septiembre de 2001

Ante el Magistrado-Juez Instructor, y de mi la Secretaria Judicial, comparece el Médico Forense, en funciones de guardia, D. JUAN M. MONGE PEREZ, quien juramentado en legal forma dijo

Que siendo las 10.45h. del dia de la fecha, me he personado en los calabozos de esta Audiencia Nacional, al objeto de reconocer a UNAI ROMANO IGARTUA.

Refiere encontrarse mejor que en el dia de ayer, sigue durmiendo con dificultad, y sentir dolor a nivel inferior de esternón al realizar giros con el cuerpo.

Quiere manifestar que la detención en Vitoria no fue violenta, que tras ella recibió unos golpes el las rodillas, al empujarle contra el suelo. En Madrid después del 1º reconocimiento Médico-Forense y hasta el 2º, le golpearon con un palo o una porra forrada con algo, en cabeza y cuello, mientras le forzaban a realizar flexiones sobre las rodillas y estando sentado en una silla, en esta última posición, dice que no podia defenderse; que le colocaron electrodos en testiculos y retroauricularmente, así como que le amenazaron con hacerle daño a sus familiares, sobre todo hacia la persona de su madre, haciendole creer que estaba muerta. En este 2º reconocimiento la Médico Forense le remitió inmediatamente al hospital.

Las lesiones descritas en el anterior reconocimiento, han disminuido en intensidad, evolucionando favorablemente hacia la curación; a la palpación presenta dolorimiento en región frontal derecha y en occipucio. A nivel genital no presenta lesiones ni marcas retroauriculares. No lesiones en rodillas.

T.A. 130/70, frecuencia cardiaca78p.m. leve arritmia que le diagnosticaron en reconocimiento laboral como asintomática y que no precisa tratamiento. Está consciente, orientado en tiempo y espacio, discurso coherente. No existiendo inconveniente para que preste declaración.

Deberá seguir con el tratamiento pautado hasta nueva valoración

Leido el presente, se afirma, ratifica y firma con S.S. de lo que yo, la Secretaria Judicial, doy fe.

Entzutegi Nazionaleko Auzitegi medikuak egindako txostena.

Juzgado Central de Instrucción nº 1 de la Audiencia Nacional .
diligencias previas 342/01 guardia

ACTA DE DECLARACIÓN.

En la villa de Madrid, martes 11 de septiembre de 2001.

Ante el Ilmo. sr. Magistrado de este juzgado, con mi asistencia y la del Ministerio Fiscal, comparece quien dice ser y acredita llamarse **UNAI ROMANO IGARTUA, identificado en estas actuaciones**, asistido del letrado del turno de oficio, doña Maria Teresa Ramiro Arcas, colegiada 18257 de Madrid, para la practica de la declaración de aquél, a quien se instruye de sus derechos constitucionales y más concretamente del que tiene de guardar silencio, no confesarse culpable, y no contestar a las preguntas que se le formulen, excepto el de nombrar abogado de su elección, dada su condición de incomunicado.

Abierto el acto por el Instructor, es preguntado si está dispuesto a prestar declaración, y manifiesta que si.

Preguntado si conoce a Juan Carlos Subijana, manifiesta que no. Tampoco conoce a nadie apodado "Champi".

Se le pone de manifiesto la declaración prestada por Subijana ante este juzgado y las imputaciones que vierte contra el detenido relacionadas con labores de captación para la organización terrorista ETA y contactos con miembros de ETA, donde dice que Unai Romano tuvo contactos con miembros de ETA para restablecer el contacto a efectos de una nueva captación. Preguntado por el Instructor si todo esto es cierto, manifiesta que no ha tenido ningun contacto con miembros de ETA. Todo es totalmente falso.

Preguntado por el Ministerio fiscal si conoce a Zigor Bravo, responde que cree saber quién es. Era camarero de un bar. No conoce a José Manuel Cortazar. No sabe quién es Unai López de Ocariz, ni Aitor Garcia Arriaga, ni José Antonio Cortés, ni Susana Achacrandio, ni Joseba Gorosarri.

Preguntado por su actividad laboral, manifiesta que trabaja en la empresa de automoción de Mercedes, en Vitoria. No ha recibido nunca ninguna propuesta de captación para la banda terrorista ETA. Tampoco ha colaborado con la organización ETA. No encuentra explicación para que Subijana haga estas imputaciones contra el declarante porque no existen causas de enemistad entre ambos.

Unai Romanok Entzutegi Nazionaleko Guillermo Ruiz Polanco epailearen aurrean eginiko deklarazioaren akta

Preguntado si estaría dispuesto a practicar una diligencia de cuerpo de escritura para contrastarla luego con textos manuscritos hallados en registros domiciliarios en Vitoria, manifiesta que no tiene, en principio, ningún inconveniente en practicar ese cuerpo de escritura.

Preguntado por s.S^{a}, si pertenece a ETA, manifiesta que no.

Por la defensa no hay preguntas.

El detenido quiere dejar constancia de los malos tratos que ha sufrido ante la Guardia Civil. El momento de la detención fue correcto; el registro en casa de sus padres fue correcto; el primer traslado a dependencias policiales fue correcto hasta que le trajeron a Madrid. El trayecto también fue correcto. En un calabozo empezaron los interrogatorios con unos cuantos golpes en la cabeza con porras o palos. Se lo comentó a la médico forense, y esta le dijo que no tenía marcas. Le bajaron nuevamente a los calabozos y empezaron a pegarle nuevamente. Le pegaban en la cabeza y cuando estaba "medio grogui" le dejaban recuperarse un rato. Le obligaron a efectuar flexiones verticalmente y le golpeaban cuando estaba abajo. Tampoco dejaban que perdiera el conocimiento. Le sentaban en una silla y se cebaban realmente.

Se le indica que este juzgado no es competente para conocer de esta denuncia, y solamente lo sería si hubiera prestado declaración policial. Al no existir declaración policial en relación con estos hechos, el conocimiento de estos hechos corresponde al Juzgado de Instrucción ordinario de Madrid.

Así se dio por terminado el acto, y leída la presente y hallada conforme se firma por los asistentes y s.S^{a}, de que doy fe.



ZORTZI GUARDIA ZIBIL
KONDENATUAK ZAZPI EUSKAL
HERRITAR TORTURATZEAGATIK

2001eko ekainaren 18 eta 20a bitartean, Bizkaiko Auzitegi Probintzialean 10 guardia zibilen kontrako epaiketa burutu zen. 1980 urtean Zornotzako zazpi herritar torturatzea leporatzen zitzaien. Urte bereko uztailaren 27an sententziaren berri eman zen, bertan zortzi guardia zibili lau eta hogei hilabete arteko arrastastzea eta lau eta hogei urte artean euren kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza ezarri zieten. Era berean zazpi torturatuei milioi bana eman beharko diete eta epaiketak sortu dizkien gastuak ordaindu beharko dizkiete. epaimahaiak frogatutzat eman zuen, atxilotuek tortura gogorrak jasan zituztela guardia zibilen esku.

1980ko azaroaren 19 eta abenduaren 1a bitartean, guardia zibilak operazio zabala burutu zuen Zornotzan, bertan atxilotutakoen artean Ernesto Alberdi, Jon Urrutia, Juan José Larrinaga, Roberto Zabala, Fernando Irakulis, Juan Luis Irakulis eta Agustín Gisasola zeuden. Atxilotuek guardia zibilen esku jasandako torturak salatu zituzten, eta kasurik gehienetan forenseek zauriak zituztela baieztatu zuten. Hala eta guztiz ere, torturatuetako batzu espetxeratuak eta kondenatuak izan ziren, oraindik bat espetxean dago. Pertsona hauek espetxeratu eta zigortzeko torturaren menpe lortutako adierazpenetan oinarritu ziren entzutegi nazionaleko epaileak. Hogei urte baino gehiago pasatu behar izan dute guardia zibil horiek akusatuen aulkian esertzeko.

KONDENATUAK

Lucio de Sosa Robledo: Fernando Irakulis, Juan Luis Irakulis, Ernesto Alberdi, Roberto Zabala eta Juan Jose Larrinaga torturatzeagatik kondenatu zuten. Torturatutako pertsona bakoitzeko lau hilabeteko arrastatzea eta lau urte bere kargua betetzeko gaitasunik eza ezarri zioten, beraz 20 hilabeteko arrastatzea eta 20 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik gabeko zigorra jaso du.

Roberto Zabala, Ernesto Alberdi eta Juan Jose Larrinagak, euren torturatzaile bezala identifikatu zuten Lucio de Sosa. Era berean instruktore bezala aritu zen Juan Jose Larrinaga eta Fernando Irakulisen kasuetan. Epaiketan salaketa partikularrari eta salaketa publikoari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Ez omen zuen ezer gogoratzen operazio polizialaren inguruan, eta era berean bere ardurapean egon izan diren atxilotuen eskubideak beti errespetatu izan dituela adierazi zuen. Hala eta guztiz ere, epaiketan bertan, berak torturatutako hiru pertsonek berriro ere identifikatu zuten. Lucio de Sosa beste bi alditan ere izan da kondenatua euskal herritarrak torturatzeagatik: Linazaren kasua 1981ean eta Torre Altonagarena 1980an.

Epaiketaren hasieran fiskalak akusatu guztien absoluzioa eskatzen zuen, baina bukaeran frogatutzat jo zuen Lucio de Sosak Juan Jose Larrinaga, Roberto Zabala eta Ernesto Alberdi torturatu zituela eta hilabete eta egun bateko arrastatze nagusia, kondena burutu bitartean bere kargua betetzeko gaitasuna kentzea eta torturatu bakoitzari 50.000 pezeta ordaintzea eskatu zuen.

Salaketa partikularrak eta herritarrak 36 hilabeteko arrastatzea eta 36 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten ikerketa egin bitartean aitorpenak lortzeko eragindako zauriengatik, eta beste hiru hilabete tratu txarrak eragitea baimentzeagatik.

José García Maldonado: Ernesto Alberdi torturatzeagatik lau hilabeteko arrastatzea eta lau urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasun eza ezarri zioten.

Torturatuak eta beraien abokatuekin batera TATek burututako prentsa agerpena

Salaketa partikularrari eta popularrari erantzuteari uko egin zion.

Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen. Ernesto Alberdik bera torturatu zutenetako bat bezala identifikatu zuen ezagutze errondan eta epaiketan bertan ere.

Epaiketaren hasieran fiskalak akusatu guztien absoluzioa eskatzen zuen, baina bukaeran frogatutzat jo zuen José García Maldonadok Ernesto Alberdi torturatu zuela eta hilabete eta egun bateko arrastatze nagusia, kondena burutu bitartean bere kargua betetzeko gaitasuna kentzea eta torturatu bakoitzari 50.000 pezeta ordaintzea eskatu zuen.

Salaketa partikularrak eta herritarrak 6 hilabeteko arrastatzea eta 6 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten ikerketa egin bitartean aitorpenak lortzeko eragindako zauriengatik.

Antonio Arias Carnero: Ernesto Alberdi torturatzeagatik lau hilabeteko arrastatzea eta lau urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasun eza ezarri zioten.

Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen. Ernesto Alberdiri egindako galdeketetan egon zen eta ez zuen ezer egin tratu txarrak eragitea eragozteko. Ernesto Alberdik identifikatu egin zuen.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatua gelditu.

Salaketa partikularrak eta popularrak 6 hilabeteko arrastatzea eta 6 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten tratu txarrak eragitea ez eragozteagatik.

José Vázquez Domínguez: Ernesto Alberdi eta Juan Luis Irakulis torturatzeagatik zortzi hilabeteko arrastatzea eta zortzi urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasun eza ezarri zioten.

Instruktore bezala aritu zen Ernesto Alberdi eta Juan Luis Irakulisen kasuetan. Salaketa partikularrari eta popularrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatutzen.

Salaketa partikularrak eta popularrak 12 hilabeteko arrastatzea eta 12 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten atxilotuenganako tratu txarrak baimentzeagatik.

Felipe Mateos Robles: Jon Urrutia torturatzeagatik lau hilabeteko arrastatzea eta zortzi urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasun eza ezarri zioten.

Jon Urrutiaren diligentzietan instruktore lanetan aritu zen. Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen. Jon Urrutiak bera torturatu zutenetako bat bezala eta era berean torturak jasotako galdeketetan parte hartu zutenetako bat bezala identifikatu zuen epaiketan.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatu.

Salaketa partikularrak eta herritarrak 6 hilabeteko arrastatzea eta 6 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten atxilotuen kontrako tratu txarrak baimentzeagatik.

Antonio Beltrán Alcántara: Jon Urrutia torturatzeagatik lau hilabeteko arrastatzea eta zortzi urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasun eza ezarri zioten.

Idazkari bezala aritu zen Jon Urrutiaren diligentzietan.

Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatu.

Salaketa partikularrak eta popularrak 6 hilabeteko arrastatzea eta 6 urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten atxilotuen kontrako tratu txarrak baimentzeagatik.

Paulino Santos Capaña: Fernando Irakulis eta Juan Jose Larrinaga torturatzeagatik zortzi hilabeteko arrastatzea eta zortzi urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasun eza ezarri zioten.

Idazkari bezala aritu zen Juan Jose Larrinaga eta Fernando Irakulisen diligentzietan.

Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soi-

lik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen.

Epaiketan bertan, Ernesto Alberdik, bera torturatu zuteneko bat bezala identifikatu zuen.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatu.

Salaketa partikularrak eta herritarrak hamabi hilabeteko arrastatzea eta hamabi urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten atxilotuen kontrako tratu txarrak baimentzeagatik.

Antonio Tocón Diez: Prebarikazio delituagatik guztiz zigortua izan zen; hamalau urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko debeku berezia jaso zuen.

Galdeketek iraun zuten bitartean bera zen nagusia eta bere agindutara zeuden gainontzekoak.

Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Zornotzar hauen atxiloketa ekarri zuen operazio polizialaz ez zela gogoratzen esan zuen.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatu.

Salaketek 359 artikuluaren inguruko 6 delitu egiteagatik (bere ardurak ematen dizkion betebeharrei uko eginez era maltzur batean guardia zibilen kontrako zigorra ekiditzeagatik) 36 urteko inhabilitazioa eskatu zuten.

ABSOLUZIOA LORTU ZUTENAK

Antonio Bailo Roche: Leporatzen zitzaizkion tortura delituengatik absoluzioa lortu zuen. Roberto Zabalaren kasuan idazkari lanetan aritu zen. Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Esan zuenez gertakarien momentuan ez zegoen Bilbon lanean.

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatu.

Salaketa partikularrak eta herritarrak sei hilabeteko arrastatzea eta sei urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten atxilotuen kontrako tratu txarrak baimentzeagatik.

Julián González Pomares: Leporatzen zitzaizkion tortura delituengatik absoluzioa lortu zuen. Roberto Zabalaren kasuan instruktore lanetan aritu zen. Salaketa partikularrari eta herritarrari erantzuteari uko egin zion. Ministeritza publikoari eta bere abokatuei erantzun zien soilik. Esan zuenez gertakarien momentuan ez zegoen Bilbon lanean

Fiskalak absoluzioa eskatu zuen bere partehartzea ez baitzen frogatu.

Salaketa partikularrak eta herriatarrak sei hilabeteko arrastatzea eta sei urtez bere kargua edo beste edozein kargu publiko betetzeko gaitasunik eza eskatu zuten atxilotuen kontrako tratu txarrak baimentzeagatik.

TORTURATUEN TESTIGANTZA

Epaitutako gertakarien larritasuna adierazteko, torturatutako pertsona batzuen lekukotasuna gehituko dugu. Lekukotasun hauek frogatutzat eman dira Bizkaiko Auzitegi Probintzialean.

Fernando Irakulis: Salveko kuartelera eraman zutenean, poliziei adierazi zien eskuburdinetako batek min handia ematen ziola eta eskua handitzen ari zitzaiola. Erantzun bezala, eskuburdin horretatik hormara zintzilikatu zuten eta beste eskuburdina horma berean zeuden zintzilikari batzutara lotu zuten. Horrela egonik galdeketa egiteari ekin zioten eta bitartean gorputzeko alboetan kolpeak ematen zizkioten. Oin azpietan ere kolpeak eman zizkioten. Kolpeen eraginez sentiberatasuna galdu eta minik somatzen ez zuenean, oinutsik lur hotzetik ibiltzera behartzen zuten

berriro ere oinetan zerbait sentitu arte, ondoren aurretik esandakoarekin jarraitzen zuten.

Ziega batean utzi zuten eta debekatu egin zioten eseri edo etzatea, bera etzan egin zen eta orduan zenbait pertsonen artean jipoitu egin zuten aginduak ez betetzeagatik. Bere ustez porrak edo beisbolean jolasteko makilak ziren tresnekin kolpatu zuten eta esparadrapo batekin estali zioten ahoa. Horretaz gain burutik behera plastikozko poltsa bat jarri zioten.

Ernesto Alberdi: Burutik behera itolarria ematen zion plastikozko poltsa bat jarri zioten. Burua ur zikinez betetako palangana batean sartzen zioten, horrek ere itolarria eragiten zion. Bizarra zatika kendu zioten eta tabakoarekin nahastu eta gero jateko eman zioten.

Agustin Gisasola: Trasladoaren momentu batean kotxetik atera eta lurrean etzateko agindu zioten, egoera horretan armen kulata batekin buruan kolpatu, gorpuz guztia ostikoz jipoitu eta pertsona bat hiltzea leporatu zioten. Burua estaltzeko jarri zioten kaputxa igo eta ahoan pistola bat sartu zioten, tiro egiteko mehatxua egin zioten eta momentu horretan atxilotuak tiroa entzun zuela pentsatu zuen.

Sententzian frogatutzat ematen dira tortura krudel guzti hauek. Horretarako torturatuen lekukotasunean eta mediku forenseen txostenetan oinarritzen dira.

TATen BALORAZIOA

Torturaren Aurkako Taldeak argi utzi nahi du zazpi atxilotuek jarritako tortura salaketak guztiz egiazkoak direla.

Lehenik eta behin, kasu hau epaitzeko eman den luzapena salatu nahi dugu, hogei urte pasatu behar izan dira epaiketa hau burutzeko. Zentzu honetan guardia zibilen etengabeko maniobrak salatu nahi ditugu, 1983an epaileak agindutako ezagutze ronda egiteko bost urte behar izan zituzten. Luzapen hau larriagotu egiten da kontuan hartzen badugu torturatuek urte asko eman behar izan dutela espetxean, hauetako bat oraindik espetxean dago. Honek 22 urte daramatza espetxean, eta espetxeratze horren oinarria torturen bidez lortutako testigantza da. Zer gertatuko da pertsona hauekin? Ezagutuko ote dute justizia?

Bestalde, nahiz eta sententzia honetan zortzi guardia zibil kondenatu, argi utzi nahi dugu gobernu Espainolak ez duela inolako asmorik torturarekin bukatzeko. Arduratuta gaude ez baitakigu Gobernuak sententzia hauek beteko dituen ala beste askotan gertatu den bezala guardia zibil hauek indultatu egingo dituen. Gobernu espainolaren jarreraren aurrean gure kezka adierazi nahi dugu:

- Kode penalean tortura eta tratu txarrak egiteagatik agertzen diren zigorrak barregarriak dira.
- Torturatzeagatik kondenatutako pertsonak euren postuetan mantentzen dituzte, Lucio de Sosa kasu. Pertsona hau hirugarrenez izan da torturak eragiteagatik kondenatua.
- Torturatzeagatik kondenatutako poliziak indultatu egiten dituzte. Horren adibide 2001eko urtarrilean emandako hamalau indultuak.
- Legedi antiterrorista mantentzen dute, eta honek askatasun osoa ematen du komisaldegietako inkomunikazio tarte luze horietan torturaren praktika erabiltzeko.

Tortura hauek duela 21 urte gertatu ziren, orduan eragile sozial askori zaila egiten zitzaion lekukotasun hauetan kontatzen zena sinestea. Gaur argi eta garbi adierazi da orduko salaketa haiek egiazkoak zirela. Ez ditugu beste 21 urte nahi gaur eguneko salaketak ere egiazkoak direla frogatzeko.

TORTURAREN PREBENTZIORAKO BATZORDE EUROPEARRA

SALATUTAKO TORTUREN EGIAZTAPENA IN SITU

ESPAINIAR GOBERNUARENTZAKO GOMENDIOAK

Torturen Prebentziorako Batzordeko ordezkaritza batek zortzi euskal preso bisitatu ditu. **Gisela PERREN-KLINGLER**, psikiatra suitzarra eta ordezkaritzako arduradunak eta **Davor STRINOVIC**, auzitegi- mediku kroatarrak osatutako Torturaren Prebentziorako Batzordeko (TPB) ordezkaritza batek, Espainiar Estatuko hainbat espetxe bisitatu iztuen iragan uztailean. Ordezkaritza **Mark KELLY** Human Rights Contsultans-eko zuzendariak (aditua) eta **Jan MALINOWSKI** TPBko idazkariak babestua egon da une oro.

Egindako bisitetan zehar elkarrizketak egin zituzten Estatu Espainoleko zenbait agintarirekin, hala nola **Pedro MORENES EULATE** Segurtasunerako Estatuko Idazkariarekin, **Eugenio LOPEZ ALVAREZ**ekin, Idazkari Tekniko Orokorra edo eta Barne Ministeritzako beste zenbait goi mailako funtzionariekin.

Funtzionario hauez gain, TPBeko delegazioak azken bi urte hauetan atxilotutako hainbat euskal hiritarrekin ere bildu ziren, horiek guztiek inkomunikazio egoeran tratu txarrak eta torturak jasan izana tortura izan dutenak.

Delegazioa zortzi euskal hiritarrekin bildu dela egiazta dezakegu eta hauek dira ziurtatu ditzakegun izenak: **IRATXE SORZABAL**, Guardia Zibilak atxilotua 2001ko martxoaren 30ean eta basatiki torturatua; **LIERNI ARMENDARIZ**, Polizia Nazionalak Bartzelonan atxilotua 2001ko urtarrilean eta basatiki torturatua; **EIDER PEREZ**, Guardia Zibilak atxilotua 2001ko martxoan eta

basatiki torturatua; **NEREA GARRO**, Polizia Nazionalak Madrilen atxilotua 2000ko azaroaren 6an eta basatiki torturatua eta **HARRIET IRAGI**, Sevillan atxilotua 2000ko urriaren 16an.

TPBko ordezkaritza auzitegi arruntetara ere hulbildu egin zen, aipatutako pertsonek egindako tortura salaketen kariz hasitako prozedura judizialen garapena aztertzeko asmoz. IRATXE SORZABALEN kasuan, delegazioa Madrileko Plaza Castillako epaitegietara joan zen, zehazki 13. instruzkio epaitegietara, bertan izanik SORZABALEK pairatutako torturen kariz jarritako salaketa dela eta hasitako diligentziak.

Delegazioak egindako halabeharrezko informeak dagoeneko Estatu Espainoleko agintariei igorria egon beharko luke. Idazkia publiko egitea ala ez egitea espainiar gobernuaren borondatearen araberakoa izanen da, izan ere Torturaren Prebentziorako Europear Hitzarmenaren arauei jarraiki, Gobernuen eta soilik hauen esku dago informeen argitaratzea agintzeko eskumen exklusiboa.

Aurrekoetan gertatu legez, antza denez bisita honekiko Gobernu Espainiarrak agertutako jarrera, informearen argitaratzea ahalik eta gehien atzeratzearena litzateke. Isilpeko informea denez, ezezagunak zaizkigu honek jasotzen dituen ondorioak, baina gardentasun jarrera egokitzat joko genuke honen publikazioa. Torturarik ezistitzen ez badu, salaketak faltsuak badira eta Estatuaren zilegitasuna zalantzan jartzeko interesei erantzuten badiete, zer hobeto salaketa hauek indargabetzeko hau baieztatzen duen informe objektibo bat baino, izen handiko adituek egindakoa gainera.

TATen aburuz, bisita berri honek, torturaren prebentziorako eta ezabapenerako lan egiten duten nazioarteko erakundeek Estatu Espainolarekiko duten kezka larria berresten duen berriro ere. TPBz gain, badira Estatu Espainiarrean torturaen praktikek irautearen aurrean, gehien bat arrazoi politikoren kariz atxilotutako pertsonen kontrakoak, euren kezka azaldu duten nazioate mailako bestelako elkarte eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Hauen artean azpimarratzekoak dira, **Nazio Batuen Torturaren Kontrako Batzordea, Nazio Batuen torturaren gaiarako Arduraduna, Suitzako Torturaren Prebentziorako Elkartea, Amnisti International, Nazio Batuen Giza Eskubideen batzordea...**

Haiek guztiek, TATetik egiten dugun moduan, behin eta berriro errepikatzen dute atxilotutako pertsonen erabateko inkomunikazioa ahalbidetzen duen terrorismoaren kontrako legearen esistentzia, salatutako jazoerekiko auzitegi eta epaileen ikerketen gabezia eta torturatzaileen inpunitatea, gobernuaren indultotan gauzatzen dena, egun estatu Esapiniarean torturaren praktikarako oinarrizko gakoak direla.

Gogora dezagun hau ez dela TPBak azken hamar urteotan Estatu Espainiarrera egiten duen lehendabiziko bisita. Bi bisita arrunta gauzatu zituzten 1991ko apirilean eta 1994ko apirilean ere, ala nola ez ohiko bisita bat 94ko ekainean, azken honetan gutxienez torturak salatu zituzten hiru euskal herritarrekin egon zelarik; **JOSU UNSION PABOLLETA, ENCARNI MARTINEZ** eta **IÑAKI LOPEZ AGIRIANO**. Bi egun iraun zuen premiazko bisita egin zuen 1997/01/17an **JOSU ARKAUZ ARANA** estatu frantsesak Guardia Zibilari entregatutako euskal errefuxiatuarekin elkarrizketa egiteko asmoz; eta 1997/04/28 ohiko bisita 1997/04/21 eta 1997/01/28 bitartean; beste bisita arrunta bat 1998/11/22 eta 1998/12/04 artean eta azkenik bost egunetako bisita arrunta iazko uztailaren 22an. Hauetako bisita batzuretan, TPBak arrazoi politikongatik atxilotutako zenbait euskal herriatarrekin egon izan dira, horietako batzuk espetxean izanik eta beste batzuk ordea askatasunean.

AURREKO BISITEN OSTEAN TPBk EGINDAKO TXOSTENEN EDUKIAK

TPBk bisita bakoitzeko txosten bat idatzi zuen, Estatu Espainolean torturen praktikaren existentziari dagozkion ondorio arras zehatzekin. Estatu Espainiarra, kasu hauetan guztietan informea isilpean mantentzeko duen eskumenaz baliatu zen. Soilik kanpo presioak medio (hautan barne TPBko eta Torturaren Kontrako Komiteko kideenak) eta gai honetan Estatu Espainiarra Turkiaren pare geratu izanak informeak publikoak egitera behartu zuen espainiar administrazioa. Dena den, azpimarratzekoa da bisitetatik txostenen argitaratzera igarotako denbora. 1991ko bisitaren ostean TPBk egindako informea 1996/03/05an publikatu zen, 1994ko

apirileko bisitarena 1996/03/05an publikatu zen eta data honetan ere 1994ko ekaineko bisitarena.

Txostenen gakoak inkomunikazio egoeran eta honek irauten duen denboran, zein egoera honetan izaten den atxilotuen berma edo berma ezan datza.

Lehendabiziko informean, 25. paragrafoan, "...tortura ezabatua izan dela ondorioztatzeko goizegi dela" esaten da.

Gero eta gehiago zehazten dute zein den torturentzako "arrisku egoera" eta bigarren informean (20. paragrafoa) "... gure eskura dagoen informazioaren arabera, 25. paragrafoan esaten dena (1. Informea) berretsi behar dutela, Espainian tortura ezabatu dela ondorioztatzeko goizegi dela, alegia".

Hirugarren bisita, 1994ko uztailetik 10tik 14ra, Guardia Zibilak Gipuzkoan egindako atxiloketa batzuren kariz egin zen, Estatu Frantsesak Guardia Zibilari Domingo Aizpurua euskal errefuxiatua entregatu ostean.

1.- TPBak III. txostenean aintzat hartutako frogak:

Lehendabizi, atzilotuen testigantzak sinesgarriak, zehatzak eta estereotipadoak ez direla aintzat hartzen dute, kasu guztietan torturak salatzearen "kontsignari" kontrajarriz. (III. inf. 29. parg)

- **Eskua irekita buruan, barrabiletan, bizkarrean, sabelaldean eta besoetan ematen diren kolpeen deskribapena, hala nola gehien bat sabelan ematen diren ukabilkadena**. (III. inf. 13. Parg) Testigantzan kontatutakoarekin bat zetozen hematoma eta ekimosien existentzia ikusi ahal izan zituzten. (III. inf. 31. parg)

- **Boltsa**: praktika honen gauzapena era zehatzan deskribatzen zuten eta teknikoki sinesgarria. (III. inf. 14. Parg)

- **Elektrodoak**: Hainbat pertsonek ikusi ahal izan zituzten eta euren deskribapena bat zetorren hainbat herrialdetako merkatutan eskura daitezkeen zenbait aparatorekin. (III. inf. 15.pag. orri-oina) Pertsona bati lokian marka bat antzeman zitzaion, erabat konpatiblea gorputzeko atal horretan korroten elektrikoak jaso izanaren testigantzarekin. (III. inf. 31. Parg)

TPBak berak azaldutako tortura praktika askotan froga medikoak lortzearen zailtasunaz ohartarazten du, gehien bat era adituan egiten badira.

2.- Auzitegi-medikuen txostenak

Informe medikuen puntuaren hasieran "Auzitegi-medikuak zenbait kasutan egin-berri ziren markak ikusi ahal izan zituela" esaten zuten, "baina bere aburuz tratu txarrekin zer ikusirik ez zuten arrazoirengati izan zitezkeen". (III. inf. 19. Parg). "... informe honen testuinguruan, hainbat dira auzitegi-medikuek jokatutako paperari buruz egin beharreko oharrak" (III. inf. 36. parg).

Lehendabiziko informean bertan ere euren kezka azaltzen zuten egindako azterketa medikoetan egon zitezkeen gabezi edo hutsuneak zirela eta eta 57. paragrafoan, inkomunikazio egoeran zera gomendatzen dute:

- atxilotutako pertsona, horrela eskatzen badu, auzitegi-medikuak aztertua izateaz gain, dagokion profesionalen eskolak proposatutako zerrenda bateko beste mediku batek aztertua izan dadila. (inkomunikatua egonez gero)

- azterketa mediko oro agenteen entzuketatik at eta egokiena ere haien ikusketatik at egitea dela.

- atxilotutako pertsonak azterketaren emaitzen berri izan dezala.

TPBko kideek egindako bisitan "ad hoc" ikusi ahal izan zuten **auzitegi-medikuen lanak dituen zenbait "gabezi"**: Madril I gartzelan egindako azterketa medikoek begi bistan utzi zuten 94ko uztaileko 1, 2 eta 4a bitartean atxilotutako zenbait pertsonek auzitegi-medikuek ikusi ez zituzten zauriak zituztela; beste kaso batean zauriak auzitegi-medikoak zehaztutakoa baino handiagoak zirela eta laugarren kaso batean zaurien zabalerari buruzko kontraesanak auzitegi-medikuak eskura izandako lanabes eskasengatik izan zitezkeela". (III. inf. 38. Prg)

Informe honek beharrezkotzat jotzen du "arreta berezia eskaini beharko litzaiokela atxilotutako pertsonaren egoera psikologikoari – eta are gehiago kustodia bitartean egoera horretan

eman daitezkeen aldaketei – bere egoera aztertzen denean". (III. inf. 39. Prg)

3.- Erabaki judizialak

Inkomunikatutako atxiloketen kontrol judizial eraginkorrari dagokionean, honako ohar hauek aipa ditzakegu:

"Ad hoc" egindako bisitan ezagututako kasuetan, 5. Auzitegi Zentraleko Epaileak, kasu batzuetan bortizkeri aztarnak daudela onartu zuen, bere aburuz hauek atxiloketaren testuinguruari dagozkiolarik, tratu txar konzienteen esistentziari baino. (III. inf. 31. Parg)

Epaileei dagokienean, TPBak inkomunikazio egoeretan epaileak atxilotutatik zuzenki informazioa jasotzeko duten aukeraz balia daitezela gomendatzen du (Zigor Auzipetze legearen 520. Art bis 3). "TPBk uste du eskumena duen epaileak edo fiskalak atxilotua dagoen lekura eta abisurik gabeko bisitak egiteak, hein handi batean lagunduko luke balizko tratu txarren ekiditera. Dena den eta eta bigarren bisitan eskuratutako informazioari esker, bisitak hauek oso gutxitan gertatzen direla ematen zuen" (II. Inf. 72 eta 73. parg.) AI-k laugarren informe periodikoan egindako Comentarioetan ere horrela aipatzen zen (CCPR/C/79/Add.1) 13. orr. 2. parg.

Erabaki judizialen alorrean TPBaren arreta deitu duen beste gako bat honako hau da: "Espainiar agintariek emandako informazioari jarraiki, Estatuko Seguntasun Indarrek sistematikoki eskatzen dutela terrorismo delituengatik atxilotutako pentsonen inkomunikazioa eta eskumena duten epaileek sistematikoki ematen dietela honetarako baimena" (II. Inf. 62. Parg). Inkomunikazioaren eskaera eta honetarako baimena motibatuak izan behar dira, "baina ematen du epaileak inkomunikazioa baimentzeko ematen dituen arrazoiak laburrak eta estereotipatuak direla eta honez gain inkomunikazioaren iraupena ahalik eta gehien luzatzen dela". Gobernuaren beraren erantzunean baieztapen hau errotik ukatzen zen, dato hauek aurkeztuz:

1994an, "terrorismoagatik" atxilotutako 119 pertsonetatik, 105 izan ziren inkomunikatuak.

1995an, 133 pertsonetatik, 129 izan ziren. Ez du ematen oso indartsua denik praktika hau sistematikoa delaren ukazioa.

4.- Espainiar Gobernuari egindako gomendioak / Jasotako erantzunak

Bigarren informe periodikoan, TPBk bere kezka azaltzen zuen inkomunikazio egoeran burututako atxiloketen aurrean eta zenbait gomendio egiten zituen atxilotutako pertsonek balizko tratu txarrak pairatzeari begira:

- famiari edo interesa zilegia duen hirugarren bati atxiloketaren berri eta lekua jakinarazteko epea gehien jota 48 ordukoa izan dadila. (II. Inf. 60. Parg).

- atxilotuek ofiziozko abokatuarekin egoteko aukera izan dezatela atxilotuak diren unetik bertatik (abokaturik gabe egindako galdeketa polizialen susmoak) kontakturako eskubidea barne eta abokatuaren bisita izateko aukerareki, kasu bietan konfidentzialtasun eskubidea bermatuz.

- atxilotuei zuzenki bigarren mediko batek aztertua izateko aukera jakinaraztea. (II. Inf. 64. Parg).

- I informeko 69. paragrafoan egindako gomendioa bete dadila, Estatuko Segurtasun Indarren galdeketetarako jarrera kode bat idaztearena. (II. Inf. 69 eta 70. Parg); hau egin ez dela ikusi ostean, honen garrantzia berresten zuten, izan ere TPBk jakin badakiela jasotako salaketa horiek guztiez gain, ohiko praktikan "(konkretuki terrorista zehatz batzuekin) galdeketak ordu askoz luzatzen direla eta euren deklarazio formalak gauez egiten direla".

- Berriro ere kontutan har dezatela TPBk bere lehen informean, Estatuko Segurtasun Indarrek galdeketak elektronikoki grabatzeari begira egindako gomendioa. (II. Inf. 71. Prg). Izan ere "... honek ez luke soilik babes handiagoa suposatzeko atxilotuentzat, baizik eta Estatuko Segurtasun Indarren iteres zilegientzako ere baliogarria litzateke. Zehazki, galdeketa prozesuaren miaketa osatua eta egiazkoa ekarriko luke, tratu txarren salaketen ikerketa arras erraztuz eta errudunaren izendatze zehatza."

- Estatuko Segurtasun Indarrek kustodia-erregistrorako eredu ulergarri bakarra erabil dezatela. (II. Inf. 76. Parg) "... arlo honen gabeziak bereziki larriak ziren Guardia Zibilaren Gipuzkoako, Euskal Herria, polizia-etxean."

Azpimarratzekoak dira 1997an Estatu Frantsesak JOSU ARKAUZ ARANA euskal errefuxiatua Guardia Zibilari entregatzearen kariz egindako premiazko bisitaren edukinak.

Komitearen ondorioen artean aipatzekoa da Josu Arkauzek delegazioari egindako torturen aitorpena teknikoki sinesgarria dela eta "boltsaren praktikak eragindako itotzeak eragindako konorte galtzearen sentsazioa deskribatzeko modua bereziki konbentzigarria zela. Banda armatuko ustezko kide izateagatik atxilotutako pertsonak kustodiatzen dituzten Guardia Zibilak erabiltzen dituen metodoen inguruko azterketa inpartziala egitea gomendatzen zuen. TPB ez dator bat Gobernu Espainiarrarekin ikerketa hori ez egitea erabakitzeagatik. Epaile eta fiskalei ere aktiboagoak izateko eskatzen zitzaien tratu txarren salaketak jasotzerako orduan.

TORTURAREN PREBENTZIORAKO BATZORDE EUROPEARRAREN BISITEN DINAMIKARI BURUZ.

1987ko uztailean, Estrasburgon, Europako Kontseiluko Estatu Kideek torturaren prebentziorako europear hitzarmena sinatu zuten.

Hitzamen honen asmoa, atxilotuak edo espetxeratuak diren pertsonen eskubideen bermarako sistema ezartzea da eta horretarako BATZORDE bat eratu zen, TPB, hitzarmen honen sinatzaileak diren herrialdetara bisita sistema bat ezartzen duena.

TPBk gehien bat, bisitatzen dituen herrialdeen egoera de facto aztertzen du eta zehazki:

Bisitatutako guneen baldintza orokorrak ikuskatzen ditu.

Estatuko Segurtasun Indarren eta askatasunik gabeko pertsonekin harremanetan dauden gainontzeko pertsonalaren jarrera aztertzen du.

Askatasunik gabeko pertsonak elkarrizketatzen ditu, aurreko bi puntutaz duten iritzia ezagutzeko.

Askatasun gabezia oinarritzen den esparru legala eta administratiboa aztertzen du.

Batzorde hau da, behintzat Europa mailan, polizia-etxetara eta espetxetara sar daitekeen bakarra. Estatuak ezin ekidi dezakelarik.

Era berean, Batzorde hau atxilotutako edo preso dagoen edozein pertsonarekin elkarrizketa daiteke, Estatuak ezin diolarik debekatu.

Bisitaren ostean, hau egin duten kide eta adituek, ikusitako egoeraren inguruko informea idaten dute, beharrezkoa izanez gero, gomendioak emanez Estatuari, giza eskubideen urraketa dakarten egoerak zuzen ditzan. INFORME HAU ERABAT KONFIDENTZIALA DA.

Informea garatu ostean, komiteak Gobernuari igortzen dio, azter dezan, zuzenketak edo alegazioak egin ditzan.

Hori bai, bisita eta txostenaren ostean, Komiteak egoera hobetzen ez dela eta giza eskubideen urraketak sistematikoa eta begi bistakoa izaten darraiela iksuten badu, komiteko kideen 2/3en aldekotasunaz, honek agerraldi publikoa egin dezake, dena delako estatuko atxilotuen eta espetxeratuen giza eskubideen urraketa salatuz, hala nola Estatuari egindako gomendioak errepikatuz. (TPBk aukera hau Turkiaren kasuan soilik erabili du).

Beste aukera bat TPBk bisitak AD HOC egitearena da, premiazkoak alegia, egoera larritan (eskubideen urraketa dela eta) eta komiteak berak beharrezkotzat jotzen duenean. Kaso honetan ere gobernuak ezin du hau debekatu.

TORTURAREN
DESAGERPENA LANDUZ

Estatu espainiarrean torturak duen aurpegi beltza agerarazi nahi dugu lerro hauen bidez. TAT - Torturaren Aurkako Taldeak 2000. urtean bilduriko datuen arabera, 77 euskaldunek salatu zituzten tratu txar eta torturak euren atxiloketa inkomunikatuetan. Hauetatik, 55 izan ziren judizialki salaketa ipini zutenak, eta salaketa hauetatik jada 35 artxibatuak izan dira, instrukzioa aurrera eramateko frogarik ez dagoela argudiatu ondoren. Aurten, berriz, iraila arte ditugun datuak are larriagoak dira, 84 euskal herritar torturatuak izan dira eta dagoeneko 37 salaketa ezarriak daude. Salaketa ipini duten gehienen hizketaldia ez da entzuna izan, sendagile eta psikologoen esanari ere ez diote kasurik egin, ez eta atxiloketen zaindaritza zutenekin galdeketarik burutu. Salaketa jaso duten epaileek ez dute inolako frogaren egiteko agindu... Zenbat eta lehen artxibatu, arazo gutxiago.

Azken 24 urte hauetan etenik gabe errepikatu diren tortura eta tratu txar kasuak desagertze bidean ipini nahi ditu TAT ek Euskal Herriari zuzenduriko ekimen soziala abian jarriz. Ekimen garrantzitsu honen oinarria 9 puntu biltzen dituen proposamenaren inguruko indar metaketan datza. Proposamenak, atxilotuei ezartzen zaien legediaren aldaketa ezinbestekotzat jotzen du, eta antolakunde internazionalen nahiz Gobernuz Kanpoko Erakunde ezberdinetako arrazoitzeen arabera osatu da. Ekainean eman genuen argitara, eta jarraian Euskal Herrian aritzen zareten eragile

Komunikabideei proposamenaren aurkezpena

guztioi (politikoak, sindikatuak, eliza, hedabideak, herri mugimendua...) aurkeztu nahi dizuegu, proposamenaren izaera barneratu, eta zuen lan ildo eta esparruetan uneoro presentzia izan dezan.

Aurkezpenarekin batera, gure proposamenarekin bat egin dezazuen eskatzen dizuegu. Zuen lan esparruetan torturaren aurkako kontzientzia hedatu eta egungo legedi eta praktika alda daitezen Estatuko instituzioetan aritzen diren politikari eta nola ez, Estatuko agintarienganako presioa bideratzea guztion zeregina dela deritzogu.

Hau da gure buruari jarri diogun erronka, Euskal gizarteak duen erronka!!

TORTURA GAINDITZEKO BEHARREZKOAK DIREN 9 PUNTU

Euskal Herritar askori eragiten zaizkien sofrikarioek legezko oinarriak dituzte ardatz, Auziperatze Kriminaleko legedian artikulu ezberdinetan barneratzen den “antiterrorista” legea batipat. Artikulu hauek 384 bis, 520 bis, 527 eta 553 dira.

384 bis artikuloaren edukina honakoa da:

Bakanakako errebelde edo terrorista edo eta talde armatuekiko harreman edo kidetza duen petsona bat auziperatua eta behinbehineko espetxeratze agindua duenean, baldin eta auziperatuak funtzio edo kargu publikoa beteko balu, automatikoki bere funtzio hontan suspenditua geldituko litzateke espetxeratze egoerak dirauen artean.

Artikulo hontan ondoren legedi antiterroristak aipu duen hiritar multzoa finkatzen du, “Bakanakako errebelde edo terrorista edo eta talde armatuekiko harreman edo kidetza duen petsona”, alegia.

520 bis artikuloak zera dio:

1.- 384 bis artikuluko delitu baten pean atxiloturiko edozein pertsona, epailearen menpean jarriko da atxiloketaren hurrengo-

ko 72 orduetan. Hala eta guztiz ere, ikerketa burutzeko, bere atxiloketa luzatu daiteke, gehienez beste 48 orduz, beti ere, luzapen hau atxiloketa eman denetik 48 ordu iragan ez direnean eskatzen bada. jakinerazpen hau arrazoitua izan behar da, eta epaileak 24 orduren buruan onartu behar du. Baimena eta ukapena, biak arrazoituriko jakinerazpen bidez eman beharko dira.

2.- Aurreko atalean azaldutako pertsona baten atxiloketa ematean, epaileari atxilotuaren inkomunikazioa eskatu ahal zaio, honek 24 orduko epean bere erantzuna, beti ere arrazoitua, eman beharko duelarik.

3.- Atxiloketak dirauen artean, epaileak, bai berak zuzenean edo eta atxilotua dagoen barrutiaren instrukzio epailearen bidez uneoro honen egoera ezagutu dezake.

527. artikuloak honakoa dio:

Atxilotua edo preso dagoen pertsonak, inkomunikazioak irauten duen garaian ezin izango du kapitulu hontan agertzen diren eskubidez baliatu, 520 artikuluan agertzen direnak izan ezik, honako aldaketa hauekin:

a) Bere abokatua ofizioz izendatua izango da.

b) 2. zenbakiko d) atalean agertzen den komunikatzeko eskubidea ez du izango.

c) 6. zenbakiaren c) atalean agertzen den bere abokatuarekin elkarrizketa bat izateko eskubidea ere ez du izango.

Artikulo honek azken finean, oinarrizko eskubide batzuen ezabatzea suposatzen du. Ezabatzen diren eskubideak honakoak dira:

- Konfidantzazko abokatu bat izateko eskubidea.

- Atxiloketaren berri eta uneoro atxilotua aurkitzen den tokiaren berri senide edota atxilotuak aukeratutako pertsonaren ezagutzan jartzeko eskubidea.

- Parte hartu duen dilijentzien ondoren konfidantzazko abokatuarekin elkarrizketa pribatu bat izateko eskubidea

- Atxiloketaren arrazoien berri izateko eskubidea, inolako atzerapenik gabe.

- Atxiloketak irauten duen denboran, ixilik egoteko eta bere aurka aitorpenik ez egiteko eskubidea.

553. artikuloaren edukina honako hau da:

Poliziek atxiloketa baten ostean bere autoritatez aritu ahal izango dute kasu hauetan: atxilotu hauek kartzelaratzeko agindua dagoenean, hauek nabaria den delitua egiten atxilotzen dituztenean, poliziak gaizkile baten atzetik doazenean, eta hau etxe batean ezkutatzen edo babesten denean, edo, kasu berezi edo premiazko beharra dagoenean, 384 bis artikuluko ekintzen egileak direnean, edozein delarik ezkutatu edo babesten diren etxe edo lekua, eta horren ondorioz egiten den miaketa ere, atzematen diren efektu eta tresnak delituarekin harreman zuzena dutenean.

Aurreko paragrafoan azaldutako miaketaren berri, eskudun den epaileari jakinaraziko zaio, hau motibatu duten arrazoien berri emanez eta jaso diren emaitzen berri emanez, izan diren atxiloketen aipamen barezia eginez. Honela, parte hartu duten pertsonen eta gertatutako ezusteen berri eman beharko da.

Lege antiterrorista berezi honetaz aparte, Entzutegi Nazionalari eskaintzen zaizkion ardura ezberdinek ere torturaren sofrikarioan eragiten dute, indar polizialek eginiko edozein salaketa aintzat hartzen eta babesten baitute.

Auziperatze Kriminaleko legediaren 384 artikuluak Entzutegi Nazionalari emaniko konpetentziak 1988.ko Maiatzaren 25 ean eginiko lege organikoan nabarmentzen dira.

Testuak honela dio hitzez hitz:

Instrukzioko Epaitegi Zentralek eta Entzutegi Nazionalak egingo dute jarraipena honoko kasu guztietan, talde armatuetan dauden pertsonek delitua egitean, edo elementu terrorista nahiz bihurriekin erlazionatzen direnean, eta baita ere delitu hauen egitearekin lan egin edo laguntzen duten pertsonengan.

Araudi honekin batera lege organikoaren 62. artikuluak, estatu espainiar osoan konpetentzi guztiekin eragin dezakeen estamentu gisa kokatzen du Entzutegi Nazionala.

Instantzia judizial arruntak izaten dira tortura kasuen salaketak aurrera eramaten dituztenak eta ez Entzutegi Nazionala. Instantzia hauek, ez diote behar adinako kasurik egiten salaketei, ez dute ikerketarik zabaltzen, indar polizialei ezarritako zigorrak oso urriak dira, gainera, gobernuak supituan ezaba ditzake eskeintzen dituen indultuen bidez. Guzti honek tortura basatia ahalbidetzen du.

Larrialdi honen aurrean, TATek ez du soilik aurkezten dituen puntuen onespena lortu nahi, tortura praktiken desagerpena ekarriko duen bideari ekitea baizik, eta hori gaur egun Euskal Herrian lanean diharduten eragile guztien ardura da. Torturaren aurkako eginahalean, euskal gizarteari konpromisoa hartzea eskatzen diogu, lan tresna gisa erabiliaz, sektoreetan jorratuz, eta oro har, tortura ahlbidetzen duten neurri eta legediak aldatu ditzanera bultzatuz estatu espainiarra. Bide hontan, jarraian datorren 9 puntuetako taularekin bat egin dezazuen eskatzen dizuegu. Honekin batera, taula hau errealitate bihurtu dadin zuen ahalegin sendoenak egin ditzazuen eta zuen lan esparru guztietan torturaren errealitatea zabaldu eta gutxiengoko planteamendu honekiko ahalik eta atxekimendu gehien lor itzazuen eskatzen dizuegu ere.

Legedi antiterroristaren ezabaketaren aldeko ekimenaren oinarrizko puntuak

Testu honen bukaeran sinatzen dugun eragile edo eta pertsonek, egun Euskal Herritarren aurka ematen diren tortura kasuak onartezinak direla deritzogu. Gure hainbat eta hainbat herrikidek jasandako sofrikarioak ez du konponbiderik baina etorkizunean sofrikario hau inork jasan ez dezan posible da. Bide hortan, guk, testu honen sinatzaileok, Estatu espainiarrari datozen 9 puntuetan proposatutako neurriak har ditzan eskatzen diogu, eta hau errealitate izan dadin ahalegin guztiak egingo ditugunaren konpromezua hartzen dugu, honela soilik lortuko baitugu aurrerantzean atxilotuei dagozkien eskubideen errespetua eta bermea.

1.- Auziperatze Kriminaleko legediaren 520 bis. artikuluaren ezabaketa. Honek, pertsonaren atxiloketa eta inkomunikazioa 5 egunetara luzatzea baimentzen baitu.

2.- Auziperatze Kriminaleko legediaren 527. artikuluaren ezabaketa, atxilotutako pertsonari dituen eskubideak murrizten baitizkio. Oinarrizkoa dela ulertzen dugu atxilotuaren senitartekoek bera aurkitzen den lekuaren eta egoeraren berri edukitzeko eskubidea. Era berean, diligentzia judizial eta polizialetan atxilotuak aukeraturiko abokatuaren presentzia ezinbestekotzat ikusten dugu, hala nola, diligentzien ondoreneko uneetan pribatuan hizketaldia edukitzeko eskubidea.

3.- Atxiloketak irauten duen artean pertsonaren osasun fisikoa nahiz psikikoa bermatu dadin, atxilotuak bere kabuz aukeraturiko sendagileek ikus dezatenaren aukera izan behar luke, hauek, atxilotuaren inguruko azterketak egin ditzaten, beti ere atxilotuaren egoeraren jakitun izateko.

4.- Auziperatze Kriminaleko erreforma 1988.ko Maiatzaren 25 ean onartu zen, eta, bertako Lege Organikoaren

384 bis artikuluan, Entzutegi Nazionalak dituen konpetentziak bertan behera uztea eskatzen dugu. Honela atxilotuen instrukzioa eta auziperatzea, euren jaioterriko auzitegien esku geratuko litzateke.

5.- "Habeas Corpus" delakoaren ezarpena eta erabilera. Modu honetan epailea bene benetan arduratuko litzateke atxilotuaren egoeraz.

Habeas Corpus-a zuzentzen duen L.O. 6/1984 legearen 2. artikuloaren bigarren parrafoaren ezabapena. Artikulu honek, atxilotuaren inkomunikazioa agindu duen epaile beraren eskutan uzten baitu Habeas Corpus-aren erabilera.

6.- Poliziek aurrera eramandako diligentzia ororen deuseztapena, baldin eta atxilotutako pertsonaren osasun psikikoa nahiz fisikoki kaltetua izan bada. Zentzu honetan ezinbestekoa jotzen dugu, torturak salatu dituen pertsonaren inguruko ikerketak, atxiloketa aginduari eta instrukzioari atxekitzea.

7.- Epaile eta agintari judizialen aldetik sakoneko ikerkuntza ahalbidetzea tortura testigantzaren aurrean. Ipintzen den une beretik argitu dadila salaketa egiazkoa denentz, honetarako, sendagileen froga eta neurriak erabiliaz. Oinarrizkoa da, bai behintzat ikerkuntzak dirauen artean, salaturiko zaindarien behin behineko kargu uztea ziurtatzea.

8.- Egoitza polizialak bideo kameraz hornitzea, atxilotuari ematen zaion tratuaren berri izateko, atxiloketaren nondik norakoa jarraitu ahal izateko, atxilotuaren intimitatea bermatuaz, egiten diren diligentzien ezagutza edukitzeko...

9.- 9- Tortura kasuak eragiteagatik zigortuak izan diren funtzionarien aldeko indultuen desagerpena. Gaur egunean, hauetariko gehienek zigortuak izan diren kargu berberean jarraitzen dute edo ta goragoko postuak eskeini zaizkie sari gisara. Gobernuak nahiz Erregetzak adostutako praktika honekin torturaren erabilpenerako bideak ireki besterik ez dira egiten.

TAT-EN PROPOSAMENAREN INGURUAN JASOTAKO ERANTZUNAK

Azken hilabete hauetan, TAT eko kideak Euskal herrian aritzen diren hainbat eragile eta pertsona esanguratsurekin bildu izan gara. Batzuetan, nahiz eta gure aldetik biltzeko saiakerak egin, hainbat eragilek geurrekin biltzeari uko egin diote.

Datozen lerrotan TATek bultzaturiko proposamenaren inguruan izandako erantzunak jasotzen ditugu, bai proposamenarekin bat egin dutenenak, bai atxekitzeari uko egin diotenak eta baita gurekin bildu nahi izan ez dutenenak ere.

TAT en proposamenarekin bat egin dutenek, proposamena bere egin eta beraien lan esparruetan honen edukinak plazaratu eta atxekimendu berriak lortzearen konpromezua adierazi digute.

Hurrengo lerroetan zerrendatzen ditugun eragileez gain TATek hainbat komunikabide, gotzain, herri mugimendu eta giza eskubideen defentsarako nazioarteko erakundeen aurrean aurkeztu du bere proposamena. Nahiz eta oraindin erantzun ugariren zai gauden ata nahiz eta oraindik gure lana izugarria izango denaren konsziente izan, aurrerago zerrendatzen ditugun eragile eta pertsonen atxekimendua eta konpromezua jaso izanak ekindako bidean tinko eta burubelarri jarraitzeko animoak ematen dizkigu.

GAUR ARTE JASOTAKO ATXEKIMENDUAK

HERRI MUGIMENDUA

ETXERAT, ASKATASUNA, SUMENDI, EKI (EKOLOGISTAK MARTXAN), EHGAM, HERRIA 2000 ELIZA, GAZTE KONSEILUA, IPES, AHT,

SINDIKATUAK

LAB, SINTRAGI, EHNE., ESK, STEE-EILAS.

INDAR POLITIKOAK

BATASUNA, ZUTIK, EUSKO ALKARTASUNA, ANV, BATZARRE, ARALAR.

GAZTE MUGIMENDUA

SEGI, GAZTE ABERTZALEAK, IKASLE ABERTZALEAK

INSTITUZIOAK

UDALBILTZA.

KOMUNIKABIDEAK

TASTAS IRRATI LIBREA.

BANAKAKO ATXIKIMENDUAK

PEDRO OTAEGI LABAKA, ABELIN LINAZASORO, ARANTXA GURMENDI OLABIAGA, DABID ERRASTI, actores.

PROPOSAMENARI UKO EGIN DIOTENAK

EAJ/PNV, ELKARRI, CDN, ELA, EGI

GAUR ARTE ERANTZUN EZ DUTENAK

GESTO POR LA PAZ, IZQUIERDA UNIDA

TAT-EKIN BILTZERA UKO EGIN DIOTE

PP, PSOE, UPN.
UGT, CCOO.

Informazio gehiago nahi badezu, ekonomikoki edo beste modu batetan lagundu nahi bagaituzu, hau da gure helbidea:

TORTURAREN AURKAKO TALDEA - TAT
Apdo. 142
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 33 06 23
943 33 36 74
E-mail: tatortura@euskalnet.net